# EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN PLAN OROKORRA 2014-2019

# Euskadiko 2014-2019 aldiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra

1. Sarrera ... 4

2. Esparru juridikoa ... 7

2.1. Delinkuentziaren aurkako babesa. ... 7

2.2. Herritarren segurtasuna prebenitzea, mantentzea eta berrezartzea ... 7

2.3. Segurtasun-indar eta -kidegoak: EAEko polizia. ... 7

2.4. Segurtasun Pribatua ... 8

2.5. Babes zibila eta larrialdien kudeaketa ... 8

2.6 Azpiegitura kritikoak ... 9

2.7. Trafikoa eta bide-segurtasuna. ... 9

2.8. Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak ... 10

2.9. Jokoa ... 11

2.10. Abian jarritako arau-proiektuak ... 12

3. Arrisku eta mehatxuak Euskadin ... 13

3.1. Arrisku naturalak ... 14

3.2. Teknologia-arriskuak ... 19

3.3. Arrisku antropikoak ... 23

3.4. Baso-suteak ... 32

3.5. Azpiegitura kritikoak ... 33

4. Segurtasunaren egoera Euskadin ... 35

4.1. Euskal polizia ... 35

4.2. Larrialdiei aurre egitea ... 62

4.3. Bide-segurtasuna ... 75

4.4. Prestakuntza Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian ... 79

4.5. Jokoa eta Ikuskizunak ... 81

5. Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza ... 84

a. Erakunde arteko koordinazio-organoak ... 85

5.1. Euskadiko Segurtasun Batzordea ... 85

5.2. Udaltzaingoen Koordinazio Batzordea ... 86

5.3. Toki Koordinazioko Batzordea Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean ... 86

b. Kontsulta- eta koordinazio-organoak ... 86

5.4. Euskadiko Babes Zibileko Batzordea. ... 86

5.5. Ikuskizun eta jolas-jardueretarako euskal kontseilua ... 86

5.6. Jokoaren Euskal Kontseilua ... 87

5.7. Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordea ... 87

c. Partaidetza-organoak ... 87

5.8. Euskadiko Bide Segurtasunaren Kontseilua ... 87

*Azpiegitura kritikoen lantaldea* ... 88

5.9. Segurtasun Pribatuko Batzorde Mistoa ... 88

5.10. Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa - Ekinbide ... 89

d. Lankidetza-hitzarmen eta -protokoloak ... 92

e. Lankidetza-hitzarmenak komunikazioak koordinatzeko arloan ... 94

6. Ardatz eta helburu estrategikoak ... 96

7. Kudeaketa-eredua – Gobernantza ... 134

8. Ebaluazio- eta jarraipen-sistema ... 135

9. Planaren ildo ekonomikoak ... 138

10. Segurtasuneko Toki Planak egiteko norabideak ... 139

11. Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorraren laburpen-taula ... 140

# Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra

## 1. Sarrera

Euskadiko segurtasun publikoaren sistema antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak segurtasun publikoaren antolamendu-esparruaren ikusmolde integrala zehazten du. Administrazio publikoek hainbat xedapen, prozedura, bide eta baliabide darabiltzate jendeak eskubide eta askatasunak bete-betean erabil ditzan, eta herritarrak bakean, ongizatean eta gizarte kohesionatuan bizi daitezen; hau da, horretarako beharrezko baldintzak sustatzeko eta horretarako dauden oztopoak ezabatzeko helburua dute. Arriskuak, nahita edo nahi gabe sortutakoak, ahalik eta gehien murriztea da horretarako bidea eta, arriskuak diogunean, jendearen eskubide eta askatasunak, segurtasuna edo ondasunen edo denon ondarearen segurtasuna asaldatzeko arriskuak ditugu gogoan.

15/2012 Legearen 3. artikuluaren arabera, segurtasun publikoaren sistemaren denentzako printzipioen artean honako hauek daude: arriskuen eta mehatxuen prebentzioa, herritarrak dituzten beharrizan edo premiak ezagutzea eta zerbitzu publikoa haiei egokitzea, eta arazoak identifikatzea, erantzuna planifikatzea eta emaitzak ebaluatzea. Legeak azpimarratzen du segurtasunaren helburuak, estrategiak eta jardun-ildoak planifikatu behar direla, eta legearen lehen tituluaren II. kapitulua horri buruzkoa da. Plangintza horren gailurrean, Euskadiko segurtasun publikoaren plan orokor hau dugu, 15/2012 Legearen 11. artikuluan araututakoa. Eusko Jaurlaritzak bost urtean behin onartu behar du, eta horrelako lehen plana da legea onartu zenez geroztik.

15/2012 Legearen arabera, Planak hiri-segurtasunaren, larrialdien eta bide-segurtasunaren arloetako arriskuen, jardunen eta bitartekoen analisi eta aurreikuspen orokorrak jasotzen ditu, baita Euskadiko herritarren elkarbizitzari eta pertsonen eta ondasunen segurtasunari eragiten dieten beste batzuk ere. 15/2012 Legearen arabera, plan horrek segurtasun-egoera aztertu behar du planifikatutako eremuari dagokionez, helburu orokorrak, lehentasunak eta eskuragarri dauden bitarteko eta baliabideak zehaztu behar ditu eta egin beharreko ekintzak adierazi, aplikazio-egutegia, jarraipen- eta ebaluazio-metodoak eta indarraldia jasota. Gainera, helburu orokorrak eta gidalerro teknikoak finkatu behar ditu planak, segurtasun-agintariek helburu, estrategia eta jardun-ildoak planifikatzeko eta dagozkien plangintzak egiteko aukera izan dezaten. Azkenik, plan orokorrak genero-ikuspegia hartu behar du aintzat, eta, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen guztien aurkako borrokari eman behar dio lehentasuna.

Plan hau oso zeharkakoa da, sailen eremu soila gainditzen duelako eta gobernu-plan bat delako. Izan ere, plana lantzerakoan kontuan hartu da Eusko Jaurlaritzaren arlo guztietan ez ezik, gainerako erakundeetan ere eragin behar duela, larrialdien arretaren atalean bereziki. Hortaz, X. legegintzaldiko gobernu-programa egikaritzeko tresna da plana, eta, horregatik, segurtasun-plana eta gobernu-programa lerrokatuta daude argi eta garbi; horrek koherentzia ematen dio Planari, beheko taulan ikus dezakegunez:

| Euskadiko segurtasun publikoaren plan orokorra<br><br>Ildo estrategikoak | X. legegintzaldiko gobernu-programa<br><br>Helburuak |
|---|---|
| 1.1-/2.1- eta 5.1- ildo estrategikoak. Ertzaintzan gizartearen onespen-maila handia lortzea. | 1. helburua.- Ertzaintza gizartean integratzea eta gizartera hurbiltzea. |
| 2.4/3.3-ildo estrategikoak. Ertzaintza osatzen duten pertsona guztien konpromisoa eta barne-kohesioa. | 2. helburua- Legitimitate demokratikoa eta bizikidetza indartzea. |
| 1.2-/2.2 ildo estrategikoa.- Prebentzio aktiboan oinarritutako zerbitzua eskaintzea, inteligentzia eta ikerketa kriminal eraginkorrek lagunduta.<br><br>5.2 ildo estrategikoa.- Ertzaintzaren kudeaketan etengabeko hobekuntza eta beste batzuekiko lankidetza txertatzea, erantzuna behar berrietara egokitzeko. | 3. helburua.- Polizia eraginkorragoa, prebentzioan oinarritua. |

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorraren azken helburua honako hau da: “herritarrek beren eskubide eta askatasunak askatasunez baliatzea ahalbidetzen duten baldintza objektiboak bermatzea, segurtasunaren inguruko pertzepzioa ere areagotzeko", eta plan hori tresna espezifikoa da X. legegintzaldiko gobernu-programaren honako atal hau egikaritzeko: "Segurtasuna komunitatearen zerbitzura". 2.13 atala: “Segurtasun eta Ertzaintzaren eredu berria euskal gizartearen zerbitzura”. 2. ardatza: “Giza garapena”. I konpromisoa: “Enplegua eta pertsonak”.

Lerrokatze hori berretsi egiten da segurtasun-plan honen barruan bildutako bi premisa legegintzaldiko erreferentziazko zenbait dokumentutan jasota daudelako: (1) indarkeria terroristarik eza; eta (2) pertsona ekintza publikoaren protagonista da, eta, horregatik, segurtasunaren inguruko politikak herritarren segurtasuna hobetzeari eman nahi dio lehentasuna[1].

Proposamen horiek testuinguru jakin batean txertatzen dira. Horren arabera, X. Legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzak konpromiso berezia hartu du kalitatezko gizarte-zerbitzuak bermatzeko, segurtasuna barne. Aldi berean, testuinguru sozioekonomikoak gizarte-desberdintasun handiagoak sortzen ditu, eta gizarte-oreka eta -justizia sustatzeari garrantzi espezifikoa eman behar zaio, "pertsona guztiengana, lehenik eta behin pertsonengana" iristeko. Plan hau egiteko, lehenik eta behin kontuan hartu da segurtasuna ongizatearen gizartearen zutabeetako bat dela, eta, ildo horretan, segurtasunaren prestazio publikoa jarduera publikoaren ardatz garrantzitsuenetako bat dela, "ez bakarrik gizartean ordena eta

[1] 2012ko abenduaren 13an lehendakariak Eusko Legebiltzarrean emandako inbestidura-diskurtsoa: ”Testuinguru honetan lehentasunen artean aipatu nahiko nuke premiazko beste helburu bat oinarrizko dena: pertsonen segurtasuna hobetzea alegia. Terrorismorik gabeko eskenatokia aukera ona da esfortzu publikoa hiritarrentzako neurriak aplikatzeko ekimenean jartzeko. Hauxe izango da Jaurlaritza berriarentzako ildo nagusi bat.”

lasaitasuna bermatzeko", baita larrialdi-egoeretan herritarrei laguntzeko komunitate-zerbitzuak eskaintzeko ere (integrala eta sektore anitzekoa)[2].

Plan hau ikuspegi integral batekin sortu da. Bertan biltzen da Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak koordinatutako lana, segurtasuneko zeharkako politikak antolatzen dituena lerrokatuta, koordinatuta eta lehentasunak ezarrita. Planak EAErako segurtasun publiko integraleko paradigma berri bat proposatzen du.

Segurtasun-eskaerak bilakatu eta areagotu dira, gero eta modernoagoa eta aurreratuagoa den gizartean. Gaur egungo ingurune konplexuan, arrisku eta mehatxu berriak agertu ohi dira, eta, aldi berean, eremu ireki berriak agertzen dira, ziberespazioa adibidez, arrisku eta mehatxu horien hedapenaren eta inpaktuaren mesedetan.

Dokumentu honetan hiru atal bereizi dira. Lehenik eta behin, euskal herritarrak eraginpean hartzen dituzten arrisku eta mehatxuak aztertzen dira, eta eragin handiena dutenak edo eragin handiena izateko aukera gehien dauzkatenak azpimarratu egiten dira, hala nola uholde, elurte eta izozteak, arrisku kimikoa, trafiko-istripuak, salgai arriskutsuen garraioaren istripuak, ondarearen eta pertsonen aurkako delituak, delitu informatikoak, aglomerazio handietatik eratorritako arriskuak, baso-suteak eta azpiegitura kritikoak eraginpean hartzen dituzten arrisku bereziak.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan segurtasuna une honetan zertan den aztertzen da, aztertutako arrisku eta mehatxuei aurre egiteko zer bitarteko eta baliabide dauden aintzat hartuta. Atal horretan, poliziaren, herritarren segurtasunaren, larrialdien eta babes zibilaren eremuak aipatzen dira, baita administrazio-jardunaren beste eremu batzuk ere, esaterako, trafikoarekin eta bide-segurtasunarekin, Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin eta erakundeen koordinazio eta lankidetzarako organoekin zerikusia dutenak.

Behin arriskuak identifikatu eta segurtasunaren egoera aztertu ondoren, planteatutako ildo estrategiko eta helburuak betetzeko Eusko Jaurlaritzaren sailekin, aldundiekin, toki-erakundeekin eta euskal gizartearen beste hainbat ordezkarirekin elkarlanean egin beharreko jardunak zehaztu dira, eta Planean bildu dira. Gainera, jarraipen-sistema bat ezarri da, Plana zenbateraino aurreratzen eta betetzen ari den neurtzeko aukera ematen duten adierazleetan oinarrituta.

Azkenik Planean bildu dira helburu eta aurreikuspenak integralak direla eta beste sektore-plangintza batzuetan (babes zibileko planetan edo bide-segurtasuneko plan estrategikoan, adibidez) aurreikusitako helburu eta aurreikuspenekin bat datozela ziurtatzeko beharrezko aurreikuspenak, baita segurtasuna planifikatzeko beharrezko aurreikuspenak ere.

---

2 Segurtasuneko sailburuak, 2013ko otsailaren 4an Legebiltzarraren Batzordearen aurrean egin zuen agerraldian, ***hiru zutabe estrategiko*** zehaztu zituen, Legegintzaldi honetan segurtasunaren politikaren oinarri izango direnak eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrean islatzen eta lantzen direnak:

1.- Herritarrengana gehiago hurbiltzea, eta sistema osoa herritarren ardatzaren inguruan egituratzea.

2.- Giza baliabide eta baliabide teknologikoak efikazia eta efizientzia handiagoz erabiltzea.

3.- Lankidetza handiagoa gizarte-, erakunde- eta polizia-agente guztien artean.

## 2. Esparru juridikoa

Segurtasun publikoaren esparru juridikoaren barruan, askotariko xedapen eta arauak bildu dira, autonomia-erkidegokoak, estatukoak zein Europakoak, pertsona eta ondasunen segurtasunean era batera edo bestera eragiten dutenak, eta, besteak beste, honako hauei dagozkienak: herritarren segurtasunaren babesa, segurtasun pribatua, babes zibila eta larrialdien kudeaketa, azpiegitura kritikoen babesa, trafikoa eta bide-segurtasuna, jendaurreko ikuskizun edo ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak edo ausazko jokoak.

Unean-unean indarrean dauden sektore-araudiek segurtasun-alorreko politika publikoak arautzen dituzte, eta segurtasunaren plangintza esparru koherente batean kokatzen dute, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legean aurreikusitako mekanismo integratzaileei esker. Zentzu horretan, gure autonomia-erkidegoan lege hori antolamendu juridikoaren gailurra da gai horri dagokionez.

Indarreko lege-xedapenen zerrenda ez oso zehatza aurkeztuko dizuegu jarraian, plan honi dagokion lege-testuingurua identifikatzeko helburuarekin.

### 2.1. Delinkuentziaren aurkako babesa.

- Zigor Kodea eta arau osagarriak.
- Prozesu- eta espetxe-legeria.

### 2.2. Herritarren segurtasuna prebenitzea, mantentzea eta berrezartzea

- 1/1992 Lege Organikoa, otsailaren 21ekoa, herritarren segurtasuna babesteari buruzkoa.
- 9/83 Lege Organikoa, uztailaren 15ekoa, batzartzeko eta manifestatzeko eskubidea arautzen duena.
- 4/1997 Lege Organikoa, abuztuaren 4koa, toki publikoetan segurtasun-indar eta -kidegoek bideokamerak erabiltzea arautzen duena.
- 168/1998 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskal Herriko Poliziak leku publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen eta haien erabileraren erregimena arautzen duena.

### 2.3. Segurtasun-indar eta -kidegoak: EAEko polizia.

<u>Poliziaren antolamendua:</u>

- 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzekoa.
- 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa.
- 382/1994 Dekretua, urriaren 4koa, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen toki-mailako koordinaketa-batzordeak arautzen dituena.

Estatutu-erregimena:

Ertzaintzak eta udaltzaingoek eratutako EAEko Poliziako funtzionarioen estatutu-erregimenaren erregulazioa Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean eta lege hori garatzen duten arauetan dago jasota, besteak beste, Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia (315/1994 Dekretua,uztailaren 19koa, eta hura aldatu dutenak); Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioen lanpostu hornidurari buruzko araudia (388/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, eta ondoren hura aldatu dutenak); Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplinazko Araudia (170/1994 Dekretua, maiatzaren 3koa); eta abar.

Udaltzainak koordinatzea

- 203/2012 Dekretua, 2012ko urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoen Erregistroa eta Udaltzaingoko kideen akreditazio profesionalerako sistemak arautzeko dena. (217/2012 zenbakiko EHAA).
- 2012ko azaroaren 13ko Agindua, EAEko udaltzaingoetako kideen akreditazioei buruzkoa. (230/2012 zenbakiko EHAA).
- 2012ko irailaren 24ko Agindua, EAEko udaltzainen uniformeei eta kanpoko ikur bereizgarriei buruzkoa. (193/2012 zenbakiko EHAA).
- 27/2010 Dekretua, urtarrilaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen kidegoei aplika dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzkoa (22/2010 EHAA)
- 2012ko irailaren 20ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoei aplika dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzkoa. (189/2012 EHAA).

## 2.4. Segurtasun Pribatua

- Segurtasun pribatuari buruzko 5/2014 Legea, apirilaren 4koa.
- 2364/1994 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, segurtasun pribatuko araudia onartzen duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoak segurtasun pribatuaren arloan dituen eskumenak arautzen dituen abenduaren 24ko 309/1996 Dekretua.
- 382/2013 Dekretua, uztailaren 9koa, Euskadiko Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde Mistoarena.

## 2.5. Babes zibila eta larrialdien kudeaketa

- 2/1985 Legea, urtarrilaren 21ekoa, Babes Zibilari buruzkoa.
- 1/1996 Legea, apirilaren 3koa, larrialdiak kudeatzekoa.
- 34/1983 Dekretua, martxoaren 8koa, ekintzak koordinatzeko zentroak sortu dituena.
- 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, larrialdiei aurregiteko bidea (LABI) Euskadiko babes zibilaren plana onartzen duena eta larrialdiei aurregiteko euskal sisteman sartzeko mekanismoak arautzen dituena.
- 24/1998 Dekretua, otsailaren 17koa, Herri Babeseko Euskadiko Batzordearen osaera, eginkizunak eta antolamendua aldatzeko dena.
- 24/2010 Dekretua, urtarrilaren 19koa, herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte hartzea arautzen duena.

- 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen dituena.
- Agindua, 2012ko urriaren 8koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuarena, larrialdiei aurregiteko euskal sistemaren taktika operatiboak onartzeko eta larrialdietan koordinatuta esku hartzeko zerbitzua sortzeko Agindua bigarren aldiz aldatzeko dena.

## 2.6 Azpiegitura kritikoak

- 8/2001 Legea, apirilaren 28koa, azpiegitura kritikoak babesteko neurriak ezartzen dituena.
- Azpiegitura kritikoak babesteko Europako Programa.
- 2008/114/EE Zuzentaraua, abenduaren 8koa, Europako Kontseiluarena, Europako azpiegitura kritikoak identifikatu eta izendatzeari eta haien babesa hobetzeko premia ebaluatzeari buruzkoa.
- 704/2011 Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, azpiegitura kritikoak babesteko erregelamendua onartzen duena.

Nabarmentzekoa da araudi hori aplikatuko dela honako hauei utzi gabe:

a) CNIren misioa eta eginkizunak, haren araudi espezifikoan ezarri direnak.
b) Energia nuklearrari dagokionez 25/1964 eta 15/1980 (33/2007 Legeak aldatu zuen) legeetan jasota dauden irizpide eta xedapenak.
c) Abiazio Zibilaren Segurtasun Programa Nazionalean ezarritakoa (21/2003 Legea eta araudi osagarria).

Defentsa Ministerioaren eta Segurtasun Indar eta Kidegoen azpiegiturak ere ez daude lege horien mendean, araudi eta prozedura propioak dituztelako.

## 2.7. Trafikoa eta bide-segurtasuna.

- 18/1989 Legea, uztailaren 25ekoa, trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren gaineko oinarriei buruzkoa (178. BOE; hutsen zuzenketa: 75. BOE, martxoaren 28koa) eta ondoren lege hori aldatu dutenak.
- 6/2014 Legea, apirilaren 7koa, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Lege Dekretuaren bitartez onartua, aldatzen duena.
- 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, zirkulazio-araudi orokorra onartzen duena martxoaren 2ko 339/1990 Errege Lege Dekretua (306. BOE, abenduaren 23koa) aplikatu eta garatzeko, hori baita trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua onartzen duena.
- 818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, gidarien erregelamendu orokorra onartzen duena (138. BOE, ekainaren 8koa).
- 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena (22. zenbakiko BOE, 1999ko urtarrilaren 26koa).

- 320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko zehapen-prozeduraren erregelamendua onartzen duena (95. zenbakiko BOE, 1994ko apirilaren 21ekoa).
- 87/2001 DEKRETUA, maiatzaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hiri arteko trafikoa kudeatzeko sistema arautzen duena eta Euskadiko trafikoa kudeatzeko zentroa sortzen duena, eta dekretu hori aldatu duten ondorengoak.
- 35/2014 DEKRETUA, martxoaren 11koa, Euskadiko Bide Segurtasun Batzordearen antolamendua eta jarduteko modua arautzen dituena. (51. EHAA, martxoaren 14koa).

## 2.8. Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak

Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak oro har

- 4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzekoa. (230. EHAA, abenduaren 1ekoa). Apirilaren 23ko 7/2012 Legeak aldatu du, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko zenbait lege aldatzeko denak. (84. EHAA, apirilaren 30ekoa).
- 2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, ikuskizun publiko eta jolas-jardueretako Poliziaren Erregelamendu Nagusia onartzen duena (azaroaren 6ko BOE, 267. zk.).
- 389/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituena (1999ko urtarrilaren 21eko EHAA, 14. zk.).
- 296/1997 Dekretua, abenduaren 16koa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak ezartzen dituena (243. EHAA, abenduaren 19koa), uztailaren 28ko 210/1998 Dekretuak (145.EHAA, abuztuaren 3koa) eta martxoaren 13ko 36/2012 Dekretuak (58. EHAA, martxoaren 21ekoa) aldatu dituena.
- Agindua, 2012ko ekainaren 25ekoa, Herrizaingoko sailburuarena, ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunen lokalen ordutegien publizitateari eta identifikatzeko bereizgarriei buruzkoa (136. EHAA, uztailaren 12koa). Hutsen zuzenketa, agindu honena: Agindua, 2012ko ekainaren 25ekoa, Herrizaingoko sailburuarena, ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunen lokalen ordutegien publizitateari eta identifikatzeko bereizgarriei buruzkoa (urriaren 11ko EHAA, 199. zk.). 2013ko maiatzaren 15eko Aginduak aldatua (109. EHAA; ekainaren 7koa).

Zezen-ikuskizunak

- 183/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, zezen-ikuskizunei buruzko araudia onesten duena (abenduaren 19ko EHAA, 243. zk.). Apirilaren 27ko 124/2010 Dekretuak aldatu zuen (84. EHAA, maiatzaren 7koa).
- 181/1989 Dekretua, uztailaren 27koa, zezenketa-abereen ustiakuntzen eta ikuskizunen erregistroa eta zezenketa-abereen jaiotzen erregistroa arautzen duena (abuztuaren 30eko EHAA, 160. zk.).
- Agindua, 1999ko ekainaren 23koa, Herrizaingo sailburuarena, zezen-ikuskizun orokorretan laginak hartzeko prozedura eta lagin horiek analizatuko dituzten

laborategiak homologatzeko prozedura araupetzen dituena (uztailaren 20ko EHAA, 137. zk.).

Kirol-ikuskizunetan indarkeriari aurrea hartzea

- 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa (166. BOE, uztailaren 12koa).
- 203/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko erregelamendua onartzen duena (59. BOE, martxoaren 9koa).

Artifizio piroteknikoak dituzten ikuskizunak

- 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunei buruzkoa (2013ko abuztuaren 2ko EHAA, 147. zk.).
- 563/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 7koa, gailu piroteknikoen eta kartutxoen araudia onartzen duena (maiatzaren 8ko BOE, 113. zk.).

## 2.9. Jokoa

- 4/1991 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzen duena. (237. EHAA, azaroaren 25ekoa). Apirilaren 23ko 7/2012 Legeak aldatu du, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko zenbait lege aldatzeko denak. (84. EHAA, apirilaren 30ekoa).
- 277/1996 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko jokoen katalogoa onartzen duena (245. EHAA, abenduaren 20koa), Euskal Autonomia Erkidegoko jokoen katalogoa onartzen duen Dekretuaren hutsak zuzentzeko den martxoaren 25eko 69/1997 Dekretuak zuzendua (70. EHAA, apirilaren 15ekoa), eta uztailaren 6ko 181/2010 Dekretuak aldatua (70. EHAA, apirilaren 15ekoa).

Joko-makinak eta joko-sistemak

- 600/2009 Dekretua, azaroaren 17koa, joko-makina eta -sistemen erregelamendua onartzen duena. (243. EHAA, abenduaren 18koa), otsailaren 8ko 25/2012 Dekretuak aldatua.

Bingoak

- 31/2004 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudia onartzen duena (36. EHAA, otsailaren 23koa), otsailaren 22ko 32/2005 Dekretuak, apirilaren 1eko 55/2008 Dekretuak, abenduaren 15eko 620/2009 Dekretuak eta otsailaren 8ko 25/2012 Dekretuak aldatu dutena.

Joko-aretoak

- 380/1994 Dekretua, urriaren 4koa, joko-aretoen eta jolas-aretoen araudia onartzen duena (urriaren 20ko EHAA, 200. zk.). Abenduaren 26ko 277/2000 Dekretuak eta otsailaren 8ko 25/2012 Dekretuak aldatu zuten.

Kasinoak

- 39/2012 Dekretua, martxoaren 20koa, joko-kasinoen Erregelamendua onartzen duena (maiatzaren 9ko BOE, 90. zk.)

Boletoak.

- 314/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, boletoen bidezko jokoa arautzen duena. (151. EHAA, abuztuaren 10ekoa).

Zozketa, tonbola eta konbinazio aleatorioak

- Agindua, 1991ko irailaren 2koa, Herrizaingo sailburuarena, konbinazio aleatorioak izenaz ezagutzen den joko modalitatea arautzeari buruzkoa (irailaren 13ko EHAA, 185. zk.).

Apustu orokorrak

- 95/2005 Dekretua, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko apustuen araudia onartzen duena. (maiatzaren 17ko EHAA, 91. zk.)

Zaldi-lasterketetako apustuak

- 68/2005 Dekretua, apirilaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko zaldi-lasterketetako apustuei buruzkoa. (apirilaren 15eko EHAA, 71. zk.)
- Agindua, 2008ko uztailaren 21ekoa, Herrizaingo sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko zaldi-lasterketetako apustuei buruzko apirilaren 5eko 68/2005 Dekretuaren eranskinaren zati bat aldatzen duena (abenduaren 14ko EHAA, 154. zk.).

## 2.10. Abian jarritako arau-proiektuak

Lege-garapenari dagokionez, honako lege-proiektu hauek onartu dira edo onartzeko prozesuan daude, une honetan indarrean dagoen legeria osatzeko:

- Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen legea bosgarren aldiz aldatzeko lege-proiektua (izapidetua; 2014ko lehen seihilekoa)
- Larrialdiak kudeatzeko legea aldatzeko lege-proiektua (izapidetzen; 2014ko lehen seihilekoa)
- Ikuskizun publikoei eta jolas-jarduerei buruzko lege-proiektua (izapidetzen; 2014ko 1. seihilekoa)
- Suak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuen lege-proiektua (izapidetzen; 2014ko 2. seihilekoa)
- EAEko poliziaren lege-proiektua (2015eko 1.seihilekorako aurreikusia)

## 3. Arrisku eta mehatxuak Euskadin

Hondamendi-kasuetarako sorospenak koordinatzeko Nazio Batuen Agentziaren (UNDRO) sailkapenaren arabera, honako hiru arrisku mota hauek bereiz daitezke, jatorriaren arabera (aipatzekoa da sailkapen hori LABI Euskadiko Babes Zibilaren Planaren arriskuen azterketarako aintzat hartu dela):

a) Naturalak: geologia- edo klima-faktoreak dira arrisku edo mehatxuen eragile zuzenak, eta ez giza presentzia edo giza jarduerak.

b) Antropikoak: giza jarduera edo ekintzen ondorio direnak.

c) Teknologikoak: arrisku antropikoak dira, garapen teknologikoaren eta teknologien aplikazio eta erabilera esanguratsuaren ondorioak.

LABI Euskadiko Babes Zibilaren Planean, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei gehien eragiten dieten arriskuak sailkatu dira, eta plan honek indarreko sailkapen eta ebaluazio hori hartzen du aintzat. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da sailkapen horretan bildutako arrisku edo mehatxu gehienak ez direla beti nahita eguneratzen, eta beraz, nahita egindako egintzen ondorio diren mehatxuak gaineratu behar zaizkiola, delitu-jardueren ondorio direnak adibidez, pertsonen nahitako edo zabarkeriazko ekintza edo ez-egitea eskatzen dutenak, eta, beraz, arrisku antropikotzat —edota teknologikotzat, delitu informatikoen kasuan— jo daitezkeenak.

LABI Euskadiko Babes Zibilaren Planean bildutako arriskuen azterketaren arabera eta gure Euskal Autonomia Erkidegoko delinkuentziaren azterketaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasunean gehien eragiten duten arrisku eta mehatxuek kontrol, arreta eta prebentzioa handiagoa eskatzen dute botere publikoen eskutik, mehatxu edo arrisku horiek gertatzeko aukera edo haien ondorioen larritasuna ahal den neurrian saihesteko. Azterketa horren arabera, Euskadin arrisku nagusiak honako hauek dira:

- **Arrisku naturalak:**
  - Uholdeak
  - Elurra eta izotza
- **Arrisku teknologikoak:**
  - Arrisku kimikoa
  - Salgai arriskutsuen garraioa
- **Arrisku antropikoak:**
  - Delitu informatikoak
  - Delinkuentzia.
  - Trafiko-istripuak
  - Aglomerazio handiak
- **Baso-suteak** urteko sasoi jakin batzuetan
- **Azpiegitura kritikoen berezko arriskuak.**

## 3.1. Arrisku naturalak

Euskal Autonomia Erkidegoak hainbat arrisku natural jasan ditzake, eta meteorologia-jatorriko arriskuak dira gertatzeko aukera gehien dauzkatenak, urtero-urtero galera ekonomiko handiak izaten direlarik arazo horren ondorioz. Nolanahi ere, zorionez, eta informazioan eta prebentzioan ahalegin handia egiten denez, giza galerak oso urriak dira, eta betiere jarduten dugu heriotza kopurua "zero" izatea gogoan.

Hona hemen kalte gehien eragiten dituzten lau fenomenoak:

- Itsasoko eta kostaldeko ekaitzak
- Haizeak
- Uholdeak
- Elurra eta izotza

Horietatik guztietatik azken bietan zentratuko gara, hau da, uholdeetan eta elur eta izotzean, plangintzari dagokionez ahalegin handiena eskatzen dutelako.

### *Uholdeak*

Prezipitazio handiak eta ondoriozko uholdeak Euskal Autonomia Erkidegoari eragiten dioten arrisku eta mehatxu natural nagusietakoak dira, pertsona, ondasun eta zerbitzuetan kalte-galera handiak eragiten dituztelako. Eremu askotan uholde-arrisku hori nabarmen areagotu da, bereziki lurraldea gero eta gehiago erabili delako, eta gizarteak uholdeen eraginpean egon daitezkeen zenbait eremutan jendearen egonlekuak kokatzea erabaki duelako.

Ildo horretan, Administrazio Publikoek aurre egin behar izan diete uholdeen eta lotutako geologia-fenomenoen arriskuei, metodo zuzenak (eusteko eta zuzentzeko obrak) zein zeharkakoak (prebentzio- eta plangintza-azterlanak) erabiliz.

1999ko ekainean, Euskal Autonomia Erkidegoko uholdeen arriskuari aurre egiteko larrialdi-plan berezia onartu zen, uholdeengatiko larrialdi-kasuetarako EAEren baliabide eta zerbitzuen jardun-prozedurak eta antolamendua ezartzeko helburuarekin, haien arteko beharrezko operazio-koherentzia bermatuz, egoera disfuntzionalak gertatzeko aukera saihesteko.

Jatorriaren arabera, Euskadiko uholdeen arrazoi nagusiak honako multzo hauetan sailka daitezke:

1. In situ prezipitazioak
2. Ur-goraldiak
3. Ekaitz ziklonikoak
4. Itsas ekintzak
5. Bideetako buxadurak
6. Drainatze eskasa
7. Presa eta urtegien efektuak

Arrazoi horiek ez dira elkarren baztertzaile, eta, sarritan, arrazoi baten baino gehiagoren ondorioz gertatzen da uholdea, fenomeno naturalak (1.-5. arrazoiak) gizakiok eragindako fenomenoengatik (5.-7. arrazoiak) areagotzeko aukera izanik.

Presen haustura izan ezik, egoera horiek guztiak noizbait gertatu dira Euskadiko arroetan, baina gehienetan ur-goraldiak izan dira arrazoi nagusia, ekaitz ziklonikoen (frontalak eta tanta hotza) eta orografikoen ondorio direnak. Jarraian, zubi-haustura eta -buxadurak, itsas ekintzak, eta hirietako euri-drainatze eskasa eta bide-buxadurak. Zentzu horretan, isurialde atlantikoko ibaiek eragiten dituzte uholde gehien, beren arroen morfologiarengatik, eta elkarren artean oso antzekoak diren ekaitzen ondorioz. Aldiz, EAEko isurialde mediterraneoko ibaietan uholdeak izateko arriskua txikiagoa da, isurialde horretan plubiometria eta intentsitatea txikiagoak direlako, arroetako malda samurragoa delako eta bertan urtegi handiak daudelako, baina azpimarratzekoa da uholdeek nekazaritza-eremu jakin batean eragiten dutela, ur-goraldien eta urtegiak hustearen (prebentiboa, askotan) ondorioz.

Uraren Euskal Agentziarekin elkarlanean Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak egindako azken arrisku-azterketan lurraldea eremutan banatu da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan uholdeak izateko arrisku handiena izateko eremuak zein diren zehaztu da.

**1. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoan uholdeak izateko arriskua duten eremuak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

### *Elurra eta izotza*

Negu-garaian nabarmendu ohi diren meteorologia-fenomenoetatik, Euskal Autonomia Erkidegoan elurrak eta izotzak eskatzen dute arreta handiena.

Gaur egungo gizartearen mugikortasun handia dela-eta, elurrak oztopo ugari eta galera ekonomiko handiak eragiten ditu, errepideei eragiten dienean. Gainera, termometroak balio

negatiboak ematen dituenean, izozteek edo muturreko tenperatura baxuek arazo ugari sortzen dituzte gure autonomia-erkidegoan, trafiko-istripuak batik bat.

**2. grafikoa: Elurte eta izozteengatiko istripu kaltegarrien kopurua**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. Estatistika-azterketen arloa

Ertzaintzak erregistratutako datuen arabera 2013an guztira 30 istripu izan ziren elurte eta izozteen ondorioz; kopuruak gora egin du, 2011n 7 erregistratu baitziren. Aldi horretan, urtean metatutako hazkundearen arabera, meteorologia-fenomeno horien ondorioz gertatutako istripu kopurua hirukoiztu egin da. Aztertutako urte bakoitzean, istripuen % 70 gutxi gorabehera izozteen ondorioz gertatu dira, eta gainerako % 30a elurteen ondorioz, hurrenez hurren.

Mendate eta sare tarte jakin batzuetan arrisku handiagoa izaten da, prezipitazio-mailarengatik, urteko itxialdi kopuruarengatik eta kate edo neguko pneumatikoak erabiltzeko premiarengatik. Honako hauek dira:

### 3. grafikoa: EAEn neguan arazo gehien dauzkaten mendate eta tarteak

| | RED | |
|---|---|---|
| TERRITORIO HISTÓRICO | PRIMARIA | SECUNDARIA |
| Bizkaia | • Barazar | • Urkiola<br>• Areitio<br>• Dima<br>• Kanpazar<br>• Sollube |
| Gipuzkoa | • Etxegarate | • Arantzazu<br>• Elosua<br>• Elgeta<br>• Eizaga |
| Araba | • Altube<br>• Aiurdin | • Herrera<br>• Opakua<br>• Orduña<br>• Azazeta<br>• Barrerilla<br>• Bernedo<br>• Kurtzeta<br>• Puerto de Vitoria<br>• Salinas<br>• Zaldiaran |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. Trafiko-arloa

Grafiko honen bitartez zehatz-mehatz azaltzen dira neguaren berezko arrazoiak direla medio azken bost urteetan 2009-2013 aldian alegia, EAEko errepideetan izandako 10.109 gorabeherak.

### 4. grafikoa: Gorabehera kopurua, errepideen izenaren eta egoeraren arabera. 2009-2013 urteak



*Por estado de carretera*




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

Gorabeheren % 58 autonomia-erkidegoko hamaika errepidetan gertatu ziren, eta A-2128 izan zen problematikoena, azken bost urteetan guztira bost kasu erregistratu baitziren. Jarraian, N-622 (825 kasu) eta A-2124 (760 kasu). Gehienetan errepideak irekita egon dira kontuz ibiltzeko alertarekin (8.352 kasu), eta ohikoa izan da, halaber, kateak nahitaez erabili behar izatea (1.099), elurragatiko eta/edo izotzagatiko alerta (343 kasu) eta errepideak ixtea (235 kasu). Neurri txikiagoan, ibilgailu astunegatik edo istripuengatik itxitako errepideak.

Arazo horri aurre egiteko eta murrizteko, Eusko Jaurlaritzak Neguko Bidezaintza Plana jarri du abian, EAEko errepide-sarerako aurreikusitako jardun-neurriak biltzen dituena, negu-garaiaren berezko aurkako meteorologia-egoeretan esku hartzeko honako arrisku-egoera hauen aurrean:

- Izotz-/txingor-plakak agertzea
- Errepideetan elurra metatzea
- Tonaje handiko ibilgailuek istripua izatea eta zirkulazioa etetea
- Ibilgailu arinek istripua izatea eta zirkulazioa etetea

## 3.2. Teknologia-arriskuak

Teknologia-arriskuen barruan honako hauek nabarmenduko ditugu, garrantzi eta afektazio berezia dutelako:

- Arrisku kimikoa (SEVESO enpresak)
- Salgai arriskutsuen garraioa

### *Arrisku kimikoa (SEVESO enpresak)*

Euskal Autonomia Erkidegoko arrisku-instalazioen % 23k kimikaren eta/edo lehergaien sektoreko enpresekin du zerikusia. Gai kimikoak sortu, erabili, lekualdatu eta biltegiratzen dituzten industrialdean bizitzeak arriskua dakar, hau da, industriaren kanpoaldean ondorioak izango dituen istripua gertatzeko aukera dago. Istripu horiek suteak, leherketak eta ihes toxikoak izan daitezke.

**5. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko arrisku-instalazioen kopurua, motaren arabera**

| Tipo Instalación | Número |
|---|---|
| Química/Explosivos | 30 |
| Centros Comerciales | 25 |
| Transporte | 23 |
| Centro Cultural | 18 |
| Hospitales | 17 |
| Aguas | 16 |
| Telefonía | 1 |
| Otros | 2 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

Larrialdi bat gertatzean ahalik eta erantzunik efikazena emateko helburuarekin, 1994. urtean, 96/82/EE – Seveso II Europako Zuzentarauarekin bat etorriz (1254/99 Errege Dekretuaren bidez ekarri da Espainiako legeriara), kanpoko lehen larrialdi-planak onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

Enpresa bakoitzeko Kanpoko Larrialdi Plana (KLP) da esparru organiko eta funtzionala, eta enpresetan gerta daitezkeen istripu kimiko larriei aurrea hartzeko, eta, istripurik bada, ondorioak gutxitzeko sortu da. Bertan ezartzen dira agintarien eta esku-hartze zerbitzuen eginkizunak eta koordinazio-eskema, baita plana aplikatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak eta babesteko neurri egokiak ere.

Eusko Jaurlaritzak eta eraginpean hartutako udalerri eta industria-establezimenduek elkarlanean jardun behar dute ongi koordinatuta, plana lantzeko eta ezartzeko lanetan. Araudi horren arabera, hainbat gai bildu, prozesatu edo ekoizten dituzten establezimenduek izan behar dute Kanpoko Larrialdi Plana, baldin eta, gaien ezaugarri fisiko-kimikoengatik, establezimenduetan istripu larria gertatzeko arrisku handia badago.

Ordutik (1994) hona, berritzeko prozesua eta planak eguneratzeko prozesua etengabeak izan dira, Europan eta Estatuan araudiak etengabe aldatu direlako.

Beheko mapan, Euskal Autonomia Erkidegoan arrisku kimikoaren eraginpean dauden eremuak azaltzen dira.

**6. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoan arrisku kimikoaren eraginpean dauden eremuak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

### *Salgai arriskutsuen garraioak*

Salgai arriskutsu ugari garraiatzen direnez, eta garraio modu horri murrizketak ezartzen bazaizkio ere, ia-ia saihestezina da gorabeherak gertatzea. Euskal Autonomia Erkidegoa ez da salgai horien jatorri edo helmuga bakarra, eta, gure kokapen geografikoa dela medio, bertako errepide eta trenbideak igarobideak dira Iberiar Penintsulan jatorria edo helmuga duten hainbat salgai arriskutsurentzat.

**7. grafikoa: Salgai arriskutsuen garraioan izandako istripuen kopurua. 2010.-2013. urteak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. LAEMZ

EAEn 2013- urtean 227 istripu erregistratu ziren guztira, eta urteko jaitsiera metagarria % 19 izan da 2010. urteko datuaren aldean. Azken lau urteei dagokienez, 2010. urtean erregistratu ziren istripu gehien, zehazki 280. Nabarmentzekoa da azken lau urteetan, salgai arriskutsuen garraioari dagokionez, istripuen % 90 errepideetan gertatu dela, eta gainerakoak, berriz, trenbideetan.

2011ko uztailean, Euskal Autonomia Erkidegoan salgai arriskutsuak errepidez eta trenbidez garraiatzean istripu-arriskuari aurre egiteko larrialdi-plan berezia onartu zen, istripuaren larritasuna dela-eta ohiko larrialdi-zerbitzuak gainezkatzen direnean erantzuna egokitzeko, zuzentze- eta koordinazio-eginkizunak administrazio-egituran aginte gorena duten arduradunen esku utzita.

Kargak Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetan nola banatzen diren aztertzean, salgai arriskutsuak garraiatzeko bereziki honako errepide hauek erabiltzen direla ikusten dugu:

• AP-8, AP-68 eta AP-1 autobideak igarotzeko funtsezko ardatzak dira, nola barneko edo kanpoko trafikorako hala igarotzako trafikorako.

• Lehentasunezko Sareko beste bide nagusi batzuetan ere, hala nola N-I errepidean (Arabako tartean Gipuzkoakoan baino karga handiagoa nabari da), edota A8, GI-20, N-637 eta N-622 errepideetako ibilbide osoan, salgai arriskutsuen karga handia nabari da.

• Neurri txikiagoan, honako hauek aipatu behar dira:

– BI-637; bereziki erabiltzen da A8tik Errontegi zubian barrena Nerbioi-Ibaizabalen erriberan kokatutako enpresetan salgaiak banatzeko, Erandio eta Barakaldoko udalerrietan.

– BI-636 errepideak karga handi bati eutsi behar dio Bilbotik Sodupera arteko tartean, Alonsotegiko herrian enpresa kimiko garrantzitsu bat dagoelako.

– N-240 errepidean salgai arriskutsuen trafiko handia dago, bai Arratiako bailaratik bai Arabako lautadatik, Goiain industrialdeko sarreretan eta A-627 errepidean.

Salgai arriskutsuen trenbide-garraioari dagokionez, gehienak RENFE bidez garraiatzen dira, eta, neurri txikiagoan, FEVE bidez.

EAEko lurreko komunikazio-bideetan barrena, urtean 180.000 ibilgailutik gora ibiltzen dira salgai arriskutsuak eramaten. Ibilgailu kopurua oso handia bada ere, istripu-indizea nabarmen txikiagoa da gure komunikazio-sarean barrena ibiltzen diren beste ibilgailu mota batzuetan erregistratutakoa baino.

## 3.3. Arrisku antropikoak

Arrisku "antropikoen" atalean askotariko arriskuak sartzen dira, eta guk honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Delitu informatikoak
- Delinkuentzia.
- Zirkulazio-istripuak
- Aglomerazio handiak

### *Delitu informatikoak*

Ziberespazioaren eremua gero eta zabalagoa da, eta informazio- eta komunikazio-teknologien erabilera zabaldu ahala, delitu informatikoak gero eta sarriago gertatzen dira. Ertzaintzako Ikerketa Kriminaleko eta Polizia Judizialeko Unitate Nagusiaren barruan dagoen Informazio Teknologietako Delituen Arlo Nagusia (ITDAN) arduratzen da ikerketak egiteaz eta «ziberdelituen» kontrako borrokaz, 1998az geroztik.

Ertzaintzak 2011. urteko erdialdetik erregistratutako estatistika-datuen arabera, Euskadin internet bidez egindako arau-hauste penalen kopurua nabarmen igo da.

**8. grafikoa: Biktima kopurua internet bidez egindako delitu moten arabera. 2011[3] - 2013 urteak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. Estatistika-azterketen arloa

[3] 2011ko erdialdetik bakarrik daukagu internet bidez egindako delituei buruzko estatistika-informazioa

2013, internet bidez egindako delitu gehienak ondarearen aurkako delituak eta delitu sozioekonomikoak izan dira, guztira egindako delituen % 78 izanik. Kategoria horren (ondarearen aurkako delituak eta delitu sozietarioak) barruan, ebasketak, gauza bortxaz lapurtzea, ibilgailuak ostea, maula, bidegabeko jabetzea, kalteak eta beste batzuk hartzen dira, eta maula da ohikoena (1.140 kasu). Zehazki, maula gehienak partikularren banku-kontuetan dirua zorduntzearekin lotuta daude. Bigarren delitu ohikoena faltsutzea da, 115 delitu erregistratu direnez.

### 9. grafikoa: Biktima kopurua internet bidez egindako delitu moten arabera. 2011[4] - 2013 urteak




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. Estatistika-azterketen arloa

Internet bidezko falten biktimei dagokienez, 2013an, ondarearen aurkako 1.222 falta eta pertsonen aurkako 131 falta salatu ziren. Lehenak, ebasketako, maulako, bidegabeko jabetzako eta kalteetako faltei dagozkie, eta bigarrenak, aldiz, besteak beste, lesio-, iseka-, mehatxu-, hertsapen- eta irain-faltei.

Oro har, internet bidez egindako arau-hausteak % 50 igo dira 2013an, aurreko urteko datuen aldean. Delitu kopurua 987tik 1.480ra igo da, eta 1.353 falta erregistratu dira guztira, 2012an 902 erregistratu zirelarik. Horrek esan nahi du prebentzio-neurriak abiarazten jarraitu behar dutela, eremu horretan segurtasuna indartzeko.

[4] 2011ko erdialdetik bakarrik daukagu internet bidez egindako delituei buruzko estatistika-informazioa

### *Delinkuentzia*

Ertzaintzak guztira 88.818 delitu eta falta erregistratu zituen iaz, 2013an, Euskal Autonomia Erkidegoan. Zifra hori positibotzat har daiteke aurreko urteetako delitu-intzidentzia orokorraren datuarekin alderatuta.

**10. grafikoa: Delitu kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan[5,6]. 2009.-2013. urteak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. Estatistika-azterketen arloa

**11. grafikoa: Falta kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan[7,8]. 2009.-2013. urteak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. Estatistika-azterketen arloa

---

[5] Beste delitu batzukatalak honako hauek biltzen ditu: Abortua, Fetuari eragindako lesioak, Manipulazio genetikoa, Askatasunaren aurka, Gizakien salerosketa, Sorospen-eginbeharra ez betetzea, Intimitatearen aurka, Irudi propiorako eskubidea, eta abar, Familia-harremanen aurka, Faltsutzeak, Administrazio Publikoaren aurka, Ustelkeria nazioarteko merkataritza-transakzioetan, Justizia Administrazioaren aurka, Ohorearen aurka, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurka, Langileen eskubideen aurka, Langile atzerritarren eskubideen aurka, Lurraldearen antolamendua eta hirigintzakoa, Konstituzioaren auka, Traiziokoa, Bakearen aurka, eta abar, Nazioarteko komunitatearen aurka eta beste Zigor Lege batzuk.

[6] Genero-indarkeriako egintzak eta ziberdelituak egitatearen izaeraren eta ondorioen arabera bilduta daude grafikoaren kategorietan

[7] Beste falta batzukatalak honako hauek biltzen ditu: Falta interes orokorren aurka eta faltak ordena publikoren aurka.

[8] Genero-indarkeriako egintzak eta ziberdelituak egitateen izaeraren eta ondorioen arabera bilduta daude grafikoaren kategorietan

Ertzaintzak 2009an erregistratutako 49.342 delitu-egitateetatik 2013an 45.780 erregistratzera igaro gara, hau da, urteko % 1,9ko murrizketa metagarria delituak egiteari dagokionez. Jaitsiera hori arau-hauste mota ia guzti guztietan gertatzen da.

Horri gehitu behar zaio aldi berean urteko % 0,3ko jaitsiera metagarria izan dutela Euskadin egindako falta penalek, pertsonen aurkako faltak zein ondarearen aurkako faltak kontuan izanda.

2013. urtean aldaketa handiena izan duten delitu moten azterketa zehatzagoa eginda, honako atal hauek nabarmendu behar dira:

- **Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituak** —delitu horien artean ebasketak, lapurretak, kalteak eta zigor-arloko gainerakoak, non eta kaltea izandako ondasuna ondare pribatu edo publikoa den, daudela— historikoki delitu-jardueraren % 70 inguru dira.

  Arau-hauste mota horren jaitsiera nabarmena ikus daiteke, eta oso esanguratsua da indarkeriaz edo larderiaz egindako lapurretan jaitsiera 2013an 2012arekin alderatuta, % 29ko gutxikuntza, eta joera hori etorkizunean atxikiko dela uste dugu, nahiz eta arau-hauste penalen artean alde esanguratsuak dauden, etxeko lapurretak garrantzi handiagoa ari baitira hartzen.

  Atal horretan, gehitzekoa da indarkeriaz egindako lapurreta eta enpresetan egindako lapurretetan erruztatutakoen kopurua nabarmen hazi dela 2012. urtearekin alderatuta.

- **Segurtasun kolektiboaren aurkako delituetan ere**, osasun publikoaren aurka zein edari alkoholdunen, substantzia estupefazienteen eta abarren eraginpean gidatzearekin lotutakoetan, jaitsiera nabarmena ikus daiteke, eta 2011. urtean ikusten hasi zen joera berresten du horrek.

- Esan dezakegu, halaber, alarma sozial eta polizia-kezka handia eragiten duten **beste delitu batzuk**, hala nola mota guztietako homizidioek edo sexu-askatasunaren aurkako delituek, fluktuazio handia dutela eta ez dela joera argirik ikusten. Dena den, nabarmentzekoa da homizidioetan erruztatutakoen ehunekoak gorakada handia izan duela 2012. urtearekin alderatuta.

Bestalde, aipatu behar da, gazte banda latinoen fenomenoa bere lehenengo faseetan agertu dela, eta hiri handietan —hala nola Madrilen edo Bartzelonan— duen garrantzirik ez badu ere, fenomenoaren jarraipena egitea komeni da, hiri horietan duen garapenera iritsi ez dadin.

Komeni da, halaber, adi egotea batez ere Ekialdeko Europatik datorren delinkuentzia antolatuaren internazionalizazioarekin, baita "Erradikalismo islamiarra" deitutako fenomenoarekin, biztanleria islamiarraren artean igoera nabarmena ikusten baita, eta pentsatzekoa da joera hori etorkizunean ere atxikiko dela, eta, horrenbestez, talde erradikalek Euskal Autonomia Erkidegoaren kontura gizentzeko izango duten interesa ere bai.

Dena den, orokorrean zein partikularrean, ondoriozta daiteke delituen eraginak jaitsiera kuantitatiboki esanguratsua izan duela, eta horrek eragina izango zuen, halaber, segurtasun publikoari buruzko pertzepzio sozialean. Esparru horretan egindako lan jarraituaren ondorioz, Euskadik kriminalitate-tasa onenak lortu ditu 2013. urtean, Espainian eta EB-15en izandako batezbestekoekin alderatuta. Dena den, lanean jarraitu beharra dago, gure erkidegoen delitu-egintzak gehiago murrizteko.

**12. grafikoa: Kriminalitate-tasak. 2013. urtea**[9]




Iturria: Barne Ministerioaren 2013ko balantzea. Eusko Jaurlaritzaren estatistika-azterketen arloa

Aipamen berezia egin behar zaio genero-indarkeriako eta kale-indarkeriako kasuek izan duten bilakaerari. 11. eta 12. grafikoetako kategorietan bilduta ageri badira ere, beren naturaren eta egitate-ondorioen arabera, interesgarria da kasu horiek bereiz aztertzea, haien inpaktu soziala dela-eta.

[9] EB-15en batez besteko tasa 2009. eta 2010. urteei dagozkien Europako herrialdeen datuetan oinarritutako

*Indarkeria sexista*

**13. grafikoa: Indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeen kopurua 2009.-2013. urteak (milakoetan)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. Estatistika-azterketen arloa

Ertzaintzak erregistratutako datuen arabera, urtean % 1,7 metagarria gehitu da indarkeria sexista azken bost urteetan. 2013an indarkeria sexistako gertaldiren bat jasan duten biktimak diren emakumeen guztizkoa oso egonkor atxikitzen da aurreko urtearekin alderatuta, % 0,1eko hazkundearekin, 4.977 kasutik 4.983 kasura igarota. Moten arabera, azken bi urtean kontuan izanda, bikoteak/bikote ohiak egikaritutako genero-indarkeriako seriea nabarmentzen da, kasuen % 76arekin batezbesteko gisa, atzetik familia barruko genero indarkeria (kasuen % 19 2012an eta % 20 2013an eta sexu-askatasunaren aurkako egintzak (kasuen % 4 2012an eta % 5 2013an).

Segurtasun-neurriak zabaldu izanaren ondorioz, "bortxa" telefonoa eskaintzen zaie biktimak diren emakume guztiei 2011ko abuztuaz geroztik, bakoitzarentzat zehazten den arrisku-maila edozein izanda ere. "Bortxa" telefonorako larrialdi-deia oso erraz identifika daitekeen tekla bat sakatuta eragiten da, ilunpean ere erraz egiteko moduan. Eskaera hasi dela eta ezarritako polizia-operazioa aktibatu dela adierazten dion baieztapen isila jasotzen du biktimak. Haren kokapenaren posizio geografikoa ere igorriko du terminalak, txertatuta duen GPS hargailuaren bidez.

**14. grafikoa: Gorabeheren kopurua eskumuturreko elektronikoen alarmen hasierarekin (gailu elektronikoa). 2013. urtea**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila.

2014ko martxoaren 17ra arte, 26 eskumutur elektroniko instalatu dira. Gailu horiek 2.046 gorabehera eragin dituzte.

### *Kale-indarkeria eta terrorismoarekin lotutako beste indarkeria batzuk*

**15. grafikoa: Kale-indarkeriako jardueren eta EAEko indarreko legeriaren arabera terrorismoarekin lotutako beste jarduera batzuen kopurua. 2009.-2013. urteak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila. Estatistika-azterketen arloa

Legez terrorismoarekin lotutako indarkeriazko egintzak, ordena publikoaren aurka egindako delituen artean bildutakoak, 2009. urtearen amaiera-aldetik ikusitako beheranzko joera atxikitzen dute, baita sakondu ere, orduan izandako debatearen ondorioz indarkeriaren egoeraren inguruen berrikuntza estrategikoa izan baitzen, bake-prozesuaren jokaleku berriaren bidean. 2009. urtean 687 kasu izan ziren, eta 2013. urtean, aldiz, 76 izan dira. Egintza horiek, terrorismoaren eragin-esparru barrukoak indarreko legeriaren arabera, ez dute hildakorik eragin. Tipologiaren arabera, azken urtean 16 egintza zenbatu dira ondasun materialen aurka, pertsonen aurkako kale-indarkeriako kasu bat eta beste mota bateko 59 kasu. Azpimarratzekoa da ez dela hildakorik izan, eta egintzak ez direla uztartzen ekintza

terroristekin, baizik eta eragin terroristaren esparruaren barruko indarkeriazko jardunekin, indarreko legeriaren arabera.

### *Trafiko-istripuak*

Bide Segurtasuneko europar helburua, 2010etik 2020ra, EBn trafiko-istripuek eragindako hildakoak % 50 murriztea da. Helburu horren ildotik, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila lanean ari da prebentzioan eta kontzientziazioan bidearen erabiltzaileekin, adingabeen hezkuntzarekin eta sektore kalteberenentzako bide-segurtasuneko neurrien sustapenean.

Emaitza gisa eta Ertzaintza erregistratutako datuen arabera, istripu kopuruari buruzko adierazle guztiak nabarmen jaitsi dira, 2009. urtea hartuta oinarri-urte gisa.

**16. grafikoa: Euskadiko istripu kopuruaren balantzea. 2009.-2013. urteak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila.

Errepideko trafiko-istripuetako zauritu larrien seriea % 28 jaitsi da 2009. urtean izandako kopuruarekin alderatuta, atzetik biktimak izan dituzten istripuen eta hildakoen kopuruaren gutxitzea dituela (% 15 bi kasuetarako ere).

Jaitsiera jarraitua izan da azken urteetan, eta Bide Segurtasuneko ondoz ondoko Plan Estrategikoek proposatu duen istripu kopurua gutxitzearen anbizio handiko helburuak gainditu ere egin ditu. Urtero zailagoa da zifrak hobetzea, eta, dena dela, Segurtasun Sailaren helburua da kontzientziazioarekin jarraitzea, ezbeharrak murrizteko.

### *Aglomerazio handiak*

Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren eta ikuskizunen arloan istripu eta katastrofeak gertatzeko arriskua dago ikuskizun publikoak, jolas-jarduerak, ausazko jokoak eta lotutako beste edozein ekitaldi egiten diren bitartean.

Indarreko araudiaren arabera, ikuskizun horiek eta haiek egiteko lokalen segurtasun-neurriak zaindu, kontrolatu eta ikuskatzen dira. Era berean, entseguak eta egiaztapenak egiten dira jokoaren esparruan eta legea betetzen ez bada, administrazio arau-hausteen batzordeak zehazpen-espedienteak izapidetuko ditu

Ondorengo taulan banantzen dira espedienteak, egitateen izaera kontuan izanda, ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloari dagokionez.

**17. grafikoa: Arau-haustea dakarten egitateengatiko espedienteen kopurua. Ikuskizun publiko eta jolas-jardueren arloa 2012. eta 2013. urteak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila.

2013. urtean, alor honetan izapidetutako espedienteen kopurua nabarmen gehitu da, kirolean indarkeriagatik hasitako espedienteen gehikuntza handia dela-eta. Izan ere, horrelako arau-hausteak, kirol-eskakizunen ondoriozko aglomerazio handiak direla-eta egindakoak, indarkeriazko portaerak erakusten dituztenak, normalean horrelako ekitaldietara bertaratzen diren ikusleek protagonista dituztenak, dira gehiengoa Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak izapidetutakoen artean.

Arau-hauste horiekin batera, Ikuskizun eta Jolas Jardueren Legearen aurkako arau-hausteak ere jasota daude, hainbat arrazoirengatik, eta arau-hauste horien artean ohikoena da lokalen edota ikuskizunen segurtasun-neurriak ez betetzea. Zorionez, dena den, Euskal Autonomia Erkidegoan ez da katastrofe bakar bat ere gertatu horrelako ez-betetzeek eraginda.

## 3.4. Baso-suteak

Euskal Autonomia Erkidegoan izaten diren suteen % 70-80 nahitakoak dira edo zabarkerien ondorio. Lehenengoen artean sastraka eta basobera erretzea eta basoberritzeak daude. Zabarkerien artean nekazaritzako eta baso-lanetako hondarren erretzeak eragindakoak nabarmentzen dira. Arrazoi naturalak, EAEn berez ezohikoak direnak, kasu bakar bat izaten dira hainbat urtetan behin, nolabaiteko garrantzia duten suteetan, eta tximisten erorikoa izaten da ia arrazoi bakarra.

1998ko martxoan onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Suteetarako Larrialdi Plana EAEren barruan baso-suteek eragindako larrialdiei aurre egiteko erantzunaren eta jardun prozeduren antolamendu orokorra ezartzeko.

Planak baso-suteen hiru arrisku-denboraldi hartzen ditu kontuan, eta honela sailkatzen dira, oro har:

- **Arrisku handiko denboraldia.** Aldaketa txikiekin, irailean hasten da denboraldi hau, klimatologiaren baitan faktore erabakigarri gisa landarediaren egoeran, eta apirilaren hasiera-aldera arte luzatzen da, orduan hazten baitira lehenengo garo-kimuak. Denboraldi honetan, arrisku-egunak hego-haizea agertzearekin uztartzen dira, Kantauri Itsasoaren ertzeko haize ezaugarria baita, Azoreetako antizikloiaren ondorio.
- **Arrisku ertaineko denboraldia.** Udako hilabeteekin uztartzen da denboraldi hau, arrisku handiko denboraldiaren hilabete batzuk lehenago eta ondoren; sua hasten bada, mantso hedatuko da ihartu gabeko landaredia dagoelako eta oro har hego-ukituko haizerik ez dagoelako.
- **Arrisku txikiko denboraldia.** Urteko zikloko landaredia ezarrita dagoenean hasten da ziklo hau, nahikoa ernaberritua edota hezetasun-ehuneko hain handiarekin ezen saihestu eta gelditu egiten duen sua agertzea edo hedatzea.

Baso-suteen eremuak zehazten dira ondoren:

**I. eremua-** Kostaldeko lerrotik iparretik isurialdeen banalerroraino, Arabako Lautadaren iparreko mugaraino, gutxi gorabehera.

**II. eremua-** Arabako Lautada.

**III. eremua.-** Arabako Errioxa, iparrean Kantabriako mendilerroarekin muga eginez eta hegoaldean Ebro ibaiaren ibarrarekin, autonomia-erkidegoaren lurralde-mugetaraino.

**18. grafikoa: Baso-suteen eremuen mapa**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila.

Honela geratuko dira arrisku-denboraldiak autonomia-erkidegorako ezarritako lurralde-zonifikazioaren arabera:

**19. grafikoa: Arrisku-denboraldia eremuaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoan.**

| | ÉPOCAS DE PELIGRO | | |
|---|---|---|---|
| ZONA | ALTO | MEDIO | BAJO |
| Zona I | 1-10 al 31-3 | 1-8 al 30-9 y 1-4 al 15-5 | 16-5 al 30-7 |
| Zona II | | 1-7 al 31-10 | 1-11 al 30-6 |
| Zona III | 1-9 al 31-12 | 1-5 al 31-8 | 1-1 al 30-4 |

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko baso-suteen kontrako Larrialdi Plana

## 3.5. Azpiegitura kritikoak

Balizko gorabehera berrien kopuru handia kontua izanda azpiegitura kritiko eta estrategikoen esparruan barruan, baliabide berri eta handiak behar dira azpiegitura horiek babesteko, betiere segurtasun-neurri bereziak behar izan badituzte ere.

Azpiegitura kritiko eta estrategikoen konplexutasun eta mendetasun handiagoa kontuan izanda, baita azpiegitura horien informazio- eta kontrol-sistemen aurkako zibererasoen gehikuntza handia ere, ezin da soluziobide independenterik hartu, eta segurtasun integralaren ikuspegi holistikoko babes-estrategiak gehitu behar dira (prebentzioa + babesa) ziklo osoan mehatxuen, berezko arriskuen eta kalteberetasunen kudeaketa egokia (fisikoak, logikoak eta humanoak) bilduta, prebentzioarekin hasi eta soluziobidearekin eta haren jarraitutasunarekin buka.

Horrela, azpiegitura kritikoen babesa arautzen duen araudia betiere kontuan izanda, uste dugu letra larriz idatzitako Segurtasun bakarraren erantzukizuna eta hari eman beharreko erantzuna, integrala eta integratua, publikoa eta pribatua, guztiz beharrezkoa eta ezinbestekoa dela.

Eraginpeko sektoreak adierazten dira ondoren, baita edozein motatako arriskuetatik babestu beharreko lekuak:

- Energia. Produkzio-zentralak eta energia banatzeko sareak
- Energia nuklearra Produkzio-zentralak eta hondakinak biltegiratzea
- Informazioaren Teknologiak IKT. Informaziorako eta komunikazioetarako teknologiak eta bitartekoak
- Garraioaren azpiegiturak. Aireportuak, portuak, instalazio intermodalak, trenak eta garraio publikoko sareak, trafikoa kontrolatzeko sistemak eta abar.
- Ur-hornidura Urtegiak, biltegiratzea, tratamendua eta banaketa-sareak
- Osasuna. Osasun-zentroak, ospitaleak, laborategiak, eta abar
- Finantza- eta zerga-sistema. Azpiegitura finantzarioa eta ekonomikoa
- Industria kimikoa. Salgai arriskutsuen produkzioa, biltegiratzea eta garraioa (material kimikoak, biologikoak, erradiologikoak eta nuklearrak)
- Gunea. Zirkulazioko, aisiako, kulturako eta abarreko arlo publikoak
- Elikadura. Produkzioa, garraioa, biltegiratzea eta banaketa
- Administrazioa. Oinarrizko zerbitzu publikoak, instalazioak, informazio-sareak, aktiboak, eta leku nagusiak eta monumentu nazionalak eta ondarea

# 4. Segurtasunaren egoera Euskadin

Euskadiko segurtasunaren egoeraren laburpen bat erakusten dugu, herrialdearen segurtasun publikoan inplikatutako agenteen arriskuaren kudeaketaren jardun, estrategia eta alderdi nagusiak deskribatuta. Segurtasuneko Plan Orokorraren ildo estrategikoak eta jardunak egin aurreko egoera-diagnostikoa izango da azterketa hau, EAEko segurtasun publikoaren ahalmen nagusiak eta balizko hobekuntza-ildoak identifikatuta.

## 4.1. Euskal polizia

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzen duen 15/2012 Legeak defendatzen duen polizia-ereduak aurreko erregulazioaren oinarrizko ildoei jarraitzen die: polizia-kidego autonomiko bat, Ertzaintza, Eusko Jaurlaritzaren mendekoa, ereduaren ardatz dena polizia orokor eta integral gisa, osagarri gisa udalerrien mendeko udaltzaingoak dituelarik. Bi kidegoek osatzen dute Euskadiko Polizia, biak ere estatutu-araubide erkide eta homogeneo baten mendeko, zenbait berezitasun izan ezik.

Euskadik 11.191 polizia-agente zituen guztira 2014ko urtarrilean autonomia-erkidegoan bizi diren bi milioi pasa herritarren segurtasuna zaintzeko. Bestela esanda, 1.000 biztanleko 5,1 agente ditu Euskadik. Delitu eta falten tasari dagokionez, EAE osoari dagokiona 1.000 biztanleko 40,53 izatera iritsi zen 2013an. Eremu geografikoen arabera, Bilboko eta Sestaoko Ertzaintzaren ertzain-etxeek okupatutako eremuek delitu-tasa handiagoak dituzten Euskadin (50etik gorakoak 1.000 biztanleko), eta polizia-presentzia handiena Guardian eta Basaurin gertatzen da, 7,3 eta 5,3 agenteekin 1.000 biztanleko. Dena den, nabarmentzekoa da mugape batzuetan, delitua jasan dezaketen herritarrek eremu geografikoko biztanleak gainditzen dituztela, mugape edo interesgune jakin batzuk eragiten duten erakarpen ekonomiko eta sozio-kulturalaren ondoriozko zirkulazioa dela-eta. Ondoren ageri diren grafikoek EAEKo delituen banaketaren eta polizia-presentziaren xehetasuna erakusten dute.

**20. grafikoa: Euskal poliziaren presentziaren (Ertzaintza + Udaltzaingoa) eta delitu eta falten banaketa geografikoa EAEn. 2013. urtea**




Iturria: Ertzaintza, EIN, Estatistika Azterketen Arloa - Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza

Euskal herritarrak poliziaren zerbitzura jartzeari begira, Eusko Jaurlaritzak helburutzat finkatu du polizia-zerbitzuen kalitatea hobetzeko laguntzea eta erabiltzaileei beren interesak babesteko tresna bat ematea.

### *Udaltzaingoa*

EAEko udaltzainen guztiko kopurua 3.280 zen 2014ko urtarrilean. 3 hiriburuetako bakoitzak 300 udaltzain baino gehiago ditu, eta elkarrekin hartuta udaltzain guztien % 47 biltzen dute. Beste 8 udalerrik dituzte 50 kide baino gehiago, eta herrialde osoko agenteen guztizkoaren % 22 bilduz. Gainerako 70 polizia-kidegoek EAEko agenteen guztizkoaren % 31 biltzen dute.

**21. grafikoa: EAEko udaltzainen banaketa polizia-kidegoaren tipologiaren arabera. 2013. urtea**

| Tipología | Nº de Agentes | Nº de Cuerpos Policiales | Nº Total de Agentes |
|---|---|---|---|
| CAPITALES | > 300 | (3) Bilbao, Donostia, Gasteiz | 1.531 |
| GRANDES | 101 - 150 | (3) Barakaldo, Getxo, Irún | 381 |
| | 51 - 100 | (5) Basauri, Errenteria, Portugalete, Santurtzi, Sestao | 349 |
| MEDIANOS | 21 - 50 | (18) Amorebieta-Etxano, Andoain, Arrasate, Bermeo, Durango, Eibar, Erandio, Galdakao, Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Leioa, Llodio, Mungia, Pasaia, Tolosa, Sopelana, Zarautz | 549 |
| | 11 - 20 | (18) Abanto Zierbena, Amurrio, Arrigorriaga, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Elgoibar, Ermua, Etxebarri, Gernika-Lumo, Oiartzun, Ondarroa, Oñati, Ordizia, Trapagarán, Zumaia, Zumarraga | 274 |
| PEQUEÑOS | 6 – 10 | (19) Abadiño, Astigarraga, Balmaseda, Derio, Elorrio, Gorliz, Güeñes, Legazpi, Lekeitio, Lezo, Muskiz, Orio, Ortuella, Ugao-Miraballes, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zalla | 144 |
| | < 6 | (15) Aretxabaleta, Aulesti, Bakio, Berango, Carranza, Deba, Eskoriatza, Iurreta, Laguardia, Lazkao, Markina-Xemein, Mutriku, Plentzia, Soraluze-Placencia de las Armas, Zestoa | 52 |




Iturria: Estatistika Azterketen Arloa - Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak zenbait ekimen planifikatzen ditu, udaltzaingoen arteko koordinazio-maila handiagoa lortzera bideratutakoak. Ondoren laburbiltzen dira Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusiak udaltzaingoari dagokionez:

- Euskal Poliziaren zerbitzuen lankidetza- eta koordinazio-mekanismoak ezartzea eta bultzatzea (Ertzaintza eta Udaltzaingoa).
- Udaltzaingoen Erregistroa antolatzea eta kudeatzea.
- Udaltzaingo guztiak lotzen dituen komunikazio-sarea mantentzea, eta haiek Ertzaintzarekin lotuta egotea ahalbidetzea.
- Udaltzaingoak Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroan integratzea.
- Euskal administrazioetako segurtasun publikoaren zerbitzu guztiek jarraitu beharreko estandarrak ezartzea; datuak igortzeko eta gertakariak eta baliabideak kudeatzeko eta tratatzeko aukera eman behar dute, zenbait baliabideren denbora errealeko koordinazioa eraginkor egiteko.
- Udaltzaingoekiko harremanak ezartzea, trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudia betetzen den zaintzeko eta hura interpretatzeko lanean.
- Elkartze-eskaerak izapidetzea polizia-jarduerak emateko, udalerri bateko agenteek beste udalerri batean eman ditzaten, edo kidego berriak sortzeko.

Bere helburuak lortzeko, koordinazioko eta lankidetzako zenbait tresna sortu dira euskal udaltzaingoekin.

- Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea.
  Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legeak Euskadiko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea eratzen du kontsulta-organo gisa udaltzaingoaren koordinazio-arloan, segurtasun publikoan eskuduna den sailari atxikita.
- Toki Koordinazioko Batzordea Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean.
  Ertzaintzaren eta udaltzaingoen polizia-zerbitzuen koordinazioa eta lankidetza du helburu, bi kidego horiek esleituta dituzten eginkizunen egikaritzapenean, kidego bakoitzaren berezko eskumenak errespetatuta. Honako hauek dira Batzordearen eginkizunak:
  - Segurtasun publikoaren egoera aztertzea dagokion lurralde esparruan.
  - Informazioa, estatistika-datuak eta polizia- eta delitu-jardueraren hileko laburpenak trukatzeko prozedura eta edukiak ezartzea, dagokion udalerrian segurtasunerako garrantzitsutzat jotzen diren alderdien xehetasunarekin.
  - Jarduteko irizpide berdinak sortzea denentzat eta prebentzioko segurtasunaren arloko erantzukizun operatiboak banatzea, eta lankidetzarako arau eta prozedurak finkatzea.
  - Protokoloak eta jardun-planak egitea delitu-egitateak prebenitzeko, segurtasun publikoaren plangintzatik eratorritako irizpideak eta norabideak kontuan izanda.
  - Legez aurreikusitako kasuetan Ertzaintzak toki-erakundeei laguntzeko jasotako eskaerak zein diren jakitea, haiei buruz informatzea eta haiek bideratzea.
  - Polizia-zerbitzuen arteko elkarrekiko sistemen aplikazioan eta datu-koordinazioan sor daitezkeen auziak ebaztea.
  - Batzordearen esparruan jarduten duten Euskadiko polizia-kidegoen arteko gorabeherak aztertzea.
- Euskadiko Udaltzaingoen Erregistroa.
  EAEko Udaltzaingoen Erregistroaren helburua da errolda bat izatea, EAEko Udaltzaingoetako kideen daturik garrantzitsuenak eta kidego horiei buruzko datu orokorrak jasoko dituena. Errolda horrek ahalbidetuko du Eusko Jaurlaritzak Udaltzaingoen koordinazioaren arloan dituen eskumenak baliatzea, eta, bereziki, erraztu egingo du akreditazio profesionalaren agiria ematea eta erabilera komuneko sare eta sistema informatikoetara sartzea. Erregistroan sartzen dira, batetik, polizia kidegoetako langileak eta euskal udaletako langileak, hain zuzen ere, zaindari, jagole, aguazil edo antzeko izen batekin Euskadiko polizia-eginkizunak betetzen dituztenak (uztailaren 17ko 4/1992 Legea), eta, bestetik, kasuan kasuan eta indarrean dagoen legeriaren arabera, hiriko trafikoa agindu, seinaleztatu eta zuzentzeko sor daitezkeen funtzionarioen kidegoak. Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen sailak ezarriko ditu EAEko Udaltzaingoen Erregistroaren funtzionamendurako irizpide teknikoak eta prozedura: udalen eta erregistroaren ardura duen unitatearen arteko harremanetarako izapidetze telematikoa, datuen konfidentzialtasuna, segurtasuna eta

osotasuna bermatzeko beharrezkoak diren antolaketa- eta kudeaketa-neurriak, baita izaera pertsonaleko datuak babesteko legerian aitortutako berme, obligazio eta eskubideak betetzeko beharrezkoak direnak ere.

- Udaltzaingoen ataria.
  Udaltzaingoen ataria erreminta baliagarria da komunikazio-arazoak gainditu eta informazio-trukea errazteko Ertzaintzaren eta udaltzaingoen artean, eta, hori horrela, beharrezkoa ikusten du Eusko Jaurlaritzak udaltzaingoen kolektibo osoari sarbidea bermatzea.
- Lan-mahaiak.
  Badira barne-lantaldeak, esparru tematiko jakinetan esfortzuak koordinatzeko: Ekipamenduak, Informatika eta Telekomunikazioak, Jardun Prozedurak, Hautaketa eta Prestakuntza, Arau Markoa eta Funtzio Publikoa.

### *Ertzaintza*

Errenazimentutik aurrera, ordena publikoa eta segurtasuna Miñoiei, Mikeleteei eta Foruzainei esleitu zitzaien euskal Lurralde Historikoetan; XVIII. mendearen amaiera-aldera sortutako kidegoak ditugu, Euskal Poliziaren aurrekari gisa, eta polizia propioak izan ziren Araban, Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan.

Lehenengo "Ertzaña" (erri-zaña) lehenengo Eusko Jaurlaritzak sortu zuen 1936ko urrian eta 1.200 gizon inguru izan zituen, iraupen oso laburra izan bazuen ere (1937ko ekainera arte), Gerra Zibilaren gorabeherek baldintzatuta.

Egungo Ertzaintza, 1982. urtean berrezarria, EAEko polizia integral eta autonomoa da, oinarritzat mendeetako eta Espainiako Konstituzioaren eta Autonomia Estatuaren aurreko eskubide historiko bat daukana, eskubide hori Konstituzioak onartu eta Autonomia Estatutuak eguneratu egiten dutelarik. Hasieratik, kidegoa zabaltzen joan da promozioko 402 agente berriko batezbestekoarekin, eta, hori horrela, 23. promozioko 231 agenteak eta urtero izandako irteerak kontuan izanda, 7.910 kide izatera iritsi zen Ertzaintza 2013an.

**22. grafikoa: Ertzaintzara sartu diren kide berrien kopurua promozioen arabera. 1982.-2013. urteak**




Iturria: Ertzaintza

**23. grafikoa: Ertzaintzaren agenteen kopuruaren bilakaera. 1982.-2013. urteak (milakoetan)**




Iturria: Ertzaintza

2013an Ertzaintzak zituen 7.910 agenterekin osatutako plantilla 28 ertzain-etxetan banatuta zegoen, nagusiki 25etan, eta Herritarren Babesarekin eta Ikerketa Kriminalarekin lotutako polizia-lanetan espezializatuta dago, haiek baitira kidegoaren egituraren atal nagusiak. Ertzaintzako kideen banaketak erakusten du prebentzio-izaerako lanetan aritzeko polizia dela, eta garrantzi berezia hartzen dute jarduera operatibo zehatzetan espezializatutako unitateek, baita Ikerketa Kriminalaren ingurune guztiak ere. Barne-funtzionamenduaren gainbegiraketak eta laguntza-lanek osatzen dute polizia-egitura.

### 24. grafikoa: Ertzaintzako kideen banaketa egitekoaren arabera. 2013. urtea







**Total efectivos: 7.910**

Iturria: Ertzaintza

Ertzaintzan, agente-kategoria bakoitzak ikasketa- edo titulazio-maila jakin bat eskatzen du, eta kidegoaren barruan sailkapen edo eskala jakin bat dagokio, eta, horrenbestez, eginkizun jakin batzuk. Horrela, agenteek eta agente lehenek, ofizialondoko eta ofizialek, komisariondoko eta

komisarioek, eta intendente eta intendenteburuek ezarritako eta bereizitako eginkizun batzuk dituzte, ondorengo grafikoan erakusten denez:

### 25. grafikoa: Ertzaintzaren egitura profesionala eta agenteen eginkizunak eskalaren arabera

***Estructura Profesional***




***Escala y Funciones***

| ESCALA | GRUPO DE TITULACIÓN | FUNCIONES |
|---|---|---|
| BÁSICA | D | Tareas operativas que demanden las funciones policiales así como las de mando de uno o más funcionarios de la Escala en servicio operativo. |
| INSPECCIÓN | C | La responsabilidad de los sub-grupos dentro de las Unidades de Seguridad Ciudadana, inteligencia e Investigación. |
| EJECUTIVA | B | Coordinación y mando de centros o grupos operativos de policía bajo la dirección, en su caso, de la Escala Superior. |
| SUPERIOR | A | Dirección, orientación y coordinación de unidades operativas y otras específicas de seguridad pública |
| FACULTATIVOS Y TÉCNICOS | A, B, C, D | Realización, en apoyo a la función policial, de tareas propias de la profesión. |

Iturria: Ertzaintza

### 26. grafikoa: Ertzainen banaketa kategoria profesionalaren eta ikasketa-mailaren arabera. 2013. urtea




Iturria: Ertzaintza

Ertzaintzaren langileen % 92 inguru eskala profesionalaren oinarrizko mailan sartuta daude (agenteak eta agente lehenak), eta % 5 inguru ikuskapen-kategorietan (ofizialondoko eta ofizialak). Kideen % 2 inguruk eginkizun exekutiboak egiten dituzten (komisariondokoak eta komisarioak) eta goi-mailako kategorietan % 0,1 daude sartuta gehienez (intendenteak eta intendenteburuak) Ikasketa-mailari dagokionez, % 46k bigarren mailako ikasketak egin ditu

(LHII barne), % 32 inguruk lehen mailako ikasketak ditu eta kidegoaren % 17 inguruk unibertsitate-titulua du.

Emakumeak Ertzaintzaren % 11 dira, eta gizonek % 89a biltzen dute. Agenteen batez besteko adinari dagokionez, 44,2 urte da emakumeen artean eta 46,2, aldiz, gizonen artean.

**27. grafikoa: Ertzaintzako kideak jaiotza-urtearen arabera. 2013.-2013. urteak**




Iturria: Ertzaintza

2013an 11,5 falta eta delitu izan ziren ertzaineko EAEn. Bilboko eta Sestaoko ertzain-etxeek estaltzen dituzten eremu geografikoak delinkuentzia-tasa handienak dituzte ertzaineko, bi kasuetan ere 28 falta eta delitutik gora daudela, eta Guardiako, Azkoitiko, Zumarragako eta Ondarroako ertzain-etxeei dagozkien eremuak, aldiz, ertzaineko 10 delitutik behera dituzte.

**28. Grafikoa: Delitu eta falta banaketa geografikoa EAEn ertzaineko. 2013. urtea**




Iturria: Estatistika Azterketen Arloa - Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza

Ertzaintza osatzen duten atal eta unitate nagusien eginkizun eta erantzukizun nagusiak zehazten dira ondoren.

Herritarren Babeserako Atala

Herritarren Babeserako Atalaren barruan, lurralde-burutzen inguruko arduraz gain, nabarmentzekoa da Iurretako eta Berroziko polizia-zentroetan dauden unitateen kudeaketaren bat-egitea eta, ondorioz, bi burutza nagusi sortuko dira. Burutza horiek Ertzaintzaren beste zerbitzu eta unitate batzuentzat lagungarri eta osagarri gisa arituko diren zerbitzu espezializatuak izango dituzte. Era berean, azpimarratzekoa da Ekitaldi Handiak Koordinatzeko Burutza sortuko dela, kirol-ikuskizun eta garrantzi bereziko beste gertakari batzuetarako segurtasun-antolamenduak ebaluatu eta planifikatzeko. Beste alde batetik, trafikoko lurralde-unitateen bitartez trafikoaren kontrolari eta bide-segurtasunari buruzko politikak eta jarraibideak ezarri eta haien berri emateko, Trafikoko Burutza Nagusia sortzen da.

Atalaren eginkizun nagusia bakearen, bizikidetzaren eta segurtasun publikoaren aurkako arrisku eta mehatxuak prebenitzea izango da. Helburu hori kontuan hartuta, honako jarduera-ildo hauetara bideratuko ditu ahaleginak:

- Segurtasun publikoaren sentimena sustatzea, segurtasun-zerbitzu publikoa gertukoa eta agerikoa izatea bultzatzearen bitartez.
- Arriskuan dauden pertsonak babestea eta delituen eta istripuen biktimei laguntzea.
- Pertsonak eta ibilgailuak bideetan modu seguru, iraunkor eta orekatuan mugitzeko aukera erraztea.
- Bizia eta ondasunak mehatxatzen dituzten jokabideak prebenitzea, trafikoarekin eta errepideko garraioarekin lotura dutenak barne, baita herritarren eskubideak eragozten dituzten bestelako jokabideak ere, eskubide horien artean bizikidetza baketsua ere kontuan hartuta.

Horretarako, Herritarren Babeserako zerbitzuen jarraipena, gainbegiraketa, koordinazioa eta etengabeko hobekuntza egingo du, eta bere prozedura, agindu eta protokoloak landuko ditu.

Herritarren Babeserako atalaren helburu estrategikoak prebentzioa eta herritarrenganako hurbiltasuna eta lankidetza dira . Prebentzioa da gako-hitza datozen urteetarako bultzatzen ari den polizia-ereduan. Oinezko polizia-patruilen lana indartzen jarraitzea segurtasun pertzepzioa gehitzeko, eta giza baliabide, baliabide tekniko eta materialen premiei erantzuteko lan koordinatu eta jarraituan. Behar den lekuan eta behar denean egotea, poliziako kideak egunetik egunera berregokituz, lankidetza indartuta laguntza-, ikerketa- eta patruila-lanak koordinatuta, polizia-estrategiaren zati da, estrategia horrek polizia-lana berregokitu behar izan baitu egungo koiuntura sozial eta politikoa dela-eta.

Korrikak ezartzeko proiektuaren helburuen ildotik, 2013. urtean % 11,87 gehitu da oinezko patruilen denbora aurreko urtearekin alderatuta, eta horrek segurtasun-pertzepzioa gehitzea ere eragin du.

Era berean, agenteen kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko ertzain-etxeetan izan duen gehikuntza ere aipatu behar da. 2013. urteko datuen arabera, aurreko urteko datuekin alderatuta, Gipuzkoan izan da hazkunderik handiena (% 13,1), batez ere Hernaniko, Donostiako, Errenteriako eta Bergarako ertzain-etxeetan. Gehikuntza izan dute, halaber, Arabako eta Bizkaiko ertzain-etxeek, baina txikiagoa (% 5,1 eta % 2,7, hurrenez hurren)

Gehikuntza horiek Ertzaintzaren berregituraketa berriaren ondorioz gertatu dira, eta Gipuzkoaren kasua da nabarmentzekoa, plantillak eskasegi hornituta egon direlako 2013ko hasiera-aldera arte.

Herritarren Babeserako ataleko kideek prebentzio-jarduerei eskainitako denborari dagokionez, 2013. urtean % 5,7ko hazkundea izan da 2011. urteko datuarekin alderatuta, ondorengo grafikoa agertzen den bezala. Alde batetik nabarmentzekoa da, kale-indarkeriaren prebentzioari eskainitako denboraren murrizketa (697.613 ordutik 300.077 ordura), eta bestetik, askatasun-sexualaren aurkako ekintzen prebentzioari zuzendutako denboraren hazkundea, (3.507 ordutik 17.764 ordura), larderiaz egindako lapurretan (338.482 ordutik 456.634 ordura), etxeetan egindako lapurretak (330.351 ordutik 541.118 ordura) eta etxeko indarkeria (206.385 ordutik 390.457 ordura), besteak beste.

**29. grafikoa: Prebentzio orduen kopurua Herritarren Babeserako atalean 2011.-2013. urteak (milakoak orduak)**




Iturria: Ertzaintza

Ertzaintzaren lurralde-burutzak Herritarren Segurtasunerako Atalaren menpe egongo dira, baita zerbitzu edo unitate nagusi hauek ere:

- **Trafikoko Burutza Nagusia**, Trafiko Zuzendaritzak, Ertzaintzaren Zuzendaritzarekin koordinatuta, prestatutako politikak eta jarraibideak ezarri eta betearazteaz arduratuko da, batez ere trafikoko lurralde-unitateen bitartez, bere mendekotasun funtzionalaren pean jarduten baitute. Kudeaketa egiteko, zirkulazio-istripuen berritzeari loturik, Idazkaritza Nagusiaren eta Ikerketa Kriminalaren Atalaren laguntza izango du.

- **Ekitaldi Handiak Koordinatzeko Burutzak** arriskuak aztertu eta segurtasun-antolamenduak planifikatu, koordinatu eta gainbegiratuko ditu egingo diren kirol-ikuskizunei begira, baita hala behar duten bestelako ekitaldi edo gertakizun publiko jendetsuen kasuan ere.
- **Laguntza Taktikorako Burutza Nagusiaren** esku egongo da Iurretako (Bizkaia) polizia-zentroan dauden Brigada Mugikorraren Unitatearen, Zaintza eta Erreskate Unitatearen eta Lehergailuak Indargabetzeko Unitatearen jardueren gaineko agintea, baita jarduera horiek koordinatzea eta gainbegiratzea ere.
    - Brigada Mugikorraren Unitateari honako hau dagokio: arrisku larriko egoeretan ordena publikoa prebenitzea, mantentzea eta, hala egokituz gero, berrezartzea; baita istripu, katastrofe edo hondamendi publikoen ondorioz sortutako egoeretan esku-hartzea ere. Bestetik, etengabeko laguntza emango die Ertzaintzaren gainerako unitateei, batez ere jendetzak kontrolatzeko, atxilotuak zaindu eta lekualdatzeko eta planifikatutako segurtasun-antolamenduetan parte hartzeko. Horrez gain, beharren arabera, ataletako unitateei esleitutako eginkizunak eta zereginak osatzeko lanak beteko ditu.
    - Zaintza eta Erreskate Unitateari honako hau dagokio: istripu, katastrofe edo hondamendi publikoen ondorioz sortutako egoeretan esku-hartzea eta; horrez gain, Ertzaintzaren beste unitate eta zerbitzu batzuei prebenitu, ikertu eta esku hartzeko lanetan laguntzea, bereziki ingurumenarekin zerikusia duten arau-hauste penal edo administratiboetan Bestetik, larrialdiei aurre egiteko zerbitzuentzako laguntza-eginkizunak beteko ditu.
    - Lehergailuak Indargabetzeko Unitateak esku hartu behar du substantzia leherkorrak edo lehergailuak edo izaera nuklearra, erradiologikoa, bakteriologikoa edo kimikoa duten tresnak indargabetzeko egoera guztietan.

Gainera, Laguntza Taktikorako Burutza Nagusiak Idazkaritza Teknikoa izango du; hain zuzen, unitateen ohiko administrazio-kudeaketa, baliabideen plangintza eta etengabeko hobekuntza burutzeko.

- **Erakundeen Segurtasunerako Burutza Nagusiaren** esku egongo da Berroziko (Araba) polizia-zentroan dauden Babes eta Segurtasuneko Unitatearen, Esku-hartze Unitatearen, Txakur Unitatearen eta Eraikinen Segurtasunerako Unitatearen jardueren gaineko agintea, baita jarduera horiek koordinatzea eta gainbegiratzea ere.
    - Babes eta Segurtasuneko Unitateari dagokio agintari edo goi-kargudun diren edo izan diren pertsona jakin batzuei edo mehatxatutako pertsonei babes espezializatuko zerbitzuak ematea, baita enpresa pribatuek zerbitzu hori nola egiten duten kontrolatzea ere.
    - Esku-hartze Unitateari dagokio Ertzaintzaren beste unitate batzuei segurtasun handiko estaldura ematea.

- Txakur Unitateari dagokio Ertzaintzaren beste unitate batzuei txakurren bidezko laguntza ematea.
- Eraikinen Segurtasunerako Unitateari dagokio eraikinei eta instalazioei segurtasun-zerbitzuak ematea beren interes berezi edo arriskuagatik hala behar izanez gero, baita enpresa pribatuek zerbitzu hori nola egiten duten kontrolatzea ere.

Gainera, Erakundeen Segurtasunerako Burutza Nagusiak Idazkaritza Teknikoa izango du; hain zuzen, unitateen ohiko administrazio-kudeaketa, baliabideen plangintza eta etengabeko hobekuntza burutzeko..

<u>Inteligentzia Bulego Nagusia</u>

Inteligentzia Bulego Nagusiaren funtsezko eginkizuna da polizia-inteligentzia Ertzaintzaren xede orokorrean integratzea; hain zuzen, delituak prebenitu eta gutxiagotzeko erabaki estrategiko eta teknikoak hartzeko ardatz egituratzaile eta proaktiboa izan dadin, baita herritarrengan segurtasunari buruzko pertzepzioa alda lezaketen arriskuei loturik ere.

Krimenei eta gorabeherei buruzko informazioren bilketa, tratamendua, azterketa sistematikoa egiteaz arduratuko da, baita informazio hori garatzen laguntzen duten baldintzez ere eta; horretarako, dauden arriskuen aurrean inteligentzia-arloan erantzun taktikoak ematea ahalbidetzen duten produktuak eskainiko ditu. Halaber, bere ardura era izango da sortzeko bidean dauden eta aldakorrak diren mehatxuekin loturiko plangintza estrategikoa. Gainera, inteligentzia-bulegoen jarraipena egingo du, gainbegiratu eta koordinatuko ditu eta etengabeko hobekuntza landuko du eta; aldi berean, haien prozedurak, agindauk eta protokoloak prestatuko ditu. Aldi berean, Idazkaritza Nagusiaren laguntza izango du ohiko administrazio-kudeaketa egiteko.

Esleitu zaizkion eginkizunei erantzuna emate aldera, bere mendekotasun funtzionalaren pean lurralde- eta toki-bulegoak izango ditu.

<u>Ikerketa Kriminalerako Atala</u>

Bi burutza daude Ikerketa Kriminalerako Atalaren barruan: Ikerketa Kriminalerako eta Polizia Judizialeko Burutza eta Polizia Zientifikoaren Burutza. Lehenengoak honako zerbitzu hauek biltzen ditu: delituen forma konplexuen ikerketan espezializatutako zerbitzuak eta organo judizial eta fiskaltzei atxikitako polizia judizialaren berezko zerbitzuak, baita koordinazio operatibo eta teknikok beste zerbitzu zentral batzuk ere. Bigarrena kriminalistikako edo ikerketa teknikoko zerbitzuak emateaz arduratzen da. Gainera, Atal honi atxikita daude Joko eta Ikuskizun Unitatea eta Segurtasun Pribatuko Unitatea.

Atal horri dagozkio ikerketako eta delitu eta falten jazarpeneko eginkizunak. Ildo horretan, azken urteetan egindako lanen datu esanguratsuenak aipa daitezke.

**30. Grafikoa: Kriminalitate antolatuaren gaineko polizia-ekintzaren emaitza[10]. 2011 eta 2013. urteak**




Iturria: Ertzaintza

Krimen antolatuko 37 talde identifikatu ziren Euskadin 2013. urtean, 2011. urtean baino % 85 gehiago. Identifikatutako taldeen guztikotik, % 78 partzialki desegin ziren (2011. urtean baino 14 gehiago) eta gainerako % 22a erabat desegin ziren (2011. urtean bainoa % 3 gehiago).

**31. grafikoa: Giza hilketako delituen bilakaera. 2010 eta 2013. urteak**




Iturria: Ertzaintza

Giza hilketako delituen bilakaerari dagokionez, azken lau urteetan (2010-2013) argitutako giza hilketen ehunekoak kasu guztien % 91 gainditu du, argitu gabe geratu diren giza hilketen

[10] Desegite partzialtzat hartzen da gutxienez hiru kideren atxiloketa/inputazioa eta polizia-jarduerak taldearen ekintzen jarraipena saihestu ez izatea

ehunekoarekin alderatuta. Grafikoak erakusten duenez, argitu gabeko giza hilketako kasu bat izan da kontuan hartuko aldiaren urte bakoitzean.

**32. grafikoa: Droga-alorreko arau-hausteengatiko atxiloketen kopurua. 2011 eta 2013. urteak**




Iturria: Ertzaintza

Ertzaintzan erregistratutako datuen arabera, Ikerketa Kriminalerako Atalak 256 atxiloketa egin ditu 2013an droga-alorreko arau-hausteak direla-eta. Kopuru horrek % 20,42ko murrizketa izan du Euskal Autonomia Erkidegoan 2011n egindako atxiloketekin alderatuz gero.

Bereiz hartuta, aipatzekoak dira Interneteko delitu-jardueraren arrazoi posibleak, Ikerketa Kriminalerako Atalak deskribatutakoak:

- Interneterako konexioen gorakada, horrekin gehitu egiten baita ziberdelinkuenteen jomugen kopurua
- Banda zabaleko konexioak erabiltzea, horrek arriskua gehitzea eragiten baitu, birusengatiko infekzioak, eraso informatikoak eta beste delitu batzuk jasateko esposizio-denbora dela-eta
- Internetera konektatzen diren erabiltzaile berriek oinarrizko jakintzarik ez izatea, arriskurako esposizio handiagoa eragiten baitu horrek
- Biktimaren eta egilearen arteko harremanik eza, delituak egitea errazten baitu horrek
- Ikertutako delituak mugaz haraindikoak izatea, atzerapen handia eragiten baitu emaitza polizial eta judizialak lortzeko jarrera horiek desagerrarazte aldera
- Arlo polizial zein judizialeko lankidetza-mekanismo arinak ez izatea, horrek praktikan delitu asko eta asko zigorrik gabe geratzea eragiten baitu, delituen ustezko egileak gure mugetatik kanpo daudelako
- Delinkuenteek anonimatuan geratzeko duten erraztasuna, identitatea ezkutatzeari dagokionez permisiboak diren legeetan babestuta, edo zerbitzu jakin batzuk baliatzeko nahitaez identifikatu ez behar izatea

- Haririk gabeko sistemak ugaritu izana, beren identitatea ezkutuan gorde nahi duten delinkuenteei sartzeko beste puntu bat ematen baitiete sistema horiek
- Ziberkafetegi edo antzeko establezimenduak ugaritu izana, haietan ez baita identifikaziorik behar haien sistemak erabiltzeko eta, sarritan, delinkuenteek erabiltzen dituztelako beren nortasuna oso modu eraginkorren ezkutatzeko

Honako hauek dira Ikerketa Kriminalerako Atalaren mendeko diren burutza eta unitateak:

- **Ikerketa Kriminaleko eta Polizia Judizialeko Burutzaren** ardura da delitu larriak, krimen antolatuarekin zerikusia duten delituak eta, orokorrean, jazartzeko espezializazio handia behar duten delituak ikertzea. Horrez gain, Ertzaintzaren gainerako unitateei laguntza espezializatua emango die eta agintari judizialengandik eta fiskaltzatik datozen errekerimenduak bideratuko ditu. Polizia judizial gisa bere eginkizuna organo judizialen lurralde-hedapenera egokitu da eta haiei atxikita egongo dira kasu bakoitzean egoki diren taldeak edo giza baliabideak. Ikerketako eta Polizia Judizialeko Arlo Nagusia izango du, espezializazio handiko ikerketan eta polizia judizialari lotutako eginkizunetan arituko baita. Era berean, Ikerketarako Koordinazio Operatibo eta Teknikoko Arlo Nagusia du. Arlo horren ardura izango da ikerketa kriminal guztiak koordinatu eta gainbegiratzea eta, horretarako, prozedurak, aginduak eta protokoloak landuko ditu.
- **Polizia Zientifikoaren Burutzak** kriminalistikari, identifikaziori, analitikari eta ikerketa teknikoari loturiko zerbitzuak eman eta, horrez gain, organo judizialek eskatutako aditu- eta dokumentazio-txostenak prestatuko ditu. Bestetik, begi-ikuskapen guztiak koordinatu eta gainbegiratzeaz arduratuko da eta; horretarako, prozedurak, aginduak eta protokoloak landuko ditu.
- **Joko eta Ikuskizun Unitatearen** ardura da ausazko jokoak, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak kontrolatzea eta ikuskatzea eta, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren mendekotasun funtzionalaren pean, administrazio-poliziari loturiko eginkizunak beteko ditu.
- **Segurtasun Pribatuko Unitateak** segurtasun pribatuko enpresak, langileak, jarduera eta zerbitzuak gainbegiratu eta espedienteak ikuskatu, kontrolatu, erregistratu eta izapidetzeko eginkizunak beteko ditu. Bestetik, segurtasun-neurriak egiaztatuko ditu eta eraikinen segurtasunari buruz eskatzen zaizkion azterlanetan aholkularitza- eta laguntza-eginkizunak beteko ditu.

Atal honen barruan, **Ertzaintzaren ETEN zerbitzua** da aipatzekoa, euskal errepideetan delituei arrastoa jarraitzen espezializatutakoa. Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sare nagusia Europaren iparraldetik, estatutik bertatik eta Portugaletik datorren zirkulazioak baldintzatzen du.

Barne-mugak kendu ondoren, polizia-agintariei beharrezkoa iruditu zitzaien iragazkiak jartzea delinkuentziaren mugimenduak zailtzeko.

Horrela, errepideko delituen arloak N-1 eta AP-8 bide lasterretan egikaritzen ditu bere eginkizunak, pasabide estrategikoa baitira Europaren hegoalderako eta Afrikarako bidean. Bide

horiek nazioz gaindiko delinkuentziak erabiltzen ditu bere Ipar-Hego / Hego-Ipar bidaietan, eta lurraldeen arteko barne-bidaietarako ere erabiltzen ditu delinkuentzia orokorrak.

Datu gisa, arlo honek 1.320 ibilgailu ikuskatu zituen 2013an, aurreko urtean baino % 41,2 gehiago.

**33. grafikoa: Ikuskatutako ibilgailuen kopurua 2009 eta 2013. urteak**




Iturria: Ertzaintza

Arloaren eginkizun nagusiak zehaztuko ditugu ondoren:

- Bere patruila-eremuan izaten diren delitu-jarduera oro lokalizatzea eta neutralizatzea. Horretarako, esleitutako bideak miatzen dituzte ibilgailu susmagarrien bila
- Ertzain-etxeak, beren presentzia eska dezaketen egoeren aurrean
- Drogen, estupefazienteen eta antzekoen garraioa detektatzea eta neutralizatzea, baita lapurtutako ibilgailuen trafikoa, lapurtutako objektuen garraioa, arma eta lehergailuen garraioa eta legez kontrako pertsonen garraioa ere
- Dokumentuak faltsutze bidezko detekzioa

<u>Polizia Zientifikoaren Unitatea</u>

461 kasu argitu zituen Ertzaintzak 2013an, haiekin lotutako ebidentziak aztertu ondoren. Delitu moten arabera, argitutako kasuen % 70 jabetzaren aurkako delituak izan ziren, % 3,5 sexu-askatasunaren aurkako delituak, % 3 giza hilketak, % 0,015 lesio-delituak, % 0,01 terrorismo-delituak eta gainerako % 24,52a beste mota bateko delituak. Beste alde batetik, Polizia Zientifikoak beste polizia-kidego batzuen 5 kasu argitzeko laguntza eman du datuak trukatuta DNAko Datu Nazionalen Basearekin (CODIS) eta beste 12 kasu profil genetikoen datuak trukatuta Prümgo ituna sinatu duten herrialdeekin.

Polizia Zientifikoaren Unitateak 8 Arlo Operatibo ditu (Lofoskopia eta Begi Ikuskapena, Auzitegiko Genetika, Auzitegiko Antropologia, Kimika eta Lehergaiak, Pertsonen Identifikazioa,

Dokumentoskopia eta Grafistika; Teknologia Berriak, Balistika eta Aztarna Instrumentalak), Koordinazio Zientifikoko Arlo bat eta Etengabeko Hobekuntzako Arlo bat, kalitatearen kudeaketaren eta kanpo-harremanen arduraduna. Honako zerbitzu hauek nabarmentzen dira Polizia Zientifikoa ematen dituenen artean: begi-ikuskapenak, ebidentzien azterketa, suteen txostenak, ibilbideen txostenak, azterlan fisonomikoak, ileen azterlan morfologikoa, nekro-identifikazioa, erretratu robota, dokumentoskopia, moneta faltsutzea, grafologia, informatikako azterlan teknikoak, argazki- eta bideo-analisia, ahots-konparaketa, elektronikoa, irrati-azterlana/GSM, lehergailuak eta sukoiak, analisi kimikoak, zuntzak, itsasgarriak, pinturak, zintak, aztarna instrumentalak, matrikula-plaken benetakotasuna, oinetako eta pneumatikoen lorratzak, eta ezabatutako zenbakiak leheneratzea. Unitateak ISO 9001:2008 ziurtagiria du erreseina fisonomikoak tratatzeko prozesura (Pertsonak Identifikatzeko Arloa) eta ebidentziak kudeatzeko prozesurako, eta txosten partzial eta dokumentaziorako (Euskarri Teknikoko Arloaren Ebidentziak Hartzeko Zerbitzua).

Segurtasun Pribatuko Unitatea

Ertzaintzak Segurtasun Pribatuko Unitate bat dauka, eta unitate horrek EAEko segurtasun pribatuko enpresen jarduera kontrolatu, ikuskatu eta gainbegiratuko du, eta enpresen erregistroaz, langileen kontrolaz eta zerbitzuak emateko baldintzaz, zerbitzu armatuak baimentzeaz, alarma faltsuen kudeaketaz edo nahitaez segurtasun-neurriak izan behar dituzten establezimenduen baimenaz arduratuko da, bestez zenbait jardueren artean. Era berean, Segurtasun Pribatuko Unitateak aholkularitza-zerbitzuak ematen ditu segurtasun fisikoari buruzko azterketetan garrantzi bereziko eraikinetan (ertzain-etxeak, epaitegiak, enpresak, establezimendu publikoak), estatistika eta txostenak lantzen ditu, eta foro eta batzorde teknikoetan parte hartzen du (AENOR, CECA, SICUR, EFITEC, EHSBO, eta abar). Unitateren eginkizunen arteko beste bat Herritarren Babeserako jarduera esanguratsuen kontrola[11]: bidaiarien kontrola, ibilgailuen kontrola, ibilgailuak desegiteko lekuak, bitxi eta material preziatuen salerosketa, liburuen kontrola eta ustezko arau-hausteak izapidetzea. Unitate honen helburua da Ertzaintzak segurtasun publikoaren sektorearekin lankidetzan aritzeko duen interesa agerian jartzea eta lanak elkarrekin garatzeko aukera eskaintzea, unitatearen profesionalei bere jakintzak eta esperientzia ekartzea ahalbidetzeko moduan betiere.

EAEn, Segurtasun Publikoaren Unitateak kontrolatu beharreko establezimenduen kopurua 5.613 zen 2013an. Kreditu-erakundeen bulegoak eta ostatuak establezimenduen % 50 baino gehiago dira, farmazia-bulegoen eta bitxi-denden aurretik (% 14 eta % 13, hurrenez hurren). Gainerako % 20a beste establezimendu batzuei dagokie, hala nola kutxazain automatikoak, gasolina-zerbitzuguneak edo loteria-bulegoak dira.

[11] Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko 1/1992 Lege Organikoaren 12. artikulua.

**34. grafikoa: SPUk EAEn kontrolatzen dituen establezimenduen kopurua. 2013. urtea**




Iturria: Ertzaintza – Segurtasun Pribatuko Unitatea (SPU)

2013. urtean, Unitateak 1.674 ikuskapen egin zituen guztira hainbat establezimendu motatan, eta 220 arau-hauste izapidetu zituen, 183 segurtasun pribatuari dagozkionak eta 37 Herritarren Segurtasuneko jarduera esanguratsuekin lotutakoak.

**35. grafikoa: Ertzaintzaren SPUk izapidetutako ikuskapen eta arau-hausteak. 2013. urtea**




Iturria: Ertzaintza – Segurtasun Pribatuko Unitatea (SPU)

Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea

Lehergailuak Indargabetzeko Unitateak (LIU) hainbat zerbitzu ematen ditu, hala nola substantziak edo gailuak indargabetu, inertizatu eta neutralizatzea, Ertzaintzaren identifikazio eta ikerketa tekniko propioa lehergaien alorrean, eta parte hartzen duen gorabehera guztien txosten teknikoak ere lantzen ditu, organo judizialek edo Ertzaintzaren unitateek eskatutako adituen txosten eta dokumentu-txostenak landuta. Era berean, bilaketa prebentiboko lanak

ere egiten ditu LIUk lehergailuren bat dagoen edo ez egiaztatzeko garrantzi handiko edo jende ugari biltzea erakartzen duten ekitaldiak egiten direnean.

Horretarako, 52 agenteko plantilla du LIUk, eta 5 egoitza operatibo: Iurreta (egoitza nagusia), Erandio (Bizkaiko egoitza), Arkaute (Arabako egoitza), Oiartzun (Gipuzkoako egoitza) eta Berrozi (kontrol-jarduerarako egoitza). Indargabetze-jarduera burutzeko bitarteko edo tresnei dagokienez, LIUk honako ekipamendu hauek dauzka: NBQ indargabetzeko furgoia, Defender 200 indargabetze-robota, Inspector - XR200 eta Control – CSN X-izpien ekipamenduak, EOD-9 indargabetze-jantzia eta Txakur Unitatearen laguntza.

Etorkizunean unitateak izan ditzakeen helburu nagusiak honako hauek dira: erantzun-denbora hobeak lortzea (gorabeheretan, txosten teknikoen igorpenean, gailu militarren suntsipenean, eta abar), jardunak egokiak direla ziurtatzea, jardun-prozedurak sistematizatu eta estandarizatzea, etengabeko hobekuntzako mekanismoak gaineratzea eta LIUren profesionaltasun- eta modernotasun-irudia garatzea. 2013an, LIUk ikastaroak amaitu zituen eta beharrezko materiala eskuratu zuen NRBQ gorabeheretan jarduteko.

Zaintza eta Erreskate Unitatea

Zaintza eta Erreskate Unitateak eginkizun bikoitza, hau da, istripuetan, katastrofeetan edo hondamen publikoko egoeretan parte hartzea, eta laguntza ematea atal guztietako gainerako unitate eta zerbitzuei prebentzio-zeregin, ikerketa-zeregin edo esku-hartze zereginetan. Unitateak laguntza eskaintzen die larrialdiei erantzuteko zerbitzuei eta agintariek hala eskatuta lankidetzan aritzen da beste Administrazio batzuekin laguntza- eta erreskate-zereginetan. 3 sailek osatzen dute: Mendiko eta Txakurren Saila, Itsasoko eta Urpekaritzako Saila eta Helikopteroen Saila.

**36. grafikoa: Zaintza eta Erreskate Unitatearen egitura 2014. urtea**




Iturria: Ertzaintza – Zaintza eta Erreskate Unitatea

Mendiko eta Txakurren Saila mendiko taldean eta txakurren taldean banatzen da. 9 agenteko 4 operatibok osatzen dute lehenengo taldea, eta haietako bat guardian egoten da 24 orduetan. Helikopteroen Sailaren laguntzarekin, erreskateak egiten dituzte mendietan, paretetan, barrunbeetan, arroiletan, elurretan, tren-istripuetan eta istripu aeronautikoetan, eta abar; miaketak eta bilaketak amildegietan, hondartzetan, mendietan eta ibaietan; laguntza eta

segurtasuna kirol-probetan; parte-hartzea eta segurtasuna erakustaldi eta simulakroetan; txostenak, adituen txostenak, eta abar; eta lankidetza gainerako atalekin iristeko zailak diren guneetan kokatutako jardunetan. Material sanitarioaz, eskaladakoaz eta neguko teknikako materialaz gain, lur orotako 5 ibilgailu dauzka mendiko taldeak, Hanggluns BV206 beldar-ibilgailua erdianfibioa (erreskatea elurretan eta uholdeetan) eta Poncin beldar-ibilgailu bat (erreskatea elurretan eta neguan errepikagailuetara eramatea). Txakurren taldea Ertzaintzan beren zerbitzua ematen duten 38 binomioetatik (gida-txakur) 5ek osatzen dute. Zenbait arrazatako txakurrak erabiltzen dira (alemaniar artzain-txakurra, labrador, retriever, springell eta belgikar artzain-txakurra) eremu handietako pertsonen bilaketan esku hartzeko, normalean gune menditsu eta landaguneetan), kolapsatutako egituretan edo luizietan azpian harrapatutako biktimak lokalizatzeko, gorpuak lokalizatzeko eta elurguneetan desagertutakoak bilatzeko.

Itsasoko eta Urpekaritzako Sailaren jarduerek itsasertzeko eta barruko ureetako erreskatea biltzen dute (gorpuak, objektuak eta ibilgailuak berreskuratzea), miaketak eta bilaketak; kirol-jardueretako babesa; itsasadarren, hondartzen eta babestutako ekosistemen kontrola; eta lankidetza Ertzaintzaren erreskate saileko eta beste unitate batzuekin. Itsas zerbitzuak 4 tripulaziotan banatutako 25 agente ditu, eta urpekaritza-taldeak, aldiz, 32 agentek osatzen dute, 4 taldetan banatuta. Baliabideei dagokienez, Sailak "SALVAMAR" modeloko ontzi bat du aluminiozko egiturarekin (Itsas Zain), zerbitzua Bizkaiko kostaldean ematen duena, eta Zodiac 733 OB SAR bat zerbitzua Gipuzkoari emateko, eta baita ere beste ontzi egoki batzuk kostaldeko uretan, ibai-uretan eta, oro har, sakonera txikiagokoetan, egin beharreko jardunetarako. Bestalde, urpekaritza-taldeak ekipamendu pertsonalak ditu agente bakoitzarentzat, itsaspeko propultsio ibilgailuak, ontziak jaso eta jaisteko egokitutako garabi-kamioia, sail honen premietara egokitutako garraio-ibilgailuak (tamaina handiko 2 furgoi eta lur orotako 2 ibilgailu), eta talde bakoitzarentzat beste material espezifiko batzuk.

Helikopteroen Sailari dagokionez, helburu nagusitzat du Ertzaintzaren unitateei aire-laguntza ematea prebentzio-zeregin, ikerketa-zeregin edo esku-hartze zereginetan, eta larrialdiei aurre egiteko zerbitzuei laguntzea. Sailak 3 helikoptero dauzka (Eurocopter Ecureil AS350B2 bat eta bi 2 Eurocopter EC135T1) bere eginkizunak betetzeko.

Kanpo-harremanak

Europar Batasunean, Estatu kideak, Tampereko Europako Kontseilutik aurrera (1999ko urria) Askatasun, Segurtasun eta Justizia Esparru bat sortzeko konpromisoa hartu zuten. ASJE siglaren bidez izendatzen da Europar Batasunak hedatzen dituen politika eta jardunen multzoa, batez ere Batasunaren barruan baina baita bere mugetatik kanpo ere, Estatu kide guztien artean partekatutako eremu bat sortzeko, lankidetza eta koordinazio politiko, polizial eta judizialeko lankidetza- eta koordinazio-maila handi bat lortzeko Batasunaren barruan, barne-segurtasuna, justizia eraginkorra eta herritarrentzat bere askatasun publikoen babes handia ahalbidetuko duena.

Ikusmolde hori ere partekatzen du –hori ondorioztatzen da behientzat planaren edukitik– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hainbat gaitan, hala nola irmo ezarri nahi izatea

segurtasuna eta herritarrak ardatz dituen sistema bat, koordinazioari garrantzi berezia ematen diona, politikei zein organoei dagokienez.

Dena den, ez dirudi Europar Batasunak sistema integral bat ezartzearen alde egiten duenik, hainbat alderdi –hala nola polizia-esparrutik ulertutako segurtasuna (ASJE) edo babes zibila (Babes zibileko Europako mekanismoa) eta larrialdiei aurre egitea (Urgentzia eta larrialdiei aurre egiteko Europako sistema) bereizitako jardun-esparruetan bilduta baitaude.

Horrenbestez, oro har ondoriozta daiteke, herritarren segurtasuneko zerbitzu publikoen ematea arautu behar duten printzipioen inguruko ikusmoldea partekatzen badugu ere, ez dirudiela gauza bera gertatzen denik zerbitzu hori emateko metodoari eta ereduari dagokionez; izan ere, zirkunstantzia askotariko ugari tartean, Europar Batasunak ez dirudi, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak hartutako bidetik aldenduta, segurtasun-sistema integratuaren alde egiten duenik.

Ikusmolde hori, segurtasunean inplikatutako sektore guztien jardun bateratua sektore horien jardunen koordinazioa nabarmen hobetzen dueneko ideia sinplean oinarritutakoa, egokiena dela hartu ahalko da kontuan, are gehiago koordinazio hori inoiz baino beharrezkoagoa den jokalekuan, ondorio hori eragiten baitu globalizazioak zenbait fenomenori gagozkiola, hala nola nazioz gaindiko delinkuentzia, edo nazioarteko zein sektore arteko lankidetza-sistema bat behar duten katastrofeen kasuan.

Testuinguru hori abiapuntutzat hartuta, Euskadiko Segurtasun Publikoaren 2014-2018 aldiko Plan Orokorrak, eredu hori partekatzen ez badu ere, Europar Batasunaren printzipio eta helburuen islatzat har daiteke, betiere hedatua izango den ingurune sozio-politiko espezifikoagoak emango dizkion berezitasunekin.

Ikuspegi global batetik ikusita, protagonismoa berezia hartzen dute esparru guztietan edozein motatako erakunde publiko edo pribatuekin izan beharreko kanpo-harremanak, herritarren premia berriak identifikatu eta Ertzaintzak bere misio bete dezan laguntzeko: jendearen bakea, segurtasuna eta ongizatea bultzatzea.

Ildo horretan, segurtasunaren esparruak ere zeregin garrantzitsua du “Euskadiren Nazioartekotze Estrategiak – Basque Country Estrategiak”, ekintza publikoaren esparruek Euskadi atzerrian kokatzeko helburuekiko zenbaterainoko erlazioa duten identifikatzen baitu. Zehazki, segurtasun alorrean, "beste segurtasun-agentzia edo erakunde batzuekin aldebiko harremanak ezartzearen aldeko apustua egiten da, horixe baita bidea informazioa eta esperientzia trukatzeko prestakuntza- eta lanbide-mailan, eta Europako erabaki-foro formaletan zein sare edo foro profesionaletan parte hartzeko", erreferentziako erakundeekin nazioarteko lankidetza polizial eta judizialaren alorrean garatzen ari den lana aprobetxatuta eta indartuta.

Ildo horretan eratu du erlazio tekniko-operatibo polizialak beste erakunde batzuekin indartzeko eta bidertzeko unitate bat, loturak eta aliantzak ezartzeko, agente sozial guztiekin partekatutako eta adostutako segurtasun-politikak diseinatzea ahalbidetuko dutenak eta, horrenbestez, interakzio handiagoa ezartzea Ertzaintzaren eta herritarren artean.

Ertzaintzak hainbat tresna erabiltzearen eta nazioarteko zenbait erakundetan parte hartzearen aldeko apustua egiten du, nazioarteko polizia-koordinazio hobea eta EAEtik haratagoko mugetan segurtasun-politiken diseinuan eragin handiagoa lortzeko helburuarekin. Honako hauek nabarmentzen dira haien artean:

- **Schengen Informazio Sistema (SIS)** Informazio-sistema bat da, eta Estatu kideetako agintari eskudunei pertsonen eta objektuen kategoria batzuei buruzko informazioa izatea ahalbidetzen die. Aurreikusitako xedapenak aplikatzeko laguntzen du, pertsonen joan-etorriari dagokionez zein arlo penaleko lankidetza judizialari eta polizia-jarduerari dagokionez. Egungo SIS 18 Estatuk pentsatu zuten (15 Estatu kideak, Islandia, Norvegia eta erreserba-postu bat). Sistemaren teknologia desfasatutzat hartzen da gaur egun eta Batzordeak bere gain hartu zuen SIS II finantzatzeko eta garatzeko erantzukizuna, hau da, Estatu kideekin, herrialde hautagaiekin, Kontseiluarekin, Europako Parlamentuarekin eta Kontrol Erkideko Agintaritzarekin lankidetza estuan egingo de proiektua.
- **Suplementary Information Request at the National Entries (SIRENE):** Estatuaren puntu bakarra informazioa trukatu eta emateko Schengengo akordioari jarraiki; akordio hori aplikatuta herrialde kideen arteko barne-mugak desagertuko dira, datu- eta informazio-trukea horrenbestez indartuta Schengengo gunean segurtasuna murriztea saihestuta[12], estatuan zein Europa osoan. Eskumen nagusiak Euroaginduen alorrean ditu (atxilotzeko eta entregatzeko europar agindua) SIS operatibo dagoen EB herrialde kideetarako eta estradizioaren alorrean Schengengo gainerako herrialdeetan, Norvegia eta Islandia.
- **EUROPOL bulegoa:** Europako Polizia Bulegoaren eginkizunak sortu eta ezartzen dituen EBren mandatua aplikatzearen ondoriozko informazioa igortzeko, jasotzeko eta trukatzeko ezarritako estatuko puntu bakarra. Bulegoaren egoitza nagusia Hagan dago, Holandan. Ertzaintzaren eta Europol Madrilen arteko jarduneko eta funtzionamenduko prozedura eta protokoloak ezarrita daude, baita komunikazio-kanalak ere, laguntza eskaintzeko nazioz gaindiko delinkuentzia larriaren, delinkuentzia antolatuaren eta terrorismoaren aurkako borrokan.
- **INTERPOL bulegoa:** Estatuak herrialdeekin (188 herrialde kide) ezarrita dauzkan Nazioarteko Polizia Lankidetzako akordioen ondoriozko informazioa igortzeko, hartzeko eta trukatzeko ezarritako estatuko puntu bakarra. Ertzaintzaren eta Interpol Madrilen arteko jarduneko eta funtzionamenduko prozedura eta protokoloak ezarrita daude, baita komunikazio-kanalak ere nazioarteko polizia-erakunde handienarekin, bere lana mugaz haraindiko lankidetzara eta nazioarteko jarduera kriminalaren prebentzio eta errepresiora bideratuta daukan erakundearekin.
- **Hendaiako Polizia Lankidetzako eta Aduanetako Zentroa (Polizia-etxe bateratua):** Alde batetik, zerbitzua ematen die Ertzaintzaren unitate guztiei EAEn informazio-premiei dagokienez, dela zerbitzu edo unitate batek eskatuta, dela alderdi frantziarrak

---

[12] Schengen lurraldea osatzen duten herrialdeak: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Holanda, Hungaria, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Malta, Norvegia, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublika, Eslovakiar Errepublika, Suedia eta Suitza

intereseko informazioren bat eman diolako zerbitzu edo unitateren bati. Bestalde, Zentroak zerbitzua ematen die Frantziako poliziari eta aduanari informazio-premiei dagokienez, eskatuta zein norberaren ekimenez.

- **Europako Polizia Eskola (CEPOL)**: 2005ean sortu zuen EBren agentzia gisa eta goi-mailako polizia-funtzionarioak biltzen ditu mugaz haraindiko lankidetza sustatzeko delinkuentziaren aurkako borrokan eta segurtasuna eta ordena publikoa atxikitzeko. CEPOLek 80-100 ikastaro, mintegi eta konferentzia antolatzen ditu urtero, eta estatu kideetako polizia-prestakuntzako zentro nazionaletan burutzen dira. CEPOLen prestakuntza- eta zabalkunde-jardueraren jarraipena Ertzaintzaren lotura-ofizialei dagokie, programatuko ikastaroei buruzko informazioa eta gainerako informazio interesgarria emateko.
- **PRÜM – 615/2008 Erabaki Markoa:** Mugaz haraindiko lankidetza sakontzeari buruz Europar Batasunaren Itunean oinarrituta dago (batez ere terrorismoaren eta mugaz haraindiko delinkuentziaren aurkako borrokaren alorrean), informazioa trukatzeko bideratutako xedapenak dauzka (Estatu kideek DNA aztertzeko beren fitxategi automatizatuetara, identifikazio daktiloskopikoko sistema automatizatuetara eta ibilgailuen matrikulazioko erregistroen datuetara sartzeko elkarri emateko moduan betiere) eta lankidetza areagotuko du mugaz haraindiko lankidetzarako prozedurak, ikerketako lantalde bateratuak eta baterako prestakuntzarako posibilitatea ezarrita. Erabakiaren garapena Itunaren herrialde sinatzaileek garatuko dituzten aldebiko akordioen mende dago, hots, Alemaniak, Austriak, Frantziak, Luxenburgok, Herbehereek eta Espainiak.
- **Ekimen suediarra:** EBren 960/2006 Erabaki Markoa eta 2010eko uztailaren 27ko 31 Legea, helburutzat zenbait arau ezartzea duena, eta arau horien arabera estatu kideen segurtasun-zerbitzuek modu bizkor eta eraginkorrean truka ditzakete eskuragarri dagoen informazioa eta inteligentzia ikerketa kriminalak edo inteligentzia kriminaleko operazioak burutzeko. Lege-esparrua indarrean hasi da jada EB osorako, baina herrialde guztiek ez dute “aldatu” beren zuzenbide nazionalera.
- **Krimen Antolatuaren Informazio Zentroa (KAIZ):** Estatuko puntu bakarra antolatutako mugaz haraindiko delinkuentziako forma larrienei buruzko inteligentzia eta informazioa trukatzeko.

Nazioarteko bere polizia-harremanetarako, Espainiako Polizia Nazionalaren (CNP) Nazioarteko Polizia Lankidetzako Unitatearen (UPCI) laguntza eta informazio-poliziaren trukeen onespena izan behar du Ertzaintza, unitate horrek baitauka, Guardia Zibilarekin batera, estatuaren ordezkaritza nazioarteko polizia-lankidetzako harremanetan. INTERPOLen, EUROPOLen eta SIRENEren bulego nagusi nazionalak unitate horren zati dira, eta kontaktu-puntu nazional operatibo gisa ere baliagarria da Prumgo Itunaren esparruan. Era berean, lotura-zerbitzu bat du eskueran "erakunde-alorreko harremanak bideratzeko polizia-kidego eta -administrazio interesgarriekin eta haien arduradunekin, baita Europar Batasuneko polizia-koordinazio prozesuetako jarraipena egitea ere”[13]. Madriden zerbitzua ematen duten Ertzaintzaren 2

[13] 150. zenbakiko EHAA, 1997ko abuztuaren 8koa

ofizialondoko eta jarduneko ofizial gisa aritzen den agente 1 dira, batez ere EUROPOL-INTERPOL-SIRENE egoitzan.

Bestalde, Kanpo Harremanen Unitatearen sorrerak, hau da, bere eskumeneko esparru guztietan Ertzaintzari parte hartzea eta proiektatzea ahalbidetuko dioten lankidetza-harremanak ezartzeaz eta bideratzeaz arduratuko denarenak, adierazten du apustu egiten dela zuzeneko aldebiko harremanak ezartzeko beste segurtasun-kidego eta erakundeekin, horixe baita bidea informazioa eta esperientzia trukatzeko prestakuntza- eta lanbide-mailan, eta Europako erabaki-foro formaletan zein sare edo foro profesionaletan parte hartzeko. Harreman horiek beste polizia-erakunde batzuekin kontaktu-bide berriak zabaltzea biltzen dute, nazioarteko ekitaldiak aprobetxatuta, kultura- zein kirol-arlokoak. Ezaugarri propio jakin batzuk ditu Ertzaintzak (ex novo sorrera eta historia, tamaina eta antolamendua, kalitatea kudeatzeko sistemetan oinarritutako kudeaketa eraginkorra, genero-indarkeriaren ereduzko tratamendua eta beste alderdi operatibo batzuk), eta ezaugarri horien ondorioz, erreferentziazko eredu bat da beste herrialde batzuetako segurtasun kidegoentzat, eta horrek erraztu egiten dizkion kanpo-harremanak eta nazioarteko proiekzioa.

<u>Eskumen-esparru administratiboa</u>

Izaera penaleko arau-hausteen ondoriozko erantzukizunez eta larrialdiei aurre egiteaz gain, honako administrazio-eginkizun hauek betetzen ditu Ertzaintzak, EAEn eskumena duten polizia-kidegoetarako Euskadiko Segurtasun Batzordean izenpetutako Zerbitzuak Mugatzeko Akordioen bidez itundutakoaren arabera:

- Poliziarentzat interesa duen informazioa jasotzea
- EAEko establezimendu publikoetako segurtasun-neurriak baimentzea, ikuskatzea eta kontrolatzea, baita bere legezko egoitza EAEn daukaten segurtasun-enpresak ere (SPU)
- Elkartzeko eta biltzeko eskubidearen aplikazioa (kontrola eta ikuskapena)
- Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko Legearen Zehapen Araubidea
- Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoen eskumen gisa esanbidez adierazi ez diren Polizia Administratiboko eta Dokumentazioko gainerako zerbitzuak

Ertzaintzak guztira 3.963 txosten eta 2.547 espediente landu zituen guztira 2013. urtean, eta zifra horiek urtean % 4ko eta % 3ko hazkundea erakusten dute hurrenez hurren. Drogekin lotutako txosten eta administrazio-espedienteak arau-hausteen guztizkoaren % 50 gainditzen dute bi kasuetan ere.

## 37. grafikoa: Ertzaintzaren txosten eta administrazio-espedienteen bilakaera HBLari/SPLari egindako arau-hausteengatik tipologiaren arabera. 2004.-2013. urteak




Iturria: Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza

Polizia Eredu Berria: Plan Estrategikoa Ertzaintza 2013-2016

Euskadiko aldaketa sozio-politikoko egungo prozesuaren ondorioz, agerian geratu da Ertzaintzaren polizia-eredu berri bat behar dela, herritarrarengandik hurbilago dagoen polizia-zerbitzu bat behar dela, herritarrek dituzten laguntza- eta segurtasun-premiei modu egokiagoan aurre egiteko bideratutakoa. Ildo horretan, Ertzaintzak, beste zenbait ekimenen artean, prestakuntza teknikoa irmoa eskainiko du trebetasun sozialetan, batez ere herritarrekin lehen harreman-lerroan dauden langileei zuzendutakoa.

Arrisku-prebentzioaren ikuspegiak izaera taktiko eta estrategikoa izango du. Horrela bada, ikerketa-jarduerek ere lagunduko dute prebentzioko ikuspegian, eta arreta berezia eskainiko diote biktima eta lekukoekiko harremanari. Adimenak gidatutako ikerketa kriminala polizia teknikoan eta zientifikoan oinarrituko da. Ertzaintzak profesionalen prestakuntza eta espezializazioa bultzatuko ditu, taldeko lana eta delinkuentziako era guztiak (txikienetik antolatutako kriminalitatera) borrokatzeko metodo berriak sustatuz.

Testuinguru horretan, Ertzaintzaren 2013-2016 aldiko Plan Estrategikoaren misioa, ikuspegia, balioak eta helburu estrategikoak aurkeztuko ditugu ondoren.

**38. grafikoa: Ertzaintzaren Misioa, Ikuspegia eta Balioak 2013-2016 aldiko Plan Estrategikoan**

| | |
|---|---|
| **Misión** | Servir a la ciudadanía para mejorar la convivencia y calidad de vida a través de acciones de prevención e intervención, coordinando las acciones necesarias para la protección de las y los ciudadanos, frente a emergencias y violencias que atenten o comprometan su seguridad |
| **Visión** | • Ser eficaces y eficientes, evaluando continuamente el rendimiento<br>• Estar preparados y abiertos al cambio<br>• Trabajar con el propósito de atender las necesidades de la ciudadanía, ofreciendo un servicio más próximo y cercano a la sociedad vasca<br>• Desarrollar una cultura de seguridad en los organismos, entes del Gobierno Vasco y la propia sociedad, enfocada a la protección |
| **Valores** | Todas las figuras involucradas en los diferentes procesos, procedimientos de gestión y operación en relación a la seguridad deben estar concienciadas y capacitadas con la importancia y necesidad de que dicha cuestión sea primordial, basando su sensibilización en los distintos niveles de responsabilidad y funciones |

Iturria: Ertzaintza

**39. grafikoa: Ertzaintzaren 2013-2016 aldiko Plan Estrategikoaren ardatzak eta helburu estrategikoak**

| Ejes | Objetivos Estratégicos | |
|---|---|---|
| **EJE 1**<br>**Alcanzar un alto nivel de reconocimiento social por su cercanía y eficiencia** | **OE1** | Revisar la estructura de la Ertzaintza |
| | **OE2** | Incrementar la presencia uniformada de la Ertzaintza en todo el territorio de Euskadi |
| | **OE3** | Incrementar la sensación de seguridad |
| | **OE4** | Reforzar la imagen corporativa |
| | **OE5** | Establecer relaciones de confianza y cooperación con la ciudadanía |
| | **OE6** | Establecer programas de contactos sociales |
| | **OE7** | Mejorar los instrumentos de medición y control |
| **EJE 2**<br>**Ofrecer un servicio basado en la prevención activa y apoyado en una inteligencia e investigación criminal eficaces** | **OE8** | Definir el proceso y las actuaciones de prevención activa |
| | **OE9** | Racionalizar la gestión de personas y recursos |
| | **OE10** | Adecuar las estructuras de información y orientarlas hacia las nuevas amenazas |
| | **OE11** | Establecer un modelo integral e integrado de inteligencia en toda la estructura organizativa |
| | **OE12** | Revisar el actual modelo de investigación |
| | **OE13** | Potenciación de los servicios de policía técnica y científica |
| | **OE14** | Integrar a la Ertzaintza en foros policiales internacionales |
| | **OE15** | Incorporar a los ciudadanos como parte central de los procesos |
| **EJE 3**<br>**Incorporar a su gestión la mejora continua y la colaboración con otros para adaptar su respuesta a las nuevas necesidades** | **OE16** | Establecer un programa de alianzas de ámbito institucional |
| | **OE17** | Establecer un programa de alianzas policiales |
| | **OE18** | Establecer un programa de alianzas de ámbito privado |
| | **OE19** | Completar el Mapa de Procesos de la Ertzaintza |
| | **OE20** | Establecer un modelo de gestión basado en la evaluación de resultados |
| | **OE21** | Establecer mecanismos para la participación externa |
| | **OE22** | Incentivar la cultura de la innovación |
| | **OE23** | Revisar el SGC orientándolo hacia modelos de excelencia |
| **EJE 4**<br>**Trabajar con compromiso y cohesión interna** | **OE24** | Impulsar un nuevo modelo de liderazgo en la Ertzaintza |
| | **OE25** | Promover y evaluar la formación humana y técnica |
| | **OE26** | Establecer un Plan de Comunicación Interna |
| | **OE27** | Fomentar la participación y el trabajo en equipo |
| | **OE28** | Diseñar un Plan de Gestión del Conocimiento |
| | **OE29** | Revisar y adecuar los servicios de control interno |
| | **OE30** | Evaluar el desempeño profesional |
| | **OE31** | Establecer un Plan de Evaluación del Clima Laboral |
| | **OE32** | Equilibrar las necesidades y expectativas de los diferentes grupos de interés internos |
| | **OE33** | Desarrollar una sistemática de relación con los sindicatos |

Iturria: Ertzaintza

## 4.2. Larrialdiei aurre egitea

Larrialdiak kudeatzeko 1/1996 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztiak behartzen ditu larrialdiak kudeatzeko sistema integratu eta bateragarri bat baliatzeko moduan izango dela bermatzera, eta horretarako koordinazioaren, lankidetzaren, elkartasunaren eta leialtasun instituzionalaren printzipioak betetzen dituzte beren harremanetan. Horregatik, **Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemak** hainbat kide biltzen ditu, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzan plantilla propioaz gain, hala nola euskal polizien kidegoetako kideak, suhiltzaileak, babes zibileko boluntarioen udal-elkarte eta -taldeak, Gurutze Gorria, DYA, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, Euskal Mendizale Federakuntza, Euskal Espeleologoen Elkartea, Osakidetza sistema sanitarioa, eta abar, Itsas Salbamenduko Estatuko Sozietatearen lankidetza ere badu (Sasemar), Espainiako Gobernu Zentralaren Sustapen Ministerioaren mendeko den sozietatearena. Ondoren, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema osatzen duten elementu guztiak deskribatuko ditugu, EAEk larrialdiei aurre egiteko eta erantzuteko alorren dituen gaitasunak erakuste aldera.

### *Taktikak eta larrialdi-planak*

Aurreikusgarrietan eta aurreikusezinetan sailkatzen dira larrialdiak agertzeko daukaten aukeraren arabera, eta ohikotzat edo ezohikotzat hartzen dira, aldiz, errepikatzeko daukaten probabilitatearen arabera. Larrialdi aurreikusgarriak estatistikoki EAEn gertatzen edo gertatu direnak dira eta, hori horrela, aldez aurreko lurralde-plangintza bat, kalteak arintzeko prebentzio-sistemak eta hornitutako eta espezializatutako esku-hartze zerbitzuak izatea ahalbidetzen dute. Larrialdi aurreikusgarri ohikoei erantzuteko taktika eta protokoloak erabiltzen dira, eta larrialdi aurreikusgarri ezohikoak, aldiz, Larrialdi Plan Berezien bidez estaltzen dira.

Taktika operatiboak ustezko istripu tipifikatu bati erantzuteko landutako planak dira, eta honako hauek deskribatzen dira haien artean:

- Deia edo alarma denbora errealean identifikatu eta ebaluatzeko irizpideak
- Mobilizatu ahalko diren zerbitzu, bitarteko edo baliabidea eta bakoitzak egin ditzakeen eginkizunak
- Zerbitzuak, bitartekoak eta baliabideak mobilizatzeko irizpide eta protokoloak

Larrialdi ezohikoei dagokienez, Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) du du Eusko Jaurlaritzak, eta plan horrek zehaztean zuzendaritza edo koordinazio autonomikoa eskatzen duten larrialdietarako antolamendu-esparru orokorra, eta babes zibileko plangintzaren prozesu globala eratzen du bere maila instituzional guztietan[14]. Esparru horretan, zenbait Larrialdi Plan Berezi landu dira:

- **Baso-suteetarako larrialdi-plana**
  Euskadin arrazoi naturalen ondorioz gertatutako suteak ohikoak ez badira ere, EAEn sortutako suteen % 70-80 nahitakoak edo zabarkerien ondoriozkoak dira. 1998ko martxoan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Suteetarako Larrialdi Planaren helburua da EAEren

[14] 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa.

barruan baso-suteek eragindako larrialdiei aurre egiteko erantzunaren eta jardun prozeduren antolamendu orokorra ezartzeko.

- **Uholdeen arriskuari aurre egiteko larrialdi-plan berezia.**
  LABIk ezartzen du uholde-arriskuak plan berezi bat eskatzen duela, eta Euskadi esposiziopean dagoen arrisku esanguratsuenen artean sailkatzen du. Gobernu Kontseiluak 1999ko ekainean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko uholdeen arriskuari aurre egiteko larrialdi-plan berezia, uholdeengatiko larrialdi-kasuetarako EAEren baliabide eta zerbitzuen jardun-prozedurak eta antolamendua ezartzeko helburuarekin, haien arteko beharrezko operazio-koherentzia bermatuz, egoera disfuntzionalak gertatzeko aukera saihesteko.
- **Errepidez eta trenbidez salgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko plan berezia.**
  Bere kokapen geografikoa kontuan izanda, Euskal Autonomia Erkidegoa, bertako errepide eta trenbideak igarobideak dira Iberiar Penintsulan jatorria edota helmuga duten hainbat salgai arriskutsurentzat. Salgai arriskutsu ugari garraiatzen direnez, eta garraio modu horri murrizketak ezartzen bazaizkio ere, ia-ia saihestezina da gorabeherak gertatzea. Ildo horretan, 2001eko abuztuan argitaratu zen EHAAn Euskal Autonomia Erkidegoan salgai arriskutsuak errepidez eta trenbidez garraiatzean istripu-arriskuari aurre egiteko larrialdi-plan berezia, istripuaren larritasuna dela-eta ohiko larrialdi-zerbitzuak gainezkatzen direnean erantzuna egokitzeko, zuzentze- eta koordinazio-eginkizunak administrazio-egituran aginte gorena duten arduradunen esku utzita.
- **Arrisku sismikorako larrialdi-plana**
  Euskadi jarduera sismiko txikiko gunetzat har daiteke, eta 500 urteko epean VIIko intentsitateko (EMS eskala) intentsitate handiagoko gertakariak jazotzeko probabilitateari buruz eginiko zenbait azterlanek ez dute halakorik gertatzeko arriskua duen zonarik agertu. Hala ere, Arrisku Sismikorako Babes Zibilaren Oinarrizko Gidalerroak, 1995eko ekainean onartu eta, 2004ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluaren erabakiaren arabera , arriskugarritasun sismikoko eremu berri gisa azaltzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Arabako eta Gipuzkoako probintziak. Aldaketa horien ondorioz, Euskadirako arrisku sismikorako larrialdi-plan berezia egiteko premia ezartzen da, Gobernu Kontseiluak onartu eta 2007ko abenduko EHAAn argitaratutakoa. Plan honen helburua da larrialdi sismikoren bat gertatuz gero erantzun azkarra eta eraginkorra emateko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea, eta pertsonek, ondasunek eta ingurumenak izan ditzaketen kalteak gutxitzea.
- **Arrisku kimikoko kanpoko planak**
  Kanpoko Larrialdi Planen (KLP) egikaritzapena, Europar Batzordearen 96/82/EE – Seveso II Zuzentarauaren ildotik, izaera kimikoko istripuak izateko esposiziopean dauden enpresen erantzukizuna da, eta beharrezkoa da substantzien bolumen jakin bat biltegiratzen, prozesatzen edo produzitzen duten establezimenduentzat, substantzia horien ezaugarri fisikokimikoak direla-eta istripu larria izateko arriskua egon baitaiteke. Enpresa bakoitzeko Kanpoko Larrialdi Plana da esparru organiko eta funtzionala, eta gerta daitezkeen istripu kimiko larriei aurrea hartzeko, eta, istripurik bada, ondorioak gutxitzeko sortu da. Bertan ezartzen dira esku hartzeko agintarien eta

zerbitzuen eginkizunak eta koordinazio-eskema, baita plana aplikatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak eta babesteko neurri egokiak ere. Eusko Jaurlaritzak eta eraginpean hartutako udalerri eta industria-establezimenduek elkarlanean jardun behar dute ongi koordinatuta, plana egiteko eta ezartzeko lanetan.

- **Itsas kostaldeko kutsaduraren aurka borrokatzeko plana**

  Abenduaren 21eko 1695/2012 Errege Dekretuak Itsas Kutsadurari Aurre Egiteko Sistema Nazionala onartzen du, halabeharrezko edo nahitako poluzio-kasu guztietan aplikatzekoa izango dena, edozein jatorri edo izaera duela ere, kutsadura horren estatuko kosta guztiak eraginpean hartzen baditu edo har baditzake. Sistemak lurraldeen planak biltzen ditu (autonomia-erkidegoak), itsasertza duten autonomia-erkidego bakoitzeko agintari eskudunak landu eta onartu beharrekoak eta Babes Zibileko Batzorde Nazionalak homologatutakoak, Babes Zibilari buruzko urtarrilaren 21eko 2/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera. EAEko Itsas Kostaldeko Kutsaduraren aurka Borrokatzeko Planak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren eta Segurtasun Sailaren arteko lankidetza eskatzen du.

- **Larrialdi erradiologikoen plana**

  Arrisku erradiologikoa dela-eta babes zibilaren plangintzako oinarrizko norabidea onartzen duen azaroaren 19ko 1564/2010 Errege Dekretuak ezartzen ditu beharrezko plangintza-mailak arriskua murrizteko edo istripuen ondorioak arintzeko beren jatorrian eta saihestea edo, gutxienez, ahal den neurrian murriztea erradiazio ionizatzaileek jendearen eta ondasunen gain dituzten kontrako ondorioak. Zentzu horretan,beste erantzukizun bat sartzen du autonomia-erkidegoentzat, hau da, larrialdi erradiologikoak direla-eta plan dagozkion planak egitea, norabideak ezarritako kanpo-erantzuneko mailaren zati gisa. LABIk plan bat landu beharra ezartzen du, larrialdi nuklearreko estatuko planei laguntza eta babesa emateko. Plan honek estatuko plan horietan aurreikusitako antolamenduaren barruan integratzea ahalbidetu beharko du, plan horietan ezartzen denaren arabera betiere.

- **Neguko Bidezaintzako Plan Estrategikoa**

  Trafiko Zuzendaritzak 2013ko urrian aurkeztu zuen 2013-2014 aldiko Neguko Bidezaintzako Plan Estrategikoa. Negualdiak berezko dituen eguraldi txarreko errepideen egoeretan EAEko errepide-sarerako aurreikusitako jardun-neurriak jorratzen ditu planak; egoera horiek euskal errepideetan agertzen den elurrak edota izotzak eragiten ditu, eta horrek eragindako ondorioak ere aztertzen ditu planak. Trafiko Zuzendaritzak elur-kota 1.000 metrotik behera jaisten bada abiarazten du Neguko Bidezaintza Plana, eta Jarraipen eta Informazio Fasea (elur-kota 1.000 metrorik 700 metrorako tartean atxikitzen bada) eta Fase Operatiboa (kota 700 metrotik behera jaisten bada) bereizten dira. Bidezaintza Planean hainbat jardun, inplikatutako erakundeak eta koordinazio-mekanismoak deskribatzen dira, zerbitzu-maila jakin batzuk eta gutxieneko zirkulazio-baldintza batzuk lortzeko diseinatutakoak, aldez aurretik ezarritako lehentasunen arabera.

- **Presen larrialdi-planak**

  Uholde Arriskurako Babes Zibileko Plangintzako Oinarrizko Norabideak (1995eko otsailaren 14ko BOE), 9/2008 Errege Dekretuak eguneratutakoak (2008ko urtarrilaren 11ko BOE), larrialdien plangintza arautzen du hausturako edo matxura handiko

arriskua dela-eta autonomi-erkidegoko presetan. Presen Larrialdi Planak lantzeko jarraibideak ezartzen ditu Norabideak; presen titularrek izango dute planen erantzukizuna (ezartzeaz, mantentzea eta eguneratzeaz ere arduratuko dira), eta autonomia-erkidego osorako Presen Larrialdi Plan batean integratuko dira ondoren. Estatuko Gobernuaren Uraren Zuzendaritza Orokorrak presen planak onartzen ditu, aldez aurretik Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari egokitzat iriztenen dituen oharren txostena eskatuta, eta URA Uraren Euskal Agentziaren laguntzarekin egiten duen lana. Larrialdi-plan izan dute presa guztientzat, non eta presa horren hausturak edo behar ez bezalako funtzionamenduak kalte larriak eragin baditzake hiriguneetan, funtsezko zerbitzuetan edo etxebizitzen multzo batean, edo kalte material edo ingurumen-kalte garrantzitsuak eragin.

Eusko Jaurlaritzak honako plan hauek berrikustea eta eguneratzea lehenesten du, Euskadin gehien errepikatzen diren larrialdiei erantzuten dietela uste duelako: Baso Suteetarako Plana, Uholdeen Arriskuari Aurre Egiteko Plana, Salgai Arriskutsuak Errepidez eta Trenbidez Garraiatzean Istripu Arriskuari Aurre Egiteko Plana, Negu Bidezaintzako Plan Estrategikoa eta Arrisku Kimikoko Kanpoko Planak

Babes Zibilaren alorrean Eusko Jaurlaritzari agindutako eginkizunetako bat toki-erakundeekin elkarlanean aritzea da, tokian toki babes zibilarekin edo larrialdiekin zerikusia daukan guztian. Horretarako, harremana sustatu behar da erakunde horiekin, batez ere aholkularitzarekin eta babes zibileko eta larrialdien araudia betetzearekin eta interpretatzearekin zerikusi daukan guztian. Hori guztia honako jardun hauen bidez lortzen da:

- Udalerrien larrialdi-planak gainbegiratzea
- Laguntza ematea laguntza eskatzen duten gainerako udalerriei
- Udalen larrialdi-planen erregistroa eguneratzea
- Udalerrietan Autobabeseko Euskal Araua ezartzeko jarraipen aktiboa
- Protokoloak egitea udal-zerbitzuekin, harreman operatibo bat sustatzeko moduan

### *Meteorologia eta Larrialdiak – Euskalmet*

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zuzendaritzan integratutako Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziaren bidez garatzen ari den helburu nagusietako bat da bizitza eta ondasunen babesean aurrera egiteko gai izatea, iragarpen eta zaintza meteorologikoko sistemen hobekuntzaren bidez. Larrialdien eta meteorologiako bi esparruen artean sortutako sinergiak informazio meteorologikoa biltzera bideratuta dauden lehentasunez, iragarpen- zein zaintza-mailei dagokienez, pertsonen eta haien ondasunen segurtasunera bideratua, meteorologiak ematen dituen beste alderdi batzuk ahaztu gabe, eguneroko bizitzarekin eta bertan garatzen diren zeregin eta lanekin lotutakoak.

Iragarpena eta zaintza sistema bakar baten zati banaezina dira, eta sistema horrek atmosfera gaur nola dagoen oinarritzat hartu eta bihar nola agertuko zaigun ondorioztatu nahi du jakintza baliatuta, eta horrek nahikoa aurretiaz jardutea ahalbidetzen dio beharrezkotzat

iritzitako prebentzio-neurriak hartzeko, abisuak egiteko eta kalteak minimizatzeko lagungarri diren bitartekoak mobilizatzeko eta, batez ere, hildakorik izatea saihesteko.

Egia da jakintza eta teknika gizarte garatuetan gehitu izanak minimizatu egin duela, eta asko gainera, kontrako fenomeno meteorologikoengatik hildakoen kopurua, baina, bestalde, fenomeno bakoitzak eragiten duen kalte materialen balio esponentzialki gehitzen ari da orain ere.

Alde batetik, gerta daitekeenaren jakintza meteorologikoa dago, baina jakintza horrek ez du ezertarako balio komunikaziorik gabe. Gertatzen denaren berri denbora errealean informatzeko gain izan behar du, eta izan ditzakeen ondorioei buruz ere bai. Baina informazio hori ere ez zaigu oso baliagarria izango ekintza batzuk abiarazten ez badira nolabaiteko garrantzia duen kontrako faktore izateko posibilitatea detektatzen denean.

Euskadik iragarpen-sistema ona eta zaintza-sare handi bat dauka, baina sistema hobetu egin behar da, sare hori beste agentzia eta erakunde batzuen lankidetzarekin osatuta.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren eginkizunetako bat sare hidro-ozeano-meteorologikoa denbora errealean mantentzea da. Hau da, estazio hidro-ozeano-meteorologikoen sare zabal eta trinkoa hobetzea, sarea eguneratuta, eta haren prestazioa eta dimentsionamendua hobetuta Horretarako:

- Kostaldeko sei plataformak berrantolatu eta hirura gutxituko dira
- Sare hidro-meteorologikoa gehituko da URArekin batera (Uraren Euskal Agentzia), Uholde Arrisku Handiko Eremuak estaltzeko eta estazio berriak jartzeko

### *Larrialdiak koordinatzeko zentroak*

Ekainaren 28ko 15/2012 Legeak ezartzen du Euskadiko segurtasun publikoaren sistemaren zerbitzu guztiek erabili eta iragarri beharreko larrialdietako telefono-zenbaki bakarra 1-1-2 dela.

112 Arreta Zentroa da Euskadiko lehen zentroa larrialdien koordinazioan. 112 telefono-zenbakira deitzen duen pertsona artatu ondoren, gertaera dokumentatzen da, taktika operatiboen arabera sailkatzen da eta dei-gutuna telematikoki igortzen zaie sistema baliatzen duten zerbitzuei. Zentroak 3.500 dei kudeatzen ditu egunean gutxi gorabehera (1,3 milioi urtean).

Eusko Jaurlaritzak 60 operadore, koordinazio-lanetan aritzen diren 65 ertzain eta Osakidetzaren 120 profesional dauzka mota guztietako larrialdiei erantzuteko, urgentzia mediko edo trafiko-istripuekin hasi eta suteekin edo materia arriskutsuen garraioarekin lotutako gorabeherekin buka, besteak beste. Koordinazioko eta Jarraipeneko 3 Zentroetatik egunean 450 gorabehera inguru kudeatzen dira.

2013an, guztira 168.689 gorabehera izan ziren, eta % 49 Bizkaiko lurraldeari egokitu zitzaizkion, Gipuzkoari % 34 eta gainerako % 17a Arabari. Tipologiari dagokionez, bidezaintzako arriskuen detekzioak erregistratutako gorabeheren % 22 bildu zuen, atzetik urgentzia

medikoak, pertsonen istripuak, herritarren segurtasunarekin lotutako gorabeherak eta trafiko-istripuak dituela (% 20,7, % 15, % 14,6 eta % 12,6, hurrenez hurren).

**40. grafikoa: SOS Deiak-ek erregistratutako gorabeherak tipologiaren arabera. 2013. urtea**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza:

Aginte Postu Aurreratua (APA) larrialdiak kudeatzeko hirugarren elementua dugu, "in situ" koordinaziorako prestatua. Egitura operatiboaren organo hori, betiere esku-hartze gunetik hurbil dagoena, laguntza-jardunetan laguntzen eta jardun horiek zuzentzen eta koordinatzen dituzten arduradunek osatzen dute. Larrialdi Plan Berezi bat abiaraztea dakarten ezohiko larrialdiak badira, Aginte Postu Aurreratua etengabeko harremanetan egongo da Ekintzak Koordinatzeko Zentroarekin (EKZ). Ekintzak Koordinatzeko Zentroa Planaren Zuzendaritzaren aginte-postua da, eta zentro horretatik bideratzen dira informazioa zabaltzeko, koordinatzeko eta zentralizatzeko lanak, larrialdiaren egoera ebaluatze aldera eta, era berean, larrialdian aplikatu behar diren erabakiak jakinarazteko, baita Planaren Zuzendaritza eta zuzendaritzako edo kontroleko gainerako zentroak zuzeneko harremanetan mantentzeko ere:

Europar Batasunaren "112 alderantziz" ekimenaren ildotik, 112 zerbitzuak dituen asmoak herritarrei laguntza eskatzeko telefono-zenbaki bat eskaintzetik haratago doaz: "112" zerbitzua proaktiboagoa izan dadila da helburua, eta herritarren eskaerei modu iraunkorragoan erantzuteaz gain, zuzenean eta bere ekimenez zuzenduko zaio herritarrari, haren segurtasunari dagokion guztian.

"112" zerbitzuaren kudeaketa aldaketa hori egin ahal izateko, zerbitzua telefono-arretako zerbitzura ez mugatzearen alde egin da. Egungo aurrerapenak erabiliko dira teknologiari, aplikazio informatikoei eta komunikazio moduei dagokionez, pertsonengana hobeto heltzeko. Erabili beharreko tresna horien artean ezarri dira sare sozialak. Twitter, YouTube eta WhatsApp dira erlazioa aktiboagoa egiten duten tresna horietako batzuk. Halaber, gaineratu dira dei masiboen sistemak, edo zerbitzu operatiboetako GISa, eta igorpen masiboko sistema

eguneratu egin da, mezu elektronikoen eta SMSaren bitartez. Era berean, Euskal Meteorologia Agentzia (Euskalmet) eta biztanleriarentzako haren abisu-, alerta-, alarma- eta informazio-sistema herritarrekin komunikazio handiagoa izateko lagungarria den aktibo bat da, larrialdiei dagokienez, eta hori horrela Eusko Jaurlaritzak interesa agertu du agentziak eskainitako zerbitzuen hedadura publikoa sendotzeko. Arreta telefonikoaz gain, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren bitarteko nagusiak herritarrei informatu eta haiek erlazionatzeko honako hauek dira:

- **Twitter** Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren bi kontuez gain (112 zerbitzuaren eta Euskalmetena), eta segurtasunarekin eta larrialdiekin lotutako gainerakoez gain (Ertzaintza eta Trafiko Zuzendaritza), informatzea eta informatu izatea ahalbidetzen dio Gobernuari, elkarrizketan aritzea, entzutea eta entzuna izatea. Ondoren, 2014ko martxoari dagozkion Twiterren kontuen datuak biltzen ditugu:
    - @ertzaintzaEJGV: 3.199 tuit eta 5.398 jarraitzaile
    - @112_SOSDeiak: 4.876 tuit eta 5.728 jarraitzaile
    - @Euskalmet: 18.600 tuit eta 25.200 jarraitzaile
    - @trafikoaEJGV: 9.640 tuit eta 3.928 jarraitzaile
- **YouTube:** Aholku eta bideo esanguratsuak igortzen dira, eta jendeak bere iritzia eman dezake egiten dituen komentarioen bidez.
- **APPak:** Eusko Jaurlaritzak mendi-erreskaterako “Alpify” aplikazioa (15.000 erabiltzaile; 40.000 erabiltzaileri erantzuteko ahalmena), “Euskalmet” aplikazio meteorologikoa eta “TrafikoEJGV” trafiko-aplikazioa ditu gaur egun.
- **Informazio-hitzaldiak udalerrietan:** Iritziak eta komentarioak trukatzen dira bertaratuekin hainbat udalerritan. Arrisku kimikoa izan da Eusko Jaurlaritza informazio-hitzaldiak ematera bultzatu duen arrazoietako bat.
- **Kexa eta iradokizunen formularioa:** Webgunean argitaratu da Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa errazteko.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiko Zuzendaritzak egoera-koadro bat ere badu larrialdiak gizarteari komunikatzeko, kanal egokiak aktibatzea ahalbidetuko duena arriskugarritasun-mailaren arabera.

### 41. grafikoa: Abisu-, alerta-, alarma- eta informazio-sistema: Egoera-koadroa

| Nivel | VERDE | AMARILLO | NARANJA | ROJO |
|---|---|---|---|---|
| Situación | Normalidad | Normalidad | Falta de normalidad | Excepcional |
| Peligrosidad | Cuasinula | Baja | Media | Alta |
| Periodo de retorno aprox. | | < 1 año | ~ 1 año | >> 1 año |
| Generación | No | Aviso | Alerta | Alarma |
| Envío e-mail | No | Si | Si | Si |
| Envío SMS | No | Si (*) | Si | Si |
| Nota de prensa | No | No | Si | Si |
| Mesa de crisis | No | No | No | Si |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

## *Suhiltzaileak*

Euskadik suhiltzaileen 25 parke ditu, hiru lurralde historikoetan banatuta: 2 Bilbon, 1 Donostian eta Gasteizen, eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundien mendeko 8, 8 eta 5 parke, hurrenez hurren. EAEko suhiltzaileen udal- eta foru-kidego guztien artean, 1.042 kide erabiltzen ditu. Eusko Jaurlaritzak larrialdiei erantzuteko. Suhiltzaileen % 53 Bizkaian biltzen da, 2.035 biztanle bakoitzeko suhiltzaile bat duen lurraldea. Gipuzkoako suhiltzaileak EAEko guztizkoan % 28 dira, eta biztanleko kideen kontzentrazio handiagoa dute (1.459 biztanle suhiltzaileko). Gainerako % 19ak Arabako lurraldea estaltzen du, eta kideko 1.532 biztanleko tasa erakusten du.

### 42. grafikoa: EAEko suhiltzaileen parkeen eta kideen kopurua lurraldearen arabera. 2013. urtea <




Iturria: EAEko udal- eta foru-kidegoak

Parke mugikorrari dagokionez, Euskadiko suhiltzaileen kidegoek ezaugarri desberdineko 187 ibilgailu dituzte, autoponpa-ibilgailuekin hasi eta mota guztietako erreskate-ibilgailu eta ibilgailu osagarriekin buka. Ondoren, EAEko suhiltzaileen parke mugikorraren xehetasuna erakutsiko dugu lurralde historikoaren arabera.

# 43. grafikoa: EAEko suhiltzaileen parke mugikorraren xehetasuna. 2013. urtea

| | ARABA | | | BIKAIA | | | GIPUZKOA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | DFA | AYTO. VITORIA | TOTAL | DFB | AYTO. BILBAO | TOTAL | DFG | AYTO. DONOSTIA | TOTAL |
| **Vehículos autobomba** | 4 | 4 | 8 | 32 | 8 | 40 | 22 | 6 | 28 |
| Tanque | | | | | 2 | 2 | | | |
| Autobomba | | | | | 6 | 6 | | | |
| Autobomba urbana pesada | | | | 14 | | 14 | | | |
| Autobomba urbana ligera | | | | 2 | | 2 | | | |
| Autobomba nodriza pesada | | | | 5 | | 5 | | | |
| Autobomba forestal pesada | | | | 11 | | 11 | | | |
| Camión autobomba B4 (3.000 l) | | 1 | 1 | | | | | | |
| Camión autobomba B5 (3.500 l) | | 1 | 1 | | | | | | |
| Camión autobomba B7 (2.000 l.) | | 1 | 1 | | | | | | |
| Camión autobomba B8 (3.600 l.) Autobomba rural (forestales) | | 1 | 1 | | | | | | |
| Camión autobomba B11 (2.800 l.) | 3 | | 3 | | | | | | |
| Camión autotanque T41 (9.000 l.) | 1 | | 1 | | | | | | |
| **Vehículos salvamento** | 2 | | 2 | | | | | 8 | 8 |
| **Autoescalas** | 2 | 3 | 5 | 10 | 3 | 13 | 9 | 1 | 10 |
| Autoescala 30 m de brazo | 2 | | 2 | | 2 | 2 | | 1 | 1 |
| Autoescala 50 m de brazo | | | | | 1 | 1 | | | |
| Autoescalera | | | | 10 | | 10 | | | |
| Camión brazo articulado E2 (máx. 44 m.) | | 1 | 1 | | | | | | |
| Camión autoescala E4 (máx. 24 m.) | | 1 | 1 | | | | | | |
| Camión autoescala E5 (máx. 39 m) | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Autobrazo 30 m.** | | | | | 1 | 1 | | 1 | 1 |
| **Camión rescate** | | | | | 1 | 1 | 9 | 1 | 10 |
| **Camión transporte E1 (con deposito de 4500 litros de salmuera (nevad** | | 1 | 1 | | | | | | |
| Camión transporte E6 (caja con pluma de elevación de cargas) | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Camión rescate carretera** | | | | | | | | | |
| **Camión intervenciones riesgo químico** | | | | | 1 | 1 | | | |
| **Furgón rescate carretera** | | | | | | | | 1 | 1 |
| **Furgón salvamento acuatico** | | | | | | | | 1 | 1 |
| **Furgón de rescate acuático** | | | | | 1 | 1 | | | |
| **Furgón rescate urbano** | | | | | | | | 1 | 1 |
| **Furgon achiques** | | | | | | | | 1 | 1 |
| **Furgón intervenciones riesgo químico** | 1 | | 1 | | | | | 1 | 1 |
| **Furgón de útiles** | | | | 9 | | 9 | | | |
| **Furgones** | | | | 4 | | 4 | | | |
| **Vehículos auxiliares** | 8 | | 8 | | | | 21 | 9 | 30 |
| **Camión auxiliar** | | | | | | | | 1 | 1 |
| **Embarcaciones** | | | | | 3 | 3 | | | |
| **Motos de agua** | | | | | | | | 2 | 2 |
| **Vehículo de mando** | | | | | | | | 3 | 3 |
| **Puesto de mando avazado** | | | | | | | | 1 | 1 |
| **Remolques riesgo químico (básico)** | | | | | | | 8 | | 8 |
| **Vehículos rescate** | | | | | | | 18 | | 18 |
| **Vehículo transporte de personal** | | | | | | | | 2 | 2 |
| **Camión nodriza** | 1 | | 1 | | | | | | |
| **Bomba forestal** | 1 | | 1 | | | | | | |
| **Camión combi escala-bomba (escala de 24 m.)** | 1 | | 1 | | | | | | |
| **Remolque con generador** | | | | | 2 | 2 | | | |
| **Multilift** | | | | | 2 | 2 | | | |
| **Contenedores** | | | | | 3 | 3 | | | |
| **Vehículos ligeros de emergencias** | | | | | 5 | 5 | | | |
| **Unidad de transporte pesado** | | | | 4 | | 4 | | | |
| **Vehiculos todoterreno** | | | | 20 | | 20 | | | |
| **Turismos** | | | | 14 | | 14 | | | |
| **Camión autotanque T1 (11.000 l.)** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Camión autotanque T4 (9.000 l.)** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Furgón varios P1** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Furgón polisocorro S1** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Furgón polisocorro S2** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Vehículo ligero todo-terreno F1** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Vehículo ligero F2** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Vehículo furgón ligero F3** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Vehículo ligero FS4** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Vehículo todo-terreno J0** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Vehículo todo-terreno J1** | | 1 | 1 | | | | | | |
| **Vehículo todo-terreno J2** | | 1 | 1 | | | | | | |
| TOTALES | 20 | 21 | 41 | 93 | 30 | 123 | 87 | 40 | 127 |

Iturria: EAEko udal- eta foru-kidegoak

## *Larrialdietarako eta babes zibilerako boluntarioak.*

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legeak ezartzen du helburutzat EAEko pertsona eta ondasunen babesa, laguntza eta sorospena duten erakunde, kolektibo, entitate edo instituzio guztiek larrialdiei aurreko egiteko eta babes zibileko euskal sistema osatzen dutela. Ostera, zerbitzu osagarriak dira, hain justu, administrazioek, profesionalen edo boluntarioen talde edo elkarte publiko nahiz pribatuak

emandakoak izanda, larrialdietarako mobilizatzen direnak, baina funtsezko zerbitzuen lana osatzeko, boluntarioak eta babes zibila barne.

Babes zibileko eta larrialdietako boluntarioei dagokienez, Udaleko Babes Zibileko 29 Talde zeuden EAEn (4 sortzeko fasean: Karrantza, Mungia, Plentzia eta Muskiz): 13 Bizkaian, 10 Gipuzkoan eta 6 Araban. Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak (112 – SOS Deiak) babes zibileko boluntarioek esku hartzeko posibilitatea biltzen du lurralde-esparruaren eta esku hartzeko beharrezkoa den erantzun-denboraren arabera, dagozkion boluntario-elkarteei gertatutako larrialdi-egoerari buruz informazioa emanez esku hartzeko dute prestasuna zein den jakiteko eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren talde profesionalekin elkarlanean aritzeko. Boluntariotzako erakundeek euren parte-hartzea beharrezkoa den larrialdietan hartuko dute parte, Babes Zibileko Planei eta parte-hartze horretarako sortutako taktika eraginkorrei jarraiki.[15]

**44. grafikoa: Udaleko Babes Zibileko Zentroen mapa. 2014. urtea**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Udaleko Babes Zibileko Taldeez gain, Segurtasun Sailak babes zibilari laguntzen dioten 5 erakunderen laguntza du larrialdiak kudeatzeko: Euskadiko Gurutze Gorria, Euskal DYA, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, Erreskate Taldea - Euskal Mendizale Federakuntza eta Euskal Espeleo Laguntza / Espeleo Socorro Vasco - Euskal Espeleologoen Elkartea.

15 1/1996 Legea, apirilaren 3koa, larrialdiak kudeatzekoa.

- **Euskal Espeleo Laguntza / Espeleo Socorro Vasco:** Euskal Espeleologoen Elkargoaren batzordea (UEV-EEE), espeleologo boluntarioek osatutakoa, lurrazpiko istripu-kasuetan jarduteko espezifikoki prestatutakoak. Batzordearen helburuak dira barrunbeetako erreskate-teknikak ezagutzea, euskal espeleologoen segurtasun zaintzea, beste lurralde batzuetako espeleologoei laguntza ematea, alor horretan eskudunak diren beste organismo batzuekin harremanak bultzatzea eta lurpeko istripuaren prebentzio-arauak sustatzea. Gaur egun Euskal Espeleo Laguntzak 80 espeleologo inguru ditu koordinatzaile, espezialista eta sorosleen artean, eta Espeleologoen Euskal Elkargoaren batzorde gisa jarduten du erabateko autonomia tekniko, operatibo eta finantzarioarekin barrunbeetan erreskateak egiteko duen misioa betetzeko.
- **Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea:** Boluntarioak zein profesionalak ditu astean, eta zenbait entrenamendu kolektibo egiten dituzte astean. Binomio bakoitzaren eguneroko lanak, urtebeteko maiztasuna duen kualifikazio-proba baten bidez ebaluatutakoak, bermatzen du talde operatiboak nazioarteko eskatutako mailan daudela salbamendu-operazioetan esku hartzeko. Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeak lankidetza-hitzarmen bat du Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin eta 112 - SOS Deiak Zentroaren bidez jarduten du, eta urte osoan egunean 24 orduz eskuragarri dago. Euskadiko Laguntza Txakurren Taldearen helburu nagusia da gida batek eta txakur batek osatutako taldeak prestatzea, mendian galdutako, hondakinen azpian harrapatutako edo elurraren azpian geratutako pertsonak aurkitzeko.
- **Erreskate Taldea - Euskal Mendizale Federakuntza:** Esku-hartze iraunkorreko taldea da, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak finantzatutakoa. Honako hauek osatzen dute taldea:
    - mendiko 19 soroslek, erreskate- eta segurtasun-tekniketan prestatutakoak
    - espezializatutako 4 medikuk eta erizain batek
    - Giza baliabide eta baliabide materialak beren etengabeko prestakuntza jarduerak eta esku-hartze jarduerak garatzeko

  Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, federazioaren sorospen-taldeak mendiko istripuetan eta mendian gertatutako galtzeetan esku hartzen du. Taldea, gainera, Euskal Mendizaleen Federakuntzaren, mendiko lurralde-federazioen eta atxikitako kluben jarduera ofizialen segurtasunaz arduratzen da. Jende ugari biltzen duen edozein jarduerak edo parte-hartzaileentzako arrisku objektiboak egon daitezkeela iritzitako edozein jarduerak Sorospen Taldearen doako laguntza jaso dezake (ibilaldiak, lasterketak, eta abar).
- **Euskal DYA:** DYA Bizkaiaren Erreskate Talde Bereziak, diziplina anitzeko antolatutako eta ekipatutako profesional eta boluntarioek osatutakoak, katastrofeek eraginpean hartutako pertsona eta ondasunak babesteko jarduera jakin batzuk egiten ditu, Bizkaiko lurraldean zein Bizkaitik kanpora. Kanpaina-ospitaleak, lur orotako anbulantziak, quadak, txalupak eta eskaladako eta urpekaritzako material dauka, beste zenbait bitartekoren artean, bere lana burutzeko. Bestalde, DYA Gipuzkoaren esku-hartze baliabideek larrialdi sanitarioak erantzuten lan egiten dute, urgentziako anbulantzia-sarearen bidez, galdutako pertsonen bilaketa eta salbamenduan lagunduz

mendian edo ur-ingurunean; kanpaina-ospitaleak edo biktimak sailkatzeko postuak zabalduz larrialdiei eta katastrofe handietan, jakiak edo larrialdiko alojamenduak eskainiz sute, eztanda, eraispen, uholde eta bestelako larrialdietan kaleratutako pertsonei.

- **Euskadiko Gurutze Gorria:** Larrialdietan Berehalako Erantzuna Emateko Taldeek (LBEET) larrialdi-egoera batean berehala jarduteko behar diren baliabideak eman eta bermatzen dituzte. Behar bezala prestatutako boluntarioak dituzte, arlo honetan parte hartzen duten espezialistak, erantzun bizkor eta irmoa eskaintzeko. Desagertutako pertsonak bilatu eta aurkitzeko eginkizunetan parte hartzen dute, gorpuen berreskuratzea barne, lehorrean eta itsasoan. Hainbat jardun-esparrutan espezializatzen dira taldeak:
    - Mendiko LBEET
    - Aterpeko LBEET
    - Esku-hartze psikosozialeko LBEET (laguntza psikologikoa)
    - Logistikako LBEET
    - Ur-esparruko LBEET

  Larrialdietako esku-hartzeez gain, Euskadiko Gurutze Gorriak prebentzio-zerbitzuak eskaintzen ditu, giza baliabide eta baliabide materialak eskainiz laguntza sozio-sanitario egokia emateko eta politika publikoekin inplikatuta herritarren segurtasuneko eta babes zibileko alorrean. Ekitaldi horien estaldurak aldez aurreko plangintza baten emaitza gisa egiten diren jarduerak biltzen ditu, eskaera jakin batzuei erantzuna emateko. Ildo horretan, Gurutze Gorriak prebentziozko estaldura bat ematen du jende ugari biltzen duten ekitaldietan, hala nola kirol-ekitaldi, ekitaldi ludiko, kultural eta politikoetan, besteak beste, oinarrizko bizi-euskarriko laguntza-anbulantzia urgente bat bertan egotea beharrezkoa edo hobea den kasuetan.

### *Itsas salbamendua*

2013. urtean, itsas salbamenduko 211 esku-hartze egin ziren EAEn, aurreko urtean baino % 11 gehiago, eta 152 pertsona erreskatatu dira edo laguntza jaso dute. Esku-hartzeen % 54 laketontzien larrialdiekin lotuta dago, eta kasu horien % 85 akats mekanikoak eragindako deribari dagozkio. Ontziekin lotuta ez dauden gorabeherak esku-hartzeen % 27 dira, eta % 61 jitoan dauden objektu flotatzaileei eta pertsonen uretarako erorikoei dagozkie. Itsas salbamenduko gainerako esku-hartzeak arrantza-ontziekin, merkataritza-ontziekin eta bestelako ontzi mota eta larrialdiekin lotuta egion ziren (% 4,7, % 2,4 eta % 8, hurrenez hurren).

**45. grafikoa: EAEko itsas salbamenduko esku-hartzeen banaketa larrialdi motaren arabera. 2013. urtea**




Iturria: Itsas Salbamenduko Estatuko Sozietatea (SASEMAR)

Estatuko eta autonomia-erkidegoko zenbait erakunde eta instituzioaren arteko emaitza da itsas salbamenduko zerbitzua Euskadin. Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa (112 - SOS Deiak) da larrialdi guztiak koordinatzeko arduraduna, lehorreko larrialdiak zein barne-uretan (ibaiak, estuarioak, urtegiak, eta abar), hareatza eta hondartzetan, itsaslabarretan eta kostaldean gertatutako larrialdiak. Dena den, itsas larrialdiak Espainiako Gobernu Zentralaren Sustapen Ministerioaren mendeko Itsas Salbamenduko Estatuko Sozietatearen erantzukizuna dira (SASEMAR), eta itsas zabalean eta kostaldeko urtean gertatutako larrialdi guztiak biltzen ditu. Horrenbestez, SASEMAR eta SOS Deiak elkarlanean aritzen dira esku-hartzen duten erreskate-taldeen jarduna koordinatzeko: erreskate-ontziak, patruila-ontziak eta aireontziak.

EAEko itsas salbamenduko ekipamenduaren zati nagusia Itsasoko Gurutze Gorriaren erreskate-ontziek osatzen dute, eta Arriluzen (Getxo), Bermeon, Ondarroan, Getarian, Donostian, Pasaian eta Hondarribian dituzte baseak. Base horietako bakoitzak B mailako erreskate-ontziak (itsasertzeko eta kostaldeko erreskatea) eta C mailako erreskate-ontziak (barne-uretako eta estuarioetako erreskatea) ditu, eta haietako hiruk A/B mailako baliabideak ere dituzte itsas zabaleko eta itsasertzeko erreskaterako (Getxo, Ondarroa eta Donostia). Estatuko zein autonomia-erkidegoko patruila-ontziek ere zeregin garrantzitsua betetzen dute salbamendu ugarietan eta Ertzaintzaren helikopteroek, basea Bizkaian dutela, zerbitzu bizkor eta eraginkorra ematen dute parte hartzeko eskatzen zaien operazioetan.

Zenbait ontzi emateaz gain, Eusko Jaurlaritzak laguntza eskaintzen du erreskate-bitarteko horiek behar bezala funtziona dezaten, diru-laguntzak eginda eta salbamendu-materialaren zati garrantzitsu bat dohaintzen bidez emanda. Sektore publikoaren konpromiso horri esker, boluntarioen lanarekin eta motibazioarekin batera, Estatuko itsas salbamenduko eredu puntakoenetakoa du Euskadik.

Euskadiko Gurutze Gorriak, SOS Deiak-ekin koordinatuta, euskal kostaldeko itsasoa estaltzen du 12 miliaraino hainbat operaziotarako, hala nola ontziak bilatu eta aurkitzea, erreskatea eta laguntza sanitarioa, atoitzeak eta laguntza teknikoak, besteak beste. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak ematen ditu eta diruz laguntzen ditu baseak eta oinarrizko

materiala antolakuntzarako: ontziak, pantalanak, motorrak, urpeko jantziak eta bestelako materialak.

Era berean, Gurutze Gorriko boluntarioak B mailako ontziak erabiltzeko ikastaroak ematen dituzte Getariko basean eta erreskaterako uretako motoen ikastaroak Donostian, eta ikastaro horiek Gurutze Gorriko gainerako baseei eta suhiltzaileen kidegoei ematen zaizkie, beste kolektibo batzuen artean.

Euskal hondartzen zaintzari dagokionez, ekainetik irailera, Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldeko hondartza guztiak Gurutze Gorriaren prebentzio-, salbamendu- eta sorospen-zerbitzua daukate. 200 sorosle inguruk zaintzen dute egunero hondartzen segurtasuna, eta hainbat zereginez arduratzen dira, hala nola banderak jartzea, bainulariak zaintzea, pertsonak galtzen diren kasuak kudeatzea, izan daitezkeen arriskuez ohartaraztea eta, jakina, erreskate-lanak. Horretarako, material sanitarioa eta erreskate-lanak egiteko beharrezko bitartekoak daude hondartza bakoitzean. Lan horrek onespena jaso du ISO 9001:2008 Kalitate Ziurtagiriaren lorpenarekin (AENOR), eta ziurtapen horrek hondartza guztietan lan egiteko modua bateratzea eta zerbitzuan hobekuntzak sartzea ahalbidetu du.

## 4.3. Bide-segurtasuna

Bide-segurtasuna lehentasunezko jarduna da Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailarentzat zein Europar Batasunarentzat, bereziki istripuak murriztera bideratutako politikei dagokienez. Eusko Jaurlaritza bere politikak bide-segurtasuneko europar helburuekin lerrokatzen saiatuko da, zeregin horretan Trafiko Zuzendaritzaren laguntza duela.

Trafiko Zuzendaritza eskuduna da bide-segurtasuneko politika aktiboen proposamenean, hiriarteko trafikoa kudeatu eta kontrolatzeko eginkizunak garatzen ditu, baita hiriarteko bideetan bide-segurtasuna eta -arintasuna hobetzeko jardunak, trafiko-informazioa, zaintza-bitartekoak eta neurri bereziak ere. Horretaz gain, jardun-programak eta dibulgazio-kanpainak garatzen ditu hezkuntzako, prestakuntzako eta bide-segurtasuneko alorrean, eta trafikoari buruzko estatistika eta azterlanak lantzen ditu. Era berean, arau-hausteengatiko zehazpenak betearaztea dagokio, eta baimen berezia, kirol-probak eta gidarien eskolak ematea.

Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzaren jardun-arloak eta ekintza nagusiak laburbilduko ditugu ondoren:

**46. grafikoa: Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzaren jardun-arloak eta ekintza nagusiak**

| Área de Actuación | Principales Acciones |
|---|---|
| **FORMACIÓN Y EDUCACIÓN VIAL** | • Planificar, elaborar programas de actuación, y desarrollar campañas divulgativas en materia de educación, formación y seguridad vial<br>• Elaborar materiales de formación y concienciación en seguridad vial<br>• Formación a sectores sociales vinculados a la seguridad vial |
| **INVESTIGACIÓN** | • Elaborar estudios y trabajos de investigación en el ámbito del tráfico y seguridad vial<br>• Desarrollar el cometido de Observatorio del Tráfico y Seguridad Vial encargado de recopilar, analizar y difundir información referente al tráfico y seguridad vial |
| **CENTRO DE GESTIÓN DE TRÁFICO DE EUSKADI** | • Supervisión, mediante monitorización en tiempo real, del estado de la circulación y el tráfico interurbano en Euskadi<br>• Establecer los usos y mensajes de los paneles de señalización variable<br>• Activación de los planes de gestión de tráfico aprobados por la Directora de Tráfico<br>• Adopción de las estrategias y medidas de ordenación y regulación del tráfico en eventos especiales (Operaciones Salida/Retorno Verano, Semana Santa, ferias)<br>• Coordinación con otros Centros de Tráfico de Euskadi y de otras administraciones encargadas del tráfico y la circulación vial en el entorno atlántico transeuropeo<br>• Orientación a la ciudadanía en la conducción de sus vehículos, informándoles sobre el estado de la red viaria |
| **CENTRO AUTOMATIZADO DE TRAMITACIÓN DE INFRACCIONES DE TRÁFICO (CATIT) Y OFICINAS TERRITORIALES DE TRÁFICO** | • Ejecutar el procedimiento sancionador cuando se infringe la normativa de tráfico y seguridad vial |
| **ÁREA JURÍDICA Y OFICINAS TERRITORIALES DE TRÁFICO** | • Coordinar y establecer criterios en la instrucción y resolución de los expedientes sancionadores<br>• Otorgar autorizaciones especiales<br>• Autorizar e informar sobre las carreras, concursos, certámenes y pruebas deportivas en general<br>• Autorización, controlar e inspeccionar las escuelas particulares de conductores y su personal directivo y docente<br>• Promover la colaboración con las Administraciones competentes en materia de carreteras; establecer la relación, así como las pautas de colaboración, con los órganos equivalentes de otras Administraciones Públicas |
| **INGENIERÍA** | • Planificar, dirigir y coordinar las actuaciones para mejorar la seguridad y fluidez vial en las vías interurbanas, especialmente los accesos a las vías urbanas y grandes núcleos de población, así como en tramos y puntos peligrosos y de alta densidad de tráfico y en las travesías<br>• Ordenar la instalación y uso de videocámaras y de cualquier otro medio de captación y reproducción de imágenes para el control, regulación, vigilancia. |
| **INFORMÁTICA** | • Analizar, gestionar y administrar los proyectos de la Dirección en el ámbito de los Sistemas de Información y de Internet y dar apoyo técnico y asesoramiento a los diferentes usuarios en los temas relacionados con los mismos. |
| **COMUNICACIÓN** | • Desarrollar una estrategia de comunicación de la Dirección de Tráfico, teniendo como eje la concienciación, y en función de los momentos públicos y las acciones a desarrollar |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritza

Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordea da funtsezko organoa bide-segurtasuneko hobetzeko erakunde arteko koordinaziorako. Tresna eraginkorra dela erakutsi du, batez ere istripu kopurua gutxitzeari dagokionez.

Batzorde hori kide anitzeko organo bat da, Segurtasun Sailburuordetzari atxikitakoa eta helburu bikoitzarekin eratutakoa:

- Bide-segurtasunean eragina duten eskumenez baliatzen diren administrazio publikoen koordinazioa bermatzea.
- Kontsulta-organo moduan bide -segurtasuna bermatzea eta jarduera-eremu horretan diharduten entitate publiko eta pribatuen arteko topaketak eta esku-hartzeak bultzatzea.

2013an, eta Euskadiko kale eta errepideetan Ertzaintzak eta udaltzaingoek 2001ean erregistratutako istripuei dagokienez, hildakoaren % 70 gutxitu ziren, zauritu larriak % 72 eta biktimak izan zituen istripuak % 37.

**47. grafikoa: Ertzaintzak eta udaltzaingoek erregistratutako trafiko-istripuetan izandako hildakoen bilakaera 2001 eta 2013. urteak**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritza

Bide Segurtasuneko europar helburua, 2010etik 2020ra, EBn trafiko-istripuek eragindako hildakoak % 50 murriztea da (35.000 pertsona 2009an). EBren bide-segurtasuneko politikaren helburua bide-segurtasuneko maila gehitzea da, herritarren Europan izango duten mugikortasun garbi eta segurua bermatuta horri esker. Era berean, EBk errepidearen erabiltzaileen berdintasuna bultzatu nahi du erabiltzaile kalteberenen segurtasuna hobetzeko. Eusko Jaurlaritzaren bide-segurtasuneko politikaren ekintzak esparru horretan EBk dituen helburu estrategikoekin lerrokatuko dira eta herritarrak izango dituzten ardatz, herritarrak animatzen saiatuko baitira beren zeregina onar dezaten beren segurtasunaren eta gainerakoenen arduradun gisa.

Ildo horretan, kontuan izan behar da istripu kopuruak azken hamarkadan Euskadin izan duen bilakaerak ahalbidetu duela milioi bat biztanleko 30 eguneko epean hildakoen ratio batzuk lortzea alor horretan aurreratuenak diren herrialdeenen oso antzekoak direnak, hala nola Erresuma Batua, Suedia, Danimarka edo Herbehereak.

**48. grafikoa: Milioi bat biztanleko 30 eguneko epean hildakoak. 2012. urtea**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritza

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak 2010-2014 aldiko Euskadiko Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoa landu zuen, eta planaren helburu nagusiak dira errepideko biktimen kopurua murriztea, arrisku-taldeen araberako istripuen kopurua murriztea eta Euskadin mugikortasun iraunkor eta segurua sustatzea. Honako sei jardun-ardatz hauen inguruan biltzen da plana:

- Parte-hartzea
- Jakintza
- Informazio jaso, tratatu eta aztertzea

- Trafiko-istripuetako jarduna eta eman beharreko arreta
- Trafikoa eta informazio-sistemak kudeatzea
- Talde eta jokabide arriskutsuak zaintzea eta kontrolatzea
- Hezkuntza, prestakuntza eta kontzientziazioa.

Aurrekoa ikusita, gure bide-sarean biktimen kopurua murrizteko, bide-segurtasuneko araudia betetzeari buruz gizartea kontzientziatzeko, barne-bitartekoekin, kanpo-agenteekin, erakundeekin eta nazioarteko sareekin informazioa trukatu eta koordinatzeko, eta gizartearen sektore guztiekin bide-segurtasuneko prestakuntza sustatzeko ekintzak biltzen ditu Segurtasun Plan Orokorrak.

## 4.4. Prestakuntza Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Plan Orokorraren helburu estrategikoetako bat da prestakuntza, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia funtsezko tresna da Eusko Jaurlaritzaren prestakuntza-lanak burutzeko segurtasun-arloan. Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legeak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia sortzea eta arautzea aztertzen du, haren funtzioak segurtasun publikoaren sistema osoari erantzunez berriz definituta. Horrela, beren artean helburua berarekin erlazionatzeko eta elkarlanean aritzeko zerbitzuen prestakuntza-integrazioa bultzatzen da: pertsonei segurtasuna ematea eta haien ondasunak babestea, aldi berean segurtasun eta larrialdietako zerbitzuen etengabeko prestakuntzaren kostu ekonomiko-administratiboak arrazionalizatzen dituela, sinergiak eta azpiegituren baterako aprobetxamenduak ahalbidetuta eta prestakuntza-baliabide akademikoak bikoiztea saihestuta.

Akademiaren helburua da baldintzak eta bitartekoak lortzea herritarrei segurtasuna emateko zerbitzu publikoetan beren jarduera garatzen duten pertsonek behar duten lanbide-prestakuntza eskura dezaten, eta gaikuntza hori beste pertsona batzuei ere zabaltzea, segurtasun publikoaren zerbitzuetako kide ez badira ere, betiere lanbide-interesa badute edo haien jarduerak zerbitzu horien garapenean eragiten badu. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren prestakuntzako, hautaketako, eta ikerketa eta berrikuntzako politika egikaritzen du Akademiak, Euskadiko poliziari dagozkion arloetan zein babes zibil eta larrialdietako arloetan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokien eskumen-esparruaren barruan, eta lege horretan ezarritakoaren arabera, prestakuntza eta, hala dagokionean, EAEko segurtasun publikoaren politikaren burutzapenean aritzen diren edo esku hartzen duten giza baliabideen banaketa planifikatu eta kudeatu beharko du.

Akademiaren eginkizunak dira hautaketa-prozesuen oinarriak ezartzea Ertzaintzaren eskala eta kategorietan sartzeko, epaimahai kalifikatzaileak hautatzeko, eta, oro har, hautaketa-prozesuen garapenari dagozkion atribuzio guztiak. Era berean, tokiko administrazioaren mendeko diren polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartzeko oinarrizko arauak lantzea dagokio, baliokideak izango direnak, eta bereziki erkideak diren eta nahitaez bete beharrekoak diren hautaketa-prozesuen programa, edukia eta egiturak.

Euskadiko Polizia osatzeko duten kidegoetako eskala eta kategorietan sartu aurreko prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak programatzea, antolatzea eta garatzea biltzen du

Akademiak eskainitako prestakuntza-jarduerak, baita prestakuntza antolatzea eta garatzea ere Euskadiko Poliziako kideen espezializaziorako eta etengabeko prestakuntzarako. Era berean, Ertzaintzako kideen euskalduntzea lortzeko hizkuntza-eskakizuneko ikastaroak programatzen, antolatzen eta garatzen ditu.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak urteroko Jardueren Memoria bat lantzen du, eta bertan zehazten da Ertzaintzari, Udaltzaingoari, suhiltzaileei eta larrialdietako eta babes zibileko euskal sisteman esku hartzen duten profesional eta boluntarioei eskaintzen zaien prestakuntza- eta hautaketa-jarduera.

Honako hauek nabarmentzen dira prestakuntza-arlo nagusien artean:

- Ertzaintza:
    - Egitura berrirako prestakuntza-planaren egokitzapena
    - Plantilla berritzeko planaren egikaritzapenaren hasiera
- Larrialdiak eta Babes Zibila: Suhiltzaileetan sartzeko ikastaroak
- Udaltzaingoa: Bitartekoen poltsak sortzeko parte hartzea
- Beste kolektibo batzuk:
    - Larrialdi sanitarioetako teknikariko tituluan parte hartzea
    - Prestakuntza autobabes-planetan eskudunak diren teknikarietan
    - Adituak zezensuzkorako
    - Bide-prestakuntza

2013an 11 hautaketa-prozesu abiarazi ziren euskal poliziarako (4 Ertzaintzari zegozkion; 7 Udaltzaingoari) polizia-kidegoetarako sarreren, igoeren, espezializazioen eta hizkuntza-eskakizunen eguneratzeen artean. Ertzaintzak 170 plaza eskaini zituen bide-segurtasunean, 99 eman zirelarik, eta 200 eskaini ziren brigada mugikorrerako, 2014ko urtarrilean irekita zegoen prozesuan. Udaltzaingorako prozesuen artean 19 plaza betetzeko deialdia egin zen, eta 16 bete ziren, gainerako hautaketa-jarduerak 2014ko urtarrilean prozesuan bazeuden ere.

Akademiaren prestakuntza-jarduerari dagokionez, 14.976 ikasle matrikulatu ziren abiarazitako ikastaro eta ekimen guztietan. Ikasleen % 71 ertzainak izan ziren, % 21,7 udaltzainak, % 5 larrialdiekin lotutako langileak izan ziren (suhiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA eta babes zibileko boluntarioak barne) eta % 0,3 beste polizia-kidego batzuetakoak ziren. Antolatutako prestakuntza-ekintza edo -ikastaroen kopurua 1.020ra iritsi zen. Ekintza horien arteko gehienak (% 86) segurtasun publikoaren esparruko hainbat teknika eguneratzeko eta hobetzeko bideratu ziren, hainbat ikastaro espezifiko egin baziren ere, hala nola larrialdiak eta babes zibila (% 6,2), hizkuntzak (% 3,1) eta espezializazioa (% 2,7), azken horiek Ertzaintzako agenteak espezializatzeko helburuarekin.

**49. grafikoa: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren 2013ko Jardueren Memoria: matrikulazio kolektiboak eta prestakuntza-ekintzak tipologiaren arabera**

*Matriculaciones por tipo de colectivo*




**Total: 14.976 matriculaciones**

*Acciones formativas por tipología*




**Total: 1.020 acciones / cursos**

Iturria: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia.

Udaltzaingoen hautaketa-prozesuetarako gaiak bateratzeko ahaleginak egiten ari gara, baita deialdi bateratuak garatzen ere izan daitezkeen disfuntzioak saihesteko, udalerri bakoitzak bere deialdiak abiarazteko duen independentziaren ondorioz. Era berean, Akademia lanean ari da agentearen eta agente lehenaren profilen gainean (haren zereginak, trebetasunak, baldintzak, beharrezko gaitasunak, eta abar) haien prestakuntza-premiak identifikatzeari begira.

Akademiak zeregin garrantzitsua izango du Ertzaintzaren ereduaren eguneratzean. Segurtasun Sailak interesa agertu du herritarrekiko harremana egokia izan dadin eta, horrenbestez, prestakuntza tekniko sendoa jasoko dute agenteek, trebezia sozialetan. Gainera, profesional guztien espezializazioa lehenesten da, talde-lana eta delinkuentzia mota guztiei aurre egiteko metodo berriak sustatuta, arinenarekin hasi eta kriminalitate antolatuarekin buka, kriminalitate hori bere dimentsio askotarikoenetan antolatuta.

## 4.5. Jokoa eta Ikuskizunak

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari dagokio neurri zuzentzaile edo baldintzatzaileak ezartzeko lana 700 pertsonatik gorako edukiera duten lokaletako establezimenduen lizentziei dagokionez, baita 700 pertsonatik gorako edukiera duten ikuskizun publiko eta jolas-jardueren lokalak ikuskatzeko eta kontrolatzeko lana ere. 700 pertsonatik beherako edukiera duten ikuskizun publiko eta jolas-jardueretarako lokalen ikuskapena eta kontrola dagokion udalaren erantzukizuna da. Jokoaren eta ikuskizunen esparruan espezializatutako Unitate bat dauka Ertzaintzak, Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren langileekin elkarlanean aritzen dena.

2013ko abenduan, Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumenekoak ziren ikuskizun eta jolas-jardueren 424 lokal eta instalazio zeuden, lokal eta ikuskizunak ikuskatzeko eta baimentzeko Zuzendaritzaren eginkizunen barruan: ikuskizunetarako 223 lokal

(futbol-zelaiak, frontoiak, dantzalekuak, auzo- eta kultura-etxeak, beste hainbat instalazioren artean) eta 201 joko-areto (kasinoak, bingoak, jolas-aretoak, joko-aretoak eta apustu-lokalak).

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren 2012-2016 aldiko Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera, honako hauek lirateke segurtasun-afektazioak jokoaren eta ikuskizunen arloaren ikuspuntutik:

- **Jokoa:**
  Informazioaren Gizartearen teknologien bidez garatzen da gero eta gehiago jokoa, nahiz eta ez den gutxietsi behar joko tradizional edo presentzialaren praktika, elementu edo makina tradizionalen bidez.
  - **Joko modalitate berriak.** Joko modalitateek oinarritzat duten teknifikazio progresiboari dagokionez (gehienbat sistema telematiko eta Internet bidezko jokoa), beharrezkoa da homologazio-protokoloek espezifikazioak ezar ditzatela jarduera hori sistema garden eta seguruen bidez garatuko dela bermatzeko, aldian behingo auditorien bidez kontrastagarriak. Joko-sistemen segurtasuna sistema horien gardentasunean eta osotasunean oinarritu behar da, eta adingabeen babesa ziurtatzen duten mekanismoak baliatu behar dituzte haien sarbidea kontrolatu eta debekatzeko, baita kolektibo kalteberena ere hainbat neurrirekin, hala nola jokorako autoesklusioa edo jokora bideratutako diru-kopuruen mugaketa denboraldietan. Erreminta oso baliagarri bat, segurtasunaren ikuspuntutik begiratuta, Administrazioak egikaritutako joko-eragiketen monitorizazio edo urrutiko kontrola dugu, eta sistema horren artxibo historikoetarako sarbidea. Era berean, kontroleko eta fiskalizazioko erreminta egoki bat izateak, ikuskapen-plan bat esaterako, lagungarria da goian adierazitako zereginetarako. Ildo horretan ari da lanean Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza, neurri horiek araudian ezarriz, jokoa baimentzeko baldintza gisa.
  - **Joko tradizionala.** Joko tradizional edo presentzialari dagokionez, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak joko-elementuen softwarearen sinadura elektronikoaren kontrolak egiten jarraitzen du, ustiatutako elementuak benetan baimendutakoak direla egiaztatzeko moduan. Jokoaren legezkotasuna eta erabiltzaileekiko iruzurrik ez egotea ere bermatzen du horrek.
- **Ikuskizunak**
  Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren funtsezko jardun-ildoetako bat da. Segurtasunaren hobekuntzarekin dago lotuta, berezko balioa den aldetik, jendearentzat zabalik dauden lokalei zein haietan garatzen diren ikuskizunei dagokienez. Ildo horretan, 3.3 puntuko (17. grafikoa) "pilaketa handiak" atalean aipatutako arau-hausteen kopurua murriztea da helburua.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak bere ahaleginak biltzen ditu pertsonen osotasuna eta segurtasuna bermatzeko aisia-jardunaldietan parte hartzen dutenean. Horrenbestez, jarduera horiek garatzearekin batera, ezinbesteko premisa gisa, bertaratuen segurtasuna zaintzeko bermea eman behar da, araudiak ezarritako segurtasun-neurri guziak betez garatzen direla egiaztatzen den neurrian.

Horretarako, gure gizarteak eskatzen dituen eskakizun berrietara egokitu behar da egungo araudia. Zeregin horretan, lan bateratuaren bidez, jarduera horretan protagonismoa duten administrazio guztiek parte hartu behar dute, udalen aipamen berezia eginda, lokalei establezimendu-lizentziak emateko ardura baitute, eta EUDELena, udalak biltzen dituen erakunde garrantzitsuena baita. Ildo horretan, honako jardun-neurri hauek biltzen dira:

- Eskumenen banaketako mekanismo argiak ezartzea Toki Erakundeen eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren artean, ikuskizun eta jolas-jardueren araudiari dagokionez.
- Erregelamendu batean ezartzea ikuskizun eta jolas-jarduerak egiteko segurtasun-baldintzak.
- Argi ezartzea ikuskizun eta jolas-jardueren ikusleen eskubideak, segurtasun-neurriei buruz kontzientzia daitezen, kalitate-berme gisa ikuskizun bat egitean.
- Zuzendaritzaren, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen koordinazioa hobetzea ikuskizun eta jolas-jardueren kontrolean eta ikuskapenean izango duten parte-hartzeari dagokionez.

Jokoaren eta ikuskizunen arloko araudi arautzaileari jarraiki, autonomia-erkidegoari dagokionez Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak zenbait lankidetza-organotan parte hartzen du: Jokoaren Euskal Kontseilua, Euskadiko Apustuen Batzordea, Droga-mendekotasunen Euskal Kontseilua, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua eta Zezenketa-gaien Euskal Batzorde Aholku-emailea. Estatuarekin duen lankidetzari dagokionez, Joko Politiken Kontseiluan, Joko Arduratsuaren Kontseilu Aholkularian eta Zezenketa-gaien Aholku Batzorde Nazionalean. Azkenik, nazioartean, nabarmentzekoa da Gaming Regulators European Forum (GREF) erakundean izan duen parte-hartzea, hau da, joko pribatuarekin lotutako gaiak aztertzeko eta bateratzeko sortutako europar funtsean izan duena.

## 5. Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza

Atal honetan deskribatzen dira, alde batetik, harreman instituzionaleko erreminta eta organo nagusiak Segurtasun Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren gainerako sailen eta segurtasun publikoarekin lotutako politiken elaborazioan inplikatutako agente gisa identifikatu diren beste Administrazio Publiko batzuen artean, eta, bestetik, agente ekonomiko eta sozialen eta herritarren partaidetza-formulak identifikatzen dira.

Ildo horretan, Segurtasun Saila elkarlanean aritzen da Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako euskal erakundeen beste arlo batzuekin honako alderdi hauetan:

- Alkohola eta gazteak:
  - Alkohol eta gazteen erakunde arteko batzordea
  - Erakunde arteko eta sektore arteko lantaldeak
- Immigrazioa:
  - Immigrazioko euskal estrategia
  - Herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako foroa
- Ijito herria:
  - Ijito herriarekin izan beharreko politiken euskal estrategia
  - Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plana:
  - Segurtasun Sailaren Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasun Plana
  - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Saileko Talde Teknikoa
- Adikzioen plana:
  - Droga-mendekotasunen Aholku Kontseilua
- Gazteria:
  - Gazte Justizia Plana
  - Gazteriaren arloko Politika Integrala
  - Gazteriaren arloko Zuzendaritza Batzordea
  - Gazteriaren arloko Politikako Batzorde Teknikoa

Aurkezpen hau ordenatuta aurkezten da, dagoen organo bakoitzari esleitutako eginkizun nagusiaren arabera:

- Erakunde arteko koordinazio-organoak
- Kontsulta- eta koordinazio-organoak
- Partaidetza-organoak

# a. Erakunde arteko koordinazio-organoak

## 5.1. Euskadiko Segurtasun Batzordea

EAEko Segurtasun Publikoaren Sisteman, Estatuaren Administrazio Orokorrarekin izan beharreko koordinazioa eta lankidetza ordenamendu juridikoan aurreikusitako mekanismoen bidez egin behar da, eta bereziki Ertzaintzaren eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen arteko koordinazioari dagokionez, Segurtasun Batzordearen eskutik, Autonomia Estatutuaren 17.4 artikuluaren arabera.

1981eko urtarrilean izandako lehenengo Segurtasun Batzordetik 2012ko azken bilkurara arte, Batzordea 34 aldiz bildu da Eusko Jaurlaritzak izandako legegintzaldi guztietan.

Euskadiko Segurtasun Batzordean zerbitzuak mugatzeko bi akordio lortu ziren 1989an eta 1995ean (beste akordio puntual batzuez gain, hala nola aireportuei buruzkoa), eta akordio horien arabera jakin daiteke zein polizia-kidegok du gorabehera bati erantzuteko ardura gorabehera horren izaeraren eta gertatzen den lekuaren arabera, eta aurreikusitako erlazio-jokalekua koordinaziokoa izango den (eskumen partekatuak) edo, kasuan kasu, lankidetzakoa (polizia-kidego baten edo batzuen eskumen esklusiboa). Ondorengo grafikoak Ertzaintzaren eta Estatuko Segurtasun Kidegoen EAEko eskumen-laburpena erakusten du, eskumenak mugatzeko izenpetutako akordioen arabera:

**50. grafikoa: Polizia-kidegoen eskumen-laburpena EAEn**

| | Ertzaintza | Guardia Civil | Cuerpo Nacional de Policía |
|---|---|---|---|
| **Seguridad Ciudadana** | • Vigilancia de Puertos cuya gestión directa no se reserva al Estado<br>• Vigilancia de Aeropuertos (lado tierra)<br>• Protección de personalidades de la CAPV fuera de ésta<br>• Protección de personas bajo amenaza terrorista<br>• Resto de servicios de Seguridad Ciudadana en la CAPV | • Vigilancia de Puertos<br>• Vigilancia de Aeropuertos (lado aire)<br>• Vigilancia de Costas y Fronteras<br>• Aduanas<br>• Protección de personalidades del Estado o invitadas por éste<br>• Conducción de presos fuera de la CAPV<br>• Vigilancia de instalaciones propias<br>• Protección de personas bajo amenaza terrorista | • Protección de personalidades del Estado o invitadas por éste<br>• Vigilancia de instalaciones propias<br>• Protección de personas bajo amenaza terrorista |
| **Policía Administrativa** | • Recepción de información de interés policial<br>• Autorización, Inspección y control de las medidas de seguridad en establecimientos públicos de la CAPV, así como las empresas de seguridad que tengan domicilio legal en la misma<br>• Aplicación del derecho de manifestación y reunión (control e inspección)<br>• Régimen Sancionador de la Ley de Protección de la Seguridad Ciudadana<br>• Resto de servicios de Policía Administrativa y Documentación no mencionados expresamente como competencia de las FCSE | • Resguardo Fiscal del Estado<br>• Contrabando<br>• Armas y Explosivos | • Control de entrada y salida del Estado Español de personas<br>• Régimen general de extranjería, refugio y asilo, extradición y expulsión, emigración e inmigración<br>• D.N.I.<br>• Pasaporte |
| **Investigación Criminal y Policía Judicial** | • Delitos cometidos en la C.A.P.V. excepto los investigados por otros cuerpos policiales<br>• Policía Judicial ordinaria | • Contrabando<br>• Delitos contra la Hacienda del Estado<br>• Delitos cometidos en el “lado aire” de los aeropuertos<br>• Delitos cometidos en los edificios oficiales de las Administración del Estado<br>• Delitos de rebelión, sedición, traición y aquellos que comprometan la paz o la independencia del Estado<br>• Delitos cometidos por agentes en el ejercicio de sus funciones | • Delitos contra la Hacienda del Estado<br>• Falsificación de documentos públicos cuya expedición esté reservada a la Administración de Seguridad del Estado (D.N.I., pasaporte y análogos)<br>• Delitos cometidos en los edificios oficiales de la Administración del Estado<br>• Delitos de rebelión, sedición, traición, y aquellos que comprometan la paz o la independencia del Estado<br>• Delitos cometidos por agentes en el ejercicio de sus funciones |

Nota: 1) En la competencia atribuida a la Guardia Civil en lo referente a “Delitos relacionados con el control de armas y explosivos” queda incluida la actuación de investigación en materia de terrorismo, de acuerdo con la L.O. 9/1.984, de 26 de diciembre, Medidas contra la actuación de bandas armadas y actividades terroristas o rebeldes.
2) La actuación sobre terrorismo no viene expresada como materia exclusiva para las FCSE en el artículo 17 del Estatuto de Autonomía, incluyéndose como competencia de la Ertzaintza en materia de investigación criminal, pero también es importante indicar que como consecuencia del Acuerdo de Delimitación de Servicios, aquellos delitos cuyo enjuiciamiento corresponda a la Sala de lo Penal de la Audiencia Nacional y sean cometidos parcial o en su totalidad en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca, en estos supuestos, podrán actuar los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado y la Policía Autónoma Vasca.

Iturria: Harlax zk. 53 (2007) – Ertzaintzaren Aldizkari Teknikoa

Dena den, estatu osorako egungo erlazio-elementuen oinarri diren irizpideak indarrean hasteaz haratago, Europar Batasuna gauzatu da lurralde-errealitate berri gisa, eta polizia-kidego guztiek (Ertzaintza barne) beren eskumenak proiektatu behar izan dituzte, errealitate horretan polizia-zerbitzu integralak txertatzea lehenetsiz herritarren eskariari erantzuteko, hots, polizia-eraginkortasun handiagoa izatea delinkuentzia transnazionalaren aurrean.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak uste du konpontzeko dauden zenbait alderdi daudela polizia-koordinazioa hobetzeko, eta hobekuntza-puntu horiek azpimarratu beharko lirateke etorkizunari begira.

### 5.2. Udaltzaingoen Koordinazio Batzordea

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legeak Euskadiko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea eratzen du kontsulta-organo gisa udaltzaingoaren koordinazio-arloan, segurtasun publikoan eskuduna den sailari atxikita.

### 5.3. Toki Koordinazioko Batzordea Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean

Tokiko polizia-koordinazioko batzordeak Ertzaintzaren eta udaltzaingoen polizia-zerbitzuen koordinazio-organoak dira esleituta dituzten eginkizunen egikaritzapenean, kidego bakoitzaren berezko eskumenak errespetatuta. Horretarako, lurraldeko segurtasun publikoaren egoera aztertzea, jardun-irizpide bateratuak eta jardun-protokoloak lantzea, eta abar, dagokio. Hiriburuetan eta Ertzaintzaren lurralde-mugape bakoitzean daude

## b. Kontsulta- eta koordinazio-organoak

### 5.4. Euskadiko Babes Zibileko Batzordea.

**Euskadiko Babes Zibileko Batzordea** da Euskadin babes zibilaren arloan kontsultarako, eztabaidarako, koordinaziorako eta homologaziorako kide anitzeko organoa. Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari atxikita dago eta Segurtasun Sailburuordetza du buru, eta batzordeko kide dira, Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailez gain, Foru Aldundiak, Euskadiko Estatuaren Administrazioa eta Eudel.

Honako lan-organo hauek daude Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen mende:

- **Arrisku Teknologikoko Batzorde Teknikoa:** Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen mendeko da, eta lantalde bat osatzen du Euskadik jasan beharreko arrisku teknologikoen aurrean erantzun teknikoko dokumentuak koordinatzeko eta prestatzeko. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak egiten ditu idazkaritza- eta koordinazio-lanak.
- **Arrisku Naturaletako Batzorde Teknikoa:** Arrisku Teknologikoko Batzorde Teknikoaren antzeko ezaugarriak dituen organoa arrisku naturalen esparruan. Uholde-arriskuarekin lotutako arloetan garatu ditu bere lan gehienak.
- **Babes Zibileko Boluntariotzako Aholku Batzordea:** Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen lan-organoa arlo horretan boluntariotzaren prestakuntza eta uniformetasuna definitzeko. Boluntariotzako erakundeen eta babes zibilaren arloko boluntarioen erregistroa definitzea eta garatzea du helburu nagusitzat, baita bere kideen egiaztagiriak ere. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak dinamizatzen du batzorde hau.

### 5.5. Ikuskizun eta jolas-jarduueretarako euskal kontseilua

Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua Euskadiko administrazio publikoen kontsulta-, azterketa-, koordinazio- eta aholkularitza-organoa da ikuskizun eta jolas-

jarduerekin lotutako gaietan. Bertan Eusko Jaurlaritzaren eta euskal udalen hainbat kudeaketa-arlotako ordezkariak daude, eta eraginpeko sektore sozio-ekonomikoetan ordezkariak parte hartzera dei ditzakete.
Bada era berean Zezenketa-gaien Euskal Batzorde Aholku-emaile bat, zezenketa-ikuskizunen alorreko kontsulta- eta aholkularitza-organo gisa, eta bertan daude, ikuskizunen, osasun publikoaren eta animalia-osasunaren arloko arduradunez gain, udalen eta zezen-plazen presidenteen ordezkariak eta plazako delegatu bat.

### 5.6. Jokoaren Euskal Kontseilua

Euskal Autonomia Erkidegoan zorte-, enbido- edo zori-jokoekin erlazioa duten jarduera guztien plangintzaren, koordinazioaren eta kontrolaren kontsulta-organoa da Jokoaren Euskal Kontseilua. Bertan Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta euskal udalerrien hainbat kudeaketa-arlotako ordezkariak daude.

Bada, halaber, Euskadiko Apustuen Batzorde bat, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Apustuen Erregelamendua onesten duen apirilaren 19ko 95/2005 Dekretuaren arabera sortua. Apustuen jokoaren garapenean jardunbide egokiak zaintzeaz arduratzen da Batzorde hori, proposamenen azterketa, debatea eta elaborazioa barne, joko modalitate horretan sor daitezkeen gatazkak konpontzeko.

### 5.7. Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordea

Kontsulta-organo bat da Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordea, bide-segurtasunean eragiten duten eskumenak egikaritzen duten Administrazio Publikoen koordinazioa errazteaz arduratzen dena, baita bide-segurtasunaren hobekuntza bultzatzeaz ere, trafikoarekin eta bide-segurtasunarekin lotutako erakunde publiko eta pribatuen elkartze eta parte-hartzearen bidez.

## c. Partaidetza-organoak

### 5.8. Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseilua

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseilua EAEko kontsulta- eta partaidetza-organo gorena da, eta helburutzat ideia eta esperientziak trukatzea du segurtasun publikoaren politikan inplikatutako eta hark eraginpean hartutako entitate eta erakunde guztien jardunetan koherentzia bultzatzeko. Organo honek, segurtasunean parte hartzeko tokiko kontseiluekin batera, administrazio publikoek, agintariek, polizia-kidegoek eta segurtasunarekin lotutako gainerako zerbitzu publikoek segurtasun publikoaren politiken diseinuan, aplikazioan eta ebaluazioan parte hartzea ahalbidetzen du.

Indarreko legeriak honako sektore hauetan ezartzen dituen organoen eginkizun eta eskumenak aparte utzi gabe egiten dira bere gain hartzen dituen eginkizunak: segurtasun publikoa eta polizia, zori-jokoak, ikuskizunak eta jolas-jarduerak, larrialdiak eta babes zibila, larrialdiak eta babes zibila, trafikoa eta bide-segurtasuna, eta segurtasun pribatua.

Honako hauek dira Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren eginkizunak, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 8. artikuluaren bigarren idatz-zatiari jarraiki:

- Euskadiko segurtasun publikoaren egoera orokorra analizatu, aztertu eta ebaluatzea, segurtasunaren inguruan nabarmenenak diren erreferenteetatik abiatuta, EAEko segurtasun publikoaren sisteman sartuta dauden zerbitzuei egoera zehatz eta baloragarrien gainean eragiteko aukera emango dieten jokabideen azterlanak eta egoeren analisiak sustatuz.
- Herritarren arteko elkarbizitza baketsua asaldaraz dezaketen faktoreen jarraipena egitea, hala nola terrorismoa, kaleko bortizkeria eta talde-bortizkeria eta antzeko talde edo fenomenoak, genero-bortizkeria, xenofobia edo arrazismoa, herritarrak edo gizarteko baliorik funtsezkoenak arriskuan jar ditzaketen gatazkak eta arriskuak prebenitze aldera.
- Segurtasun-egoera hobetzeko neurri orokorrak sustatzea eta segurtasun publikoarekin zerikusia duten herri-administrazio batzuek eta besteek ematen dituzten zerbitzuak hobetzeko ekimenak bultzatzea.
- Euskadiko segurtasun publikoaren plan orokorrari buruzko txostena egitea.

Kontseilu horren kide izango dira, gutxienez, honako ordezkari hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa (segurtasun publikoaren eskumena duen saila ere nahitaez sartzen da haren ordezkaritzan), Estatuko Administrazio Orokorra, Toki Administrazioa, Foru Administrazioa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

***Epaileen, Ministerio Fiskalaren eta Euskal Poliziaren koordinazioko lantaldea.***

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren jardun-esparruaren barruan aurreikusita dago lantaldeak sortzea segurtasun publikoaren sektore-politikak garatzeko, eta haietako bat da koordinazio-kanalak ezartzea autonomia-erkidego osoan epaileen, Ministerio Fiskalaren eta Euskal Poliziaren artean. Aldez aurretik, hiru hilean behin bilera bat egitea ezarri da, aldizkakotasunari dagokionez.

***Azpiegitura kritikoen lantaldea***

Sail arteko beste lantalde bat sortuko da azpiegitura kritikoen babes-jarduerak koordinatzeko eta gainbegiratzeko.

## 5.9. Segurtasun Pribatuko Batzorde Mistoa

Euskadiko Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzordeari dagokio arlo honetan inplikatutako sektoreen koordinazioa sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan, bereziki honako eginkizun hauek garatuta:

a. Segurtasun publikoan eskuduna den sailari aholku ematea segurtasun pribatuari buruzko indarreko araudiaren aplikazioko, garapeneko eta izaera osagarriko koordinazioko irizpide orokorrei buruz.

b. Administrazio-jardunak homogeneizatzeko irizpideak proposatzea, beharrezkoak direnean.

c. Batzordean ordezkatuta dauden sektoreen esperientziak trukatzea eta segurtasun pribatuaren xede den delinkuentziaren aurka borrokatzeko prozedura-proposamenak egitea.

d. Segurtasun-neurrietan izaten diren aurrerapen teknikoak ezagutzea eta haiei buruz informatzea, eta, kasuan kasu, egun daudenak ordezka ditzaketenak.

e. Enpresak eta segurtasun pribatuko langileak Ertzaintzarekin –eta, kasuan kasu, gainerako segurtasun-indar eta -kidegoekin– koordinatzeko irizpideak proposatzea.

f. Segurtasun pribatuko langileen prestakuntza-jarduerak aztertzea, balioestea eta, kasuan kasu, proposatzea.

g. Sektorea eraginpean har dezaketen arau-proiektuei buruz kontsultatua izatea.

h. Segurtasun publikoan eskuduna den sailari aurkeztea egoki iritzitako edo hark eskatutako txostenak, haren eskumen-esparruan.

Ordezkari instituzionalak (Eusko Jaurlaritza, Ertzaintza) eta legez segurtasun-neurriak jarri behar dituzten establezimenduen, segurtasun-enpresen, segurtasun pribatuko langileen eta segurtasun pribatuko langileen prestakuntza-zentroen ordezkariak ditu Batzorde honek

## 5.10. Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa - Ekinbide

Ertzaintzak ematen dituen zerbitzuak hobetzeko herritarren ekimenak jasotzeaz, aztertzeaz eta bultzatzeaz arduratzen den Segurtasun Saileko organoa da EKINBIDE.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemak herritarren ekimenak biltzen ditu informazio-iturri garrantzitsu gisa segurtasun publikoaren zerbitzuen kalitatea hobetzeko. Horrela, herritarren pertzepzio positibo eta negatiboak ezagutzea ahalbidetuko duten herritarren partaidetza-ildoen garapenean lan egiten du Ekinbidek, pertzepzio horiek kontuan hartzeko Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema osatzen duten agenteen jardunean, pertzepzio horiek dokumentu estrategikoetan txertatzea barne, hala nola Plan honetan.

Ekinbide Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa ekainaren 28ko 15/2012 Legearen eta bere antolamendua eta funtzionamendua arautzen duen azaroaren 14ko 227/2000 Dekretuaren arabera sortu zen, eta eremu partizipatibo bat sortzea ahalbidetzen du, gizarte-errealitateari buruzko ezaguera handiagoa ematen duena, polizia-jarduna herritarrengana hurbilduz eta zerbitzua herritarrek adierazitako kezketara egokituta, hori guztia Ertzaintzak emandako zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.

Honako hauek dira Ekinbide Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoaren eginkizunak:

- Polizia-zerbitzua hobetzeari buruzko ekimenak jasotzea, aztertzea eta bultzatzea, betiere herritarrek aurkeztutakoak badira.
- Polizia-zerbitzua hobetzeko neurriak proposatzea Segurtasuneko sailburuordeari aurkeztutako ekimenak ikusita.
- Azterlanak eta proposamenak egitea polizia-zerbitzua hobetzeko neurriak hartzeko, Segurtasun Saileko organo eskudunek hala agintzen diotenean.
- Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea, hark hala eskatzen dionean, esleituta dituen atribuzioen egikaritzapenean.
- Polizia-zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko interesgarritzat iritzitako aurreko ataletan deskribatutako eginkizunekin lotutako jarduerak egitea, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzaren atribuzioen barruan.

Ondorengo grafikoen bidez erakusten dira Ekinbidek 2012. eta 2013. urteetan egindako izapideei buruzko datu nabarmenak.

**52. grafikoa: Ekinbidek izapidetutako espedienteen kopurua, tipologiaren arabera. 2012. eta 2013. urteak**




Iturria: Ekinbide Polizia Zerbitzuak Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa

**53. grafikoa: Ekinbidek izapidetutako kexen arrazoiak. 2013. urtea**




Iturria: Ekinbide Polizia Zerbitzuak Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa

2013. urtean Ekinbidek izapidetutako espedienteen kopurua % 25 gehitu zen, herritarrek proposatutako 321 ekimenetara iritsita, aurreko urteko 256 ekimenekin alderatuta. 2013. urterako, kasuen % 92 inguru herritarrek adierazitako kexekin lotuta dago, atzetik eskaerak (% 5), iradokizunak (% 2) eta beste batzuk (% 1 baino gutxiago) daudela. Izapidetutako kexen arrazoiei dagokienez, % 55 trafiko-jardunekin, salaketen arretarekin eta tratu desegokiarekin lotuta dago.

Gaur egun, Euskadiko Segurtasun Saila Gida Plan bat lantzen ari da, eta bertan zehazten denez, Ekinbide Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa izango da.

## d. Lankidetza-hitzarmen eta -protokoloak

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak lankidetzako zenbait hitzarmen eta protokolo ditu maila desberdinetan, eta lau talde handitan sailkatuta daude: Lankidetza-hitzarmenak Segurtasun Sailaren eta udalen artean; Ertzaintzak eta udaltzaingoek izenpetutako protokoloak; udalek, Ertzaintzak, eta mankomunitateetako eta Osakidetzako ordezkariek sinatutako erakunde arteko protokoloak indarkeria sexistaren biktimen arloan eta sektore-gaietan sinatutako hitzarmenak.

Sailak eta udalek sinatutako akordioak polizia-koordinazioaren eta -lankidetzaren arloko hitzarmenak dira gehienbat, hala nola Irrati Mugikorreko Sare Digitalera sartzeko TETRA hitzarmena (45 udalek sinatutakoa), baita administrazioko arau-hausteei dagokionez ere, droga tokikoak, estupefazienteak eta substantzia psikotropikoak zilegi ez den moduan edukitzearekin eta haiek kontsumitzearekin lotutakoa badira, betiere gutxienez 50.000 biztanle dituzten herriak badira (4 udalerrirekin izenpetutako hitzarmena).

Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko protokoloetan, eskumenak banatzeko protokoloak nabarmentzen dira (39 udalerritako udaltzaingoak), trafiko-arloan eskumenak koordinatzeko protokoloak (39 udalerri), etxeko edota generoko indarkeriaren arloko koordinazio-protokoloak (26 udalerri) eta droga toxikoak, estupefazienteak eta substantzia psikotropikoak zilegi ez den moduan edukitzearekin eta haiek jendaurrean kontsumitzearekin lotutako administrazio arau-hausteen arloko jardun-protokoloak.

Sektorialagoak diren gaietan izenpetutako protokoloei dagokienez, azpimarratzekoak dira ikastetxeetako instalazioetako ekintza bandalikoen arloko jardun-protokoloak, eta polizia zientifikoaren arloko lankidetza akordioak.

Ondorengo taulak Segurtasun Sailak eta EAEko beste erakunde batzuk sinatutako lankidetza-hitzarmen eta -protokoloak erakusten ditu:

## 51. grafikoa: Segurtasun Sailaren lankidetza-hitzarmen eta -protokoloak EAEn

| ÁREA FUNCIONAL | ASUNTO | INSTITUCIÓN |
|---|---|---|
| VG/VD | Convenio en materia de la primera acogida a mujeres víctimas explotación sexual. (ELN-003/2011-IV). | Askabide |
| | Convenio en materia de Berdinsarea (ELN-030/2011-V) y (ELN-015/2012-V). | Emakunde y Eudel |
| | Convenio en materia de políticas de Igualdad en municipios de menor tamaño (ELN-064/2011-V) y (EXP.: ELN-032/2012). | |
| | Convenio sobre la concreción del ámbito de actuación (EXP.: ELN-014/2010-V) (CONS. GOB. 5-10-2010). | Emakunde – Instituto Vasco de la mujer |
| | Convenio en materia de cooperación entre los servicios de la Ertzaintza y los servicios sociales municipales (ayuntamientos de menos de 20.000 habitantes). | Eudel |
| | Convenio sobre el intercambio información de exp. de violencia de género. (ELN-031/2011-V). | Lanbide |
| | Convenio en materia de Telf. 016 Violencia de Género. (ELN-049/2000-V). | Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad |
| | Convenio para la realización de programas de reeducación de maltratadores. (EXP.: ELN-058/2010-XI) (CONS. GOB. 28-9-2010). | Ministerio del Interior y del Ministerio de Igualdad |
| | Convenio en materia de Violencia de Género. (ELN-034/2012-V). | Unión Cerrajero de Seguridad |
| Coordinación de Seguridad | Convenio de colaboración de CAPV en materia de coordinación y cooperación policial (Convenio TETRA de acceso a la Red Digital de Radio Móvil) - Resolución 19/2011, de 16 de marzo, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento. (BOPV 62 /2011) | Ayuntamientos de: Amurrio, Laudio, Vitoria – Gasteiz, Abanto-Zierbena, Amorebieta, Arrigorriaga, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Durango, Elorrio, Erandio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Gernika, Getxo, Gorliz, Güeñes, Leioa, Lekeitio, Mungia, Muskiz, Ondarroa, Ortuella, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran, Ugao, Zalla, Andoain, Astigarraga, Beasain, Donostia, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Irún, Lazkao, Legazpi, Ordizia, Zumarraga |
| | Convenio interinstitucional Red Tetra | Diputación Foral de Bizkaia, Diputación Foral de Araba, Diputación Foral de Gipuzkoa, EUDEL |
| | Convenio de colaboración de la CAPV y los Ayuntamientos de esta Comunidad con población igual o superior a 50.000 habitantes en materia de infracciones administrativas, relacionadas con la tenencia ilícita y consumo de drogas tóxicas, estupefacientes y sustancias psicotrópicas (no publicado en el Boletín) | Ayuntamientos de Barakaldo, Getxo, Irún y Donostia |
| | Convenio de colaboración entre el ayuntamiento de Lezo y Oiartzun para la prestación de Servicio Nocturno | Ayuntamientos de Lezo y Oiartzun |
| | Convenio en materia de cesión datos para la elaboración de acreditaciones policiales | Ayuntamiento de Vitoria |
| | Convenio para el desarrollo de la Red de Municipios Vasco por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres Berdinsarea (EXP.: ELN-048/09-V) (CONS. GOB. 20-7-2010) | Emakunde – Instituto Vasco de la Mujer- y Eudel |
| | Convenio en materia de Policías Locales (EXP.: ELN-023/2010-I) | Eudel |
| | Convenio de colaboración entre a dirección de coordinación de Policías Locales y Seguridad Privada y la Dirección de Coordinación de Seguridad, con encomienda a la Unidad de Servicios de la División de Inspección y Administración, para la elaboración de la acreditación y documentación profesional de los agentes pertenecientes a los cuerpos de Policía Local del País Vasco. | Policía Locales, Dirección de Coordinación de Seguridad, Unidad de Servicios |
| | Convenio, sobre constitución de la Comisión de Coordinación de la Ertzaintza y el Cuerpo de Policía Local del Ayuntamiento | Ayuntamiento de Bilbao, Donostia y Vitoria |
| Emergencias | Convenio en materia de colaboración en gestión de emergencias | Ayuntamientos de Santurtzi, Donostia, Vitoria,<br>Diputación Foral de Gipuzkoa, Álava y Bizkaia<br>Cruz Roja, Dya, Federación Vasca de Montaña, Iberdrola, Ministerio del Interior, Repsol Butano |
| | Convenio de Colaboración en materia de Emergencias y Protección Civil | CCAA, Comité Autonómico de Cruz Roja, Cruz Roja |
| | Convenio de colaboración en materia de la Plataforma Oceonagráfica | Ayuntamiento de Donostia |
| | Convenio con el Consejo de Seguridad Nuclear en materia de planificación, preparación y respuesta ante situaciones de emergencia radiológicas | Consejo de Seguridad Nuclear |
| | Convenio de colaboración entre el Departamento de Interior y la Euskal Espeologoen Elkargoa - unión de Espeleólogos Vascos | Unión de Espeólogos Vasco |
| | Convenio de colaboración para la colaboración en actividades de Protección Civil | Federación Euskal Dya |
| | Convenio de colaboración con el Departamento de Seguridad | Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi |
| | Convenio en materia de colaboración en gestión de emergencias en túneles | Interbiak |
| | Convenio de colaboración en materia de emergencias en la variante sur, fase 1ª | Interbiak, Diputación Foral de Bizkaia |
| | Convenio de colaboración en materia de desarrollo de un puesto de mando avanzado | La Caixa |
| Ertzaintza | Protocolo de coordinación para la eficacia de la ley de medidas de protección integral contra la violencia de género y de la orden de protección de las víctimas de la violencia doméstica | Ayuntamientos y Policía Local de Balmaseda, Güeñes, Zalla, Basauri,Etxebarri-Donezt. Elizatea, Bilbao, Amorebieta-Echano, Durango, Iurreta, Derio, Erandio, Leioa, Sondita, Arrigorriaga, Galdakao, Ugao-Miraballes, Gernika, Mungia, Bermeo, Bakio, Berango, Getxo, Plentzia, Sopelana, Portugalete, Santurtzi, Ortuella, Abanto y Zierbena, Muskiz, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Barakaldo, Sestao, Valle de Trapaga-Trapagaran.<br>Bergara, Soraluce, Elgeta, Salinas/gaintza, Antzuola, Donosita-San Sebastián, Eibar, Ermua, Deba, Mendaro, Elgoibar,Usúrbil, Irán, Hondarribia, Renteria, Zarautz, Zumaia, Urola garaia:Ezkio-itxaso, Legazpi, Urretxu, Zumárraga,<br>Laudio, Vitoria-Gasteiz.<br>Mancomunidades de Arratia, Busturialdea Duranguesado, Uribekosta |
| | Convenio en materia de Policía Portuaria | Autoridad Portuaria de Bilbao y Pasaia |
| | Convenio de colaboración por el que se establecen formas de cooperación entre los servicios de la Ertzaintza y los servicios sociales municipales | Ayuntamiento de Barakaldo y Getxo |
| | Convenio sobre la cooperación en el campo policial entre el Ministerio del Interior Bávaro y el Departamento de Interior del País Vasco | Ministerio de Interior Bávaro |
| | Convenio en materia de seguridad | BEC, Eitb, ETS, Eusko Trenbidea, Lanbide, Metro Bilbao, ONCE, UPV |
| | Convenio para acceder a información registral gratuita por vía telemática | Colegio Registradores Propiedad Mercantil |
| | Convenio en materia de Emergencia Radiológica | Consejo Seguridad Nuclear |
| | Convenio en materia de uso de la infraestructura radioeléctrica | Consorcio de Aguas |
| | Convenio colaboración entre departamento de justicia y empleo y seguridad social y metro bilbao | Departamento Justicia empleo y seguridad social |
| | Convenio en materia de pornografía infantil en internet y lucha contra la pederastia | Fundación Alia « |
| | Convenio para el análisis, custodia y destrucción de drogas, estupefacientes y sustancias psicotrópicas por laboratorios de la Ertzaintza o de sus servicios auxiliares | Ministerio de Sanidad y Consumo |
| Formación | Convenio sobre la educación para la movilidad segura | Axa Seguros Generales y Aesleme |
| | Convenio en relación a facilitar la presencia de los alumnos de la Escuela de Práctica Jurídica en las dependencias del Departamento de Seguridad | Colegio de Abogados de Bizkaia |
| | Convenio marco de colaboración | Fundación Tecnalia Research & Innovation |
| | Convenio en materia de la campaña de adolescentes para prevenir el fanatismo | Fundación víctimas del terrorismo |
| | Convenio en materia de formación de seguridad | Metro Bilbao |
| | Convenio en materia de master en intervención en violencia contra las mujeres | Universidad de Deusto |
| | Convenio en materia de Master en Igualdad (ELN-039/2010-XII) | Universidad de Deusto |
| | Convenio para la docencia práctica del alumnado del grado de criminología | UPV |
| | Convenio marco de colaboración en materia de seguridad en la UPV | |
| | Convenio en materia de título graduación en Criminología | |
| | Convenio en materia de la evaluación factores psicosociales vinculados al maltrato y validación concurrente del riesgo evaluado | |
| | Convenio en materia de título graduado en gestión de emergencias | UPV – Academia de policía |
| | Convenio de colaboración entre el Departamento de Seguridad, la UPV/EHU y el IVAC-KREI | UPV, IVAC |
| Juego y Espectáculos | Convenio para la prevención de comportamientos violentos, intolerantes, xenófobos y racistas en los encuentros de fútbol celebrados en el estadio de San Mamés (EXP.: ELN-020/2010-IV). | Athletic Club |
| Tráfico | Convenio para el intercambio de datos e información | Diputación Foral de Araba, Diputaciones Foral de Bizkaia, Diputación Foral de Gipuzkoa |
| | Convenio en materia de gestión de tráfico A-8 y construcción variante sur (ELN-051/2010-I) | Diputación Foral de Bizkaia |
| | Convenio de colaboración sobre acceso de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca a los registros de vehículos y personas del Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico | Dirección General de Tráfico del Ministerio del Interior |
| | Convenio de colaboración en materia de tráfico | Asociación de municipios vasco EUDEL |
| | Convenio en materia de información de tráfico. (ELN-075/2011-XI) | Fundación RACC |
| | Convenio en materia de tráfico y seguridad vial (ELN-020/2009) | Ministerio del Interior |
| Otros | Convenio de colaboración, para la coordinación y refuerzo del Servicio Vasco de Intérpretes de lengua de signos en la CAPV | Federación Vasca de Asociaciones de Personas Sordas-Euskal Gorrak – Dpto. Vivienda y Asuntos Sociales |
| | Convenio de colaboración para la instalación de un dispositivo de lanzamiento de globos sonda | Sociedad de Ciencias Aranzadi y la Asociación Elai Bird Migration Center |
| | Convenio para el desarrollo del proyecto "la casa de la paz y los derechos humanos". (EXP.: ELN-041/2010-XXIV) (CONS. GOB. 13-7-2010). | Ayuntamiento de Donostia |

Iturria: Segurtasun Koordinatzeko Zuzendaritza – Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

## e. Lankidetza-hitzarmenak komunikazioak koordinatzeko arloan

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak Irratikomunikazio Mugikorren Sare Digital bat dauka, TETRA teknologia estandarrean oinarritutakoa, ahots- eta datu-komunikazioen zerbitzuak eskaintzen dizkiena Segurtasun eta Larrialdi Publikoaren esparruko erabiltzaileei. Irratikomunikazio Mugikorren Sare Digitala Segurtasun Sailaren Komunikazio Sarea eusten duen zerbitzuetako bat da, eta EAEn dauden estazio base transmisore/hartzaileei konexioa izatea ahalbidetzen die kommutazio-zentro erredundanteekin, gaur egun Erandion eta Gasteizen kokatuta daudenekin.

Eusko Jaurlaritzak uste du komunikazio-azpiegitura hori tresna egokia dela, haren segurtasunarengatik eta eraginkortasunarengatik, elkarrekiko informazioa eta jardun bateratua ahalbidetzeko polizia-kidego guztien artean, jardunen bikoiztasuna saihesteko eta kidego horien baliabide operatiboak optimizatzeko.

Horregatik, udaltzaingoak sarera gaineratzearen aldeko apustua egin du Segurtasun Sailak administrazio orokorraren eta EAEko udalen lankidetza-hitzarmenen bidez, polizia-koordinazioaren - eta -lankidetzaren arloan. Hitzarmenen helburua da komunikazioa lortzea Ertzaintzaren eta sinatu den udaletako udaltzaingoen artean, udal horiek TETRA komunikazio-sarean integratuta, Segurtasun Sailak kudeatutakoan.

Eusko Jaurlaritzak doan ematen die sarbidea bere sarera hitzarmena sinatu duten udaletako udaltzaingoei polizia-zerbitzuari berez dagozkion atribuzioak egikaritzeko beharrezkoak diren komunikazioetarako, TETRAn integratzeko beharrekoak diren komunikazio-ekipoak eskuratzea udalei badagokie ere. Era berean, sinatu duen udaleko udaltzaingoa komunikazio-sarean integratzea errazteko, EAEko Administrazio Orokorrak, Segurtasun Sailaren bidez, oinarri-estazio batekin hornituko du udala.

Bestalde, Udalak honako hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- Behar dituen langileak prest izatea estazioa erabiltzeko
- Haren instalazioek eta mantentzeak eragindako gastuak ordaintzea
- Segurtasun-neurri nahikoekin zaintzea, eta lagatako ekipoa ordezteko ardura bere gain hartuta hura hondatzen bada, lapurtzen badute edo galtzen bada
- Erabilera normalarengatik, erruagatik edo zabarkeriagatik eragindako matxurak konpontzea

Inplikatutako zatiek konpromisoa hartzen dute egoki iritzitako proposamen eta programak ezartzeko hitzarmena behar bezala aplikatzen dela ziurtatze aldera, eta, azken batean, polizia-koordinazioko eta -lankidetzako sistemaren funtzionamendu eraginkorra. Horretarako, erabaki dute Jarraipen Batzorde bat hautatzea, eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko ordezkari batek eta sinatzen duen udalaren beste batek osatuko dute. Batzorde hori arduratuko da hitzarmenaren interpretazioan sortzen diren zalantzak ebazten, haren egikaritzapenean gerta daitezkeen desadostasunak konpontzen, hitzarmena nola doan berrikusten eta, hala

badagokio, hitzarmena hobetzeko proposamena lantzen. Sinatzen duen alderdietako batek eskatzen duen bakoitzean bilduko da Batzordea eta, gutxienez, urtean behin.

Era berean, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema osatzen eta eratzen duten instituzio, erakunde eta zerbitzuak Segurtasun Sailaren Irratikomunikazioen Sare Digitalean bilduta daude. Ekipamendu finkoak eta terminal eramangarriak dagokien programazioarekin aurrez ezarritako flota-planen arabera hedatzeak informazioa trukatzea ahalbidetzen du, erakunde- edota lurralde-esparruetako baliabideen artean eta SOS-Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen artean.

Irratikomunikazio-sarean bilduta dauden Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren erabiltzaileak honako hauek dira:

- Udal Larrialdiko Sarea ULS. Udalak
- Udalaren Babes Zibileko Boluntarioen Taldeak
- Industria Larrialdiko Sarea, ILS (SEVESO enpresak)
- Ertzaintza
- SEIS (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak , Gasteizko Udala, Donostiako Udala)
- Foru Aldundietako Mendi Zerbitzuak
- Bide, portu eta aireportuetako azpiegiturak, RETRA
- Larrialdiei urgentziaz aurre egiteko zerbitzuaren sarea-Osakidetza
- Segurtasun Sailarekin hitzartutako taldeak: Gurutze Gorria, DYA, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, Euskal Mendizale Federakuntza, Euskal Espeleologia Laguntzako Taldea
- Hondartza-sarea
- Aginte-sarea

## 6. Ardatz eta helburu estrategikoak

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrak segurtasunaren ikuspegi osoa eman nahi du, bere helburu estrategikoak eta jardun-ildoak definituta arrisku eta mehatxuen analisiaren emaitzetan eta gaur egun segurtasun publikoaren euskal sisteman dauden bitarteko, baliabide eta mekanismoen azterketan oinarrituta.

Helburuen eta ildo estrategikoen aukeraketa ikuspuntu errealista eta egingarri batetik gauzatzen da, aurrekontuan aurreikusita planean programatutako ekintza guztien kostua eta Segurtasun Sailaren organo bakoitzak garatu beharreko jardun-ildo zehatzak kokatuz, berez edo beste batzuekin elkarlanean, segurtasun-premiei erantzun jakina emateko.

Plana 5 ardatzetan artikulatzen da dagozkion ildo eta helburu estrategikoekin, zenbait ekintzatan banakatuta, eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren jarduera gidatuko dute.

Planaren oinarri gisa azpimarratzekoa da lehenengo ardatza, herritarrentzako zerbitzuei eskainitakoak, haren aldean gainerakoak osagarriak eta instrumentalak baitira Planaren azken helburuarekiko, hau da, herritarrek eskubide eta askatasunak libreki egikaritzea ahalbidetzen duten baldintza objektiboak berrestea, haiek segurtasunari buruz duten pertzepzioa gehitzeko moduan betiere.

Ardatz bakoitzean zenbait ildo estrategiko biltzen dira, lanaren orientazioa zehaztu eta atzemandako premiei erantzun behar dieten ekintzak biltzen dituztenak. Planaren ebaluazioa helburu estrategikoen lorpenean finkatuko da, ekintzen inpaktua bilatuta helburu bakoitzaren esparru propioen hobekuntzan, eta ez ekintzen burutzapenean kuantifikatutako jarraipenean.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrak bere helburu estrategikoen artean biltzen ditu segurtasun-arloko sektore-plangintzarenak, eta zentzu horretan, barnean hartzen du Euskadiko bide-segurtasuneko plan estrategikoaren elaborazioa eta babes zibileko planeamendu-tresnen eguneratzea.

Azkenik, egin daitezkeen udal-arloko segurtasun-planen edo udalez haraindiko beste plan batzuen ondorengo elaborazioa nolabaiteko malgutasunez har dezakeen plan bat da, eta, hain zuzen ere, plan orokorrean abiatuta bultzatu behar dira. Hori horrela, plan horiek, hurbilagoko jardunari eta premia zehatzak konpontzeari bideratutakoek, partaidetzako eta ingurunearen analisiko jarraibideei eusten diete, erlazio- eta koordinazio-esparru bat osatzen dutenak sektore-planen artean eta eragile guztiak orientatzea eta erlazionatzea ahalbidetuko dutenak herritarrentzako segurtasun-zerbitzuan.

**54. grafikoa: Ardatz eta ildo estrategikoak**

| Ejes | Líneas Estratégicas |
|---|---|
| **Eje 1**<br>Servicio a la ciudadanía | **1.1** Alcanzar en la Ertzaintza un alto nivel de reconocimiento social por la cercanía y eficacia<br>**1.2** Ofrecer un servicio basado en la prevención activa y apoyado en una inteligencia e investigación criminal<br>**1.3** Mejora de la atención prestada al ciudadano y las condiciones de seguridad de sus establecimientos<br>**1.4** Mejora de la Seguridad de los locales de espectáculos y actividades recreativas<br>**1.5** Erradicación de la violencia, las expresiones de racismo, xenofobia y, en general, las actitudes de intolerancia en el deporte<br>**1.6** Colaboración y coordinación con agentes externos<br>**1.7** Prevención de la violencia contra las mujeres |
| **Eje 2**<br>Planificación | **2.1** Alcanzar en la Ertzaintza un alto nivel de reconocimiento social por la cercanía y eficacia<br>**2.2** Ofrecer un servicio basado en la prevención activa y apoyado en una inteligencia e investigación criminal eficientes<br>**2.3** Incorporar a la gestión de la Ertzaintza la mejora continua y la colaboración con otros para adaptar su respuesta a las nuevas necesidades<br>**2.4** Compromiso y cohesión interna de las personas que forman la Ertzaintza<br>**2.5** Actualización de la planificación en materia de Protección Civil y Emergencias<br>**2.6** Visión Integral del Sistema de Juego de Euskadi<br>**2.7** Recogida e intercambio de datos y de información de tráfico<br>**2.8** Elaboración e implementación del Plan Estratégico de Seguridad Vial de Euskadi |
| **Eje 3**<br>Coordinación | **3.1** Ofrecer un servicio basado en la prevención activa y apoyado en una inteligencia e investigación criminal eficientes<br>**3.2** Incorporar a la gestión de la Ertzaintza la mejora continua y la colaboración con otros para adaptar su respuesta a las nuevas necesidades<br>**3.3** Compromiso y cohesión interna de las personas que forman la Ertzaintza<br>**3.4** Mejora de la coordinación de los servicios del Sistema Vasco de Atención de Emergencias y de las herramientas que la facilitan<br>**3.5** Establecer un Sistema de Coordinación de la Policía Vasca (Ertzaintza y Policías Locales / Udaltzaingoa)<br>**3.6** Complementarización con otras administraciones<br>**3.7** Organizar y gestionar la Oficina de Iniciativas Ciudadanas para la Mejora del Sistema de Seguridad Pública - Ekinbide<br>**3.8** Gestionar el Órgano Estadístico específico de Seguridad Pública |
| **Eje 4**<br>Formación | **4.1** Compromiso y cohesión interna de las personas que forman la Ertzaintza<br>**4.2** Formación en materia de Emergencias y Meteorología para los ciudadanos y para los servicios del Sistema Vasco de Atención de Emergencias<br>**4.3** Formación interna y externa en el área de Juego y Espectáculos<br>**4.4** Educación y Formación |
| **Eje 5**<br>Comunicación | **5.1** Alcanzar en la Ertzaintza un alto nivel de reconocimiento social por la cercanía y eficacia<br>**5.2** Incorporar a la gestión de la Ertzaintza la mejora continua y la colaboración con otros para adaptar su respuesta a las nuevas necesidades<br>**5.3** Compromiso y cohesión interna de las personas que forman la Ertzaintza<br>**5.4** Actualización de los sistemas y procedimientos de comunicación con el ciudadano<br>**5.5** Tramitación de denuncias y autorizaciones<br>**5.6** Información a la ciudadanía |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila.

| **1. ardatza** | Herritarrentzako zerbitzua |
|---|---|

**1.1 ildo estrategikoa:** Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **ERTZAINTZAREN PRESENTZIA UNIFORMATUA GEHITZEA EUSKADIKO LURRALDE OSOAN** | |
| | Deskribapena | Zeregin operatiboei eskainitako ehunekoa gehitu nahi du eta Ertzaintzaren agerikotasun orokorra ere bai, orain arte bigarren mailako helburu gisa kontuan hartutako inguruetan presentzia izanez, inguru horiek estrategikotzat hartutako delituetan inpaktu txikiago zutelako |
| | Ekintzak | • Unibertsitateen hornidura-irizpideak berrikustea<br>• Administrazio-zereginak murriztea eta egokitzea<br>• Landa-inguruneari arreta eskaintzea<br>• 53. jarraibidea berrikustea |
| | Unitate arduraduna | Ertzaintzaren Zuzendaritza |

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **SEGURTASUN SENTSAZIOA GEHITZEA** | |
| | Deskribapena | Segurtasun-sentsazioa hobetu nahi izatea Ertzaintzako langileen hurbiltasunaren, agerikotasunaren eta irisgarritasunaren arabera, baita prebentzio-jarduerak hobetu nahi izatea ere |
| | Ekintzak | • Oinezko patruilak, “korrikak”, gehitzea<br>• Prebentzio-sistemak indartzea<br>• Iritzi publikoen partaidetza gehitzea bitartekoen bidez<br>• Prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak sustatzea |
| | Unitate arduraduna | Ertzaintzaren Zuzendaritza |

| | |
|---|---|
| **1. ardatza** | Herritarrentzako zerbitzua |

**1.1 ildo estrategikoa:** Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **KONFIANTZA ETA LANKIDETZA HARREMANAK EZARTZEA HERRITARREKIN** | |
| | Deskribapena | Herritarrekin oro har harremanak hobetu nahi izatea balorazio sozial hobea lortzeko eta herritarren segurtasun- eta lankidetza-sentsazioa gehitzeko, eraginkortasuna hobetze aldera, bigarren maila batean bada ere |
| | Ekintzak | • Bizitza komunitarioan integratzea<br>• Euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzea<br>• Hizkera egokia erabiltzea<br>• Arreta pertsonalizatuan hobetzea<br>• Jakintza partekatzea (segurtasun-kanpainak) |
| | Unitate arduraduna | Ertzaintzaren Zuzendaritza |

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **HARREMAN SOZIALEN PROGRAMAK EZARTZEA** | |
| | Deskribapena | Polizia normalean iristen ez zaien kolektibo sozialengana iritsi nahi du eta bizitza sozialak ematen dituen aukera guztiak aprobetxatu Ertzaintzaren uniformeen presentzia normalizatzeko egoera ez-polizialetan |
| | Ekintzak | • Harremanak gaineratzea edozein motatako elkarteekin<br>• Presentzia ekitaldi sozial eta kulturaletan |
| | Unitate arduraduna | Ertzaintzaren Zuzendaritza |

| **1. ardatza** | Herritarrentzako zerbitzua |
|---|---|

**1.2 ildo estrategikoa:** Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **HERRITARRAK GAINERATZEA PROZESUEN ZATI NAGUSI GISA** | |
| | Deskribapena | Herritarren iritzia eta benetako premia eta espektatibak gaineratu nahi ditu segurtasun publikoaren politiken diseinuan |
| | Ekintzak | • Erantzun pertsonalizatuko jarraibideak diseinatzea<br>• Biktimarentzako arreta lehenestea |
| | Unitate arduraduna | Ertzaintzaren Zuzendaritza |

**1.3 ildo estrategikoa:** Herritarrei emandako arreta eta haien establezimenduen segurtasun-baldintzak hobetzen ditu

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **EUROPAR BATASUNAREN "ALDERANTZIZKO 112" EKIMENEAN SAKONTZEA** | |
| | Deskribapena | "112" zerbitzua proaktiboagoa izan dadila lortzea, herritarren eskariei eraginkortasunez erantzuteaz gain, herritarrei zuzenean eta bere ekimenez zuzentzeko moduan, haien segurtasunari dagokion guztian |
| | Ekintzak | • Twitter 112<br>• Dei masiboak<br>• Igorpen masiboko sistema eguneratzea (posta-e eta SMS)<br>• GIS korporatiboa zerbitzu operatiboetarako |
| | Unitate arduraduna | Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

| | |
|---|---|
| **1. ardatza** | Herritarrentzako zerbitzua |

**1.3 ildo estrategikoa:** Herritarrei emandako arreta eta haien establezimenduen segurtasun-baldintzak hobetzen ditu

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **TEKNIKARI ESKUDUNAK GAITZEKO AGINDUA KUDEATZEA** | |
| | Deskribapena | Teknikariak gaitzea EAEko Autobabes Planak burutzeko Autobabeseko Euskal Arauan bildutako eskakizunen arabera |
| | Ekintzak | • Prestakuntza-ikastaroak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin batera<br>• Gaikuntzen kontrola<br>• Datu base publikoa sortzea |
| | Unitate arduraduna | Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza |

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **LARRIALDI ZERBITZUEN AUTOBABES ETA BANAKETA PLANAK BULTZATZEA** | |
| | Deskribapena | Euskal Establezimenduetarako Autobabeseko Planen burutzapena zabaltzea eta plan horietan bildutako edukia EAEko Larrialdietako Zerbitzuei ematea (suhiltzaileak, Osakidetza, Ertzaintza) |
| | Ekintzak | • Informazio-hitzaldi eta -jardunaldiak<br>• Jarraipenak eta auditoriak<br>• Erregistro informatikoaren amaiera<br>• Arrisku kimikoa duten gertaeren jarraipen berezia |
| | Unitate arduraduna | Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza |

| **1. ardatza** | Herritarrentzako zerbitzua |
|---|---|

**1.4 ildo estrategikoa:** Ikuskizun eta jolas-jardueretako lokalen segurtasuna hobetzea

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **IKUSKIZUN ETA JOLAS JARDUERAK EGITEKO SEGURTASUN BALDINTZAK EZARTZEA** | |
| | Deskribapena | Arrisku-egoerak minimizatzea ikuskizun eta jolas-jardueretan |
| | Ekintzak | • Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege berria<br>• Legea garatzeko araudia onartzea (ikuskizunen erregelamendua)<br>• Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea komunikabideetan<br>• Antolatzaileentzako, lokalen titularrentzako eta enplegatutako langileentzako prestakuntza-ikastaroen garapena bultzatzea.<br>• Koordinazio-prozedurak onartzea Ertzaintzaren Zuzendaritzarekin segurtasun publikoa zein lokaleko segurtasuna bermatzeko kirol-ikuskizunak egiten diren edukiera handiko aretoetan.<br>• Ikuskapen-estandarrak sortzea. |
| | Unitate arduraduna | Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza |

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **TOKI ERAKUNDEEN ETA JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAREN ARTEKO ESKUMENAK BANATZEKO MEKANISMO ARGIAK EZARTZEA** | |
| | Deskribapena | Eskumen-banaketa argitzea eta Eusko Jaurlaritzaren eta toki-erakundeekin elkarrekin eta sintonian lan egitea |
| | Ekintzak | • Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege berria<br>• Eudelekin lantaldeak sortzeko aukera bultzatzea, gai erkideak jorratzeko bideratutakoak<br>• Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalen lizentzietarako neurri zuzentzaile edo baldintzatzaileak aplikatzeko prozedura onartzea, Ikuskizun eta Jolas Jardueren Legearen arabera. |

| **1. ardatza** | Herritarrentzako zerbitzua | |
|---|---|---|
| | Unitate arduraduna | Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza |

**1.4 ildo estrategikoa:** Ikuskizun eta jolas-jardueretako lokalen segurtasuna hobetzea

| | | |
|---|---|---|
| **Helburua** | **IKUSKIZUN ETA JOLAS JARDUERETAKO IKUSLEEN ESKUBIDEAK ARGI ZEHAZTEA** | |
| | Deskribapena | Ikuskizunen Legean bildutako ikusleen eskubideak garatu ea bultzatzea |
| | Ekintzak | • Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege berria garatzeko araudia onartzea<br>• Erreklamazio-orrien araubide bakarra bultzatzea<br>• Horrelako ekitaldietako erabiltzaileen eskubide eta betebeharren gutuna ezartzea<br>• Sarrera ukatzeko eskubidea egikaritzeko bermeak indartzea diskriminazio-egoerak saihesteko |
| | Unitate arduraduna | Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza |

Segurtasuneko sailburuordearen eskumena izango da plana koordinatzea, eta Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzaren bidez egikarituko da, zuzendaritzaren eginkizunen jardunean.

Barne-kudeaketako sistemari dagokionez, plan honek biltzen dituen ildo estrategikoak unitateen erantzukizunpean geratuko dira, ondorengo taulan erakusten denez.

**55. grafikoa: Unitatea arduradunak eta lotutako ildo estrategikoak**

| Unidad Responsable | Líneas estratégicas asociadas |
|---|---|
| Dirección de Coordinación de Seguridad | • Coordinar la ejecución e implantación del Plan de Seguridad Pública de Euskadi<br>• Establecer un Sistema de Coordinación de las Policías Locales<br>• Organizar y gestionar la Oficina de Iniciativas Ciudadanas para la Mejora del Sistema de Seguridad Pública – Ekinbide<br>• Gestionar el Órgano Estadístico específico de Seguridad Pública |
| Dirección de la Ertzaintza | • Alcanzar en la Ertzaintza un alto nivel de reconocimiento social por la cercanía y eficacia<br>• Ofrecer un servicio basado en la prevención activa y apoyado en una inteligencia e investigación criminal<br>• Incorporar a la gestión de la Ertzaintza la mejora continua y la colaboración con otros para adaptar su respuesta a las nuevas necesidades<br>• Trabajar con compromiso y cohesión interna<br>• Prevención de la violencia contra las mujeres |
| Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología | • Mejora de la atención prestada al ciudadano y las condiciones de seguridad de sus establecimientos<br>• Actualización de la planificación en materia de Protección Civil y Emergencias<br>• Mejora de la coordinación de los servicios del Sistema Vasco de Atención de Emergencias y de las herramientas que la facilitan<br>• Formación en materia de Emergencias y Meteorología para los ciudadanos y para los servicios del Sistema Vasco de Atención de Emergencias<br>• Actualización de los sistemas y procedimientos de comunicación con el ciudadano |
| Dirección de Juego y Espectáculos | • Mejora de la seguridad de los locales de espectáculos y actividades recreativas<br>• Erradicación de la violencia, las expresiones de racismo, xenofobia y , en general, las actitudes de intolerancia en el deporte<br>• Visión integral del sistema de juego de Euskadi<br>• Complementarización con otras administraciones<br>• Formación interna y externa en el área de Juego y Espectáculos |
| Dirección de Tráfico | • Colaboración y coordinación con agentes externos<br>• Recogida e intercambio de datos y de información<br>• Educación y formación<br>• Información a la ciudadanía<br>• Tramitación de denuncias y autorizaciones<br>• Elaboración e implementación del Plan Estratégico de Seguridad Vial de Euskadi |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila.

## 8. Ebaluazio- eta jarraipen-sistema

Plan honek biltzen dituen helburu eta erantzukizun bakoitzaren betetzea neurtzeko metodo eta estrategia berezien bidez ebaluatuko da, planaren aurrerapen-maila zehaztuko dutenak. Horrela, ildo estrategiko bakoitzean lortutako emaitzen jarraipen bat egingo da helburuen lorpenean izan daitezkeen desbideratze posibleak detektatu eta aurreikusteko, eta, horrenbestez, hobekuntzak identifikatzeko ezarritako ekintzetan. Ildo horretan, 2013ko ekainaren 11n onartutako X. Legegintzaldirako "Gobernuaren Plan Estrategikoak lantzeko eta izapidetzeko prozeduran" biltzen denez, planaren garapenaren ebaluazioko dinamika etengabe bat ezartzea planteatzen da:

- Jarraipeneko tarteko txostena, jardun-ildoa eta markatutako helburuetarako nola egokitzen den egiaztatzeko

- Azken txostena, planaren aldia bilduko duena eta hura amaitzean landuko dena eta emaitzak planaren ekintza-ildoei dagokienez balioetsiko dituena

Kontuan hartutako aldian planaren burutzapen-maila zehaztuko duten adierazleak aurkeztuko ditugu:

- Diziplina-espedienteak Ertzaintza osatzen duten pertsonen artean
- Ertzaintzaren alorrean herritarrengandik jasotako zorionak
- Ertzaintzaren barne-kanaletako iradokizun-indizea
- Ertzaintzaren plantillaren adin-batezbestekoa
- Laneko Giroko gogobetetze-maila eta inkesten kopurua
- Sarbide kopurua aplikazio informatiko berrietan
- Benchmarking ekintzen eta ikuskapenen ondorioz hasitako hobekuntza-ekintzen kopurua
- Ezarritako ekintza-planen ondoriozko ekintzen kopurua
- Udaltzaingoak emandako ziurtagirien kopurua
- Trafikoaren eta bide-segurtasunaren eremuko jardunen kopurua
- Kontaktu sozialen programei dagokienez kontaktatutako elkarteen kopurua
- Garatutako aplikazioetako baimenen kopurua
- Protokolo eta hainbat motatako akordio bidez lotutako udalen kopurua (edo ordezkatzen duten biztanleriaren ehunekoa)
- Segurtasun-kanpainen kopurua
- Bide-arloko ikastaro eta kanpainen kopurua
- Komunikazio kopurua salaketen eta baimenen izapidetzean
- Herritarrei eman beharreko informazioarekin lotutako konexioen kopurua
- Konferentzien, hitzaldien eta dibulgazio-jarduerako beste jarduera batzuen kopurua
- Kanpo-agenteekin egindako hitzarmen eta ekitaldien kopurua
- Beren salaketaren egoerari buruzko informazioa modu proaktiboan ematen zaien salatzaileen kopurua
- Trafikoarekin lotutako aplikazioen deskargen kopurua
- Hezkuntzari eta prestakuntzari buruzko elkarraldien kopurua

- Ertzaintzak uniformez jantzita parte hartzen duen ekitaldi sozialen kopurua
- Ekinbideren espedienteen kopurua
- Ertzainei zuzendutako prestakuntza-orduen kopurua
- Ertzaintzaren arloan bildutako eta ezarritako ideien kopurua
- Istripu-txostenen kopurua
- Txosten eta igorpenen kopurua datu- eta informazio-trukean
- Arau-hausteengatiko txosten eta administrazio-espedienteen kopurua. HSL - SPL
- Ikuskapenen kopurua barne-kontroleko zerbitzuen berrikuspenean eta egokitzapenean
- Jarraibideen kopurua kanpo-agenteekin izan beharreko lankidetzan eta koordinazioan
- "Itzalpeko faktura" egiten den polizia-operatiboen kopurua
- "Komunikazioagatiko prebentzioa" hitzaldietako parte-hartzaileen kopurua
- Prozesu- edo hobekuntza-taldeetan parte hartzen duten Ertzaintzatik kanpoko langileen kopurua
- Ertzain-etxeetan artatutako pertsonen kopurua (salbu eta 1. arrazoia, lana)
- Lehentasunezko jardueren taldeetan parte hartzen duten pertsonen kopurua
- Lankidetzaren arloan ohiko harreman edota kontaktu bidez lotutako polizien kopurua
- Hezkuntzari eta prestakuntzari buruzko elkarraldien kopurua
- Kexa eta erreklamazioen kopurua Ertzaintzaren barne-kontroleko zerbitzuei dagokienez
- Ertzaintzak enpresekin, klubekin eta abarrekin izandako harreman edota kontaktuen kopurua
- Ertzaintzak kanpo-erakundeekin izandako bileren kopurua
- Aplikazio berrien bidez izapidetutako zehapenen kopurua
- Bide-segurtasun eta mugikortasunaren behatokira egindako bisiten kopurua
- Bisiten kopurua polizia-aliantzen programei dagokionez
- Polizia-instalazioetara egindako bisiten kopurua
- Herritarrek egindako bisiten, deien, jarraitzaileen eta birtuiten kopurua
- Egikaritzapen-fasean dauden espedienteak dituzten Etxeko Indarkeriako / Genero Indarkeriako biktimen guztizko kopurua
- Sinatutako hitzarmenen kopurua eta hedadura
- Sinatutako polizia-lankidetzako protokolo bidez lotutako udaltzaingoa daukaten udalen ehunekoa
- Adituaren txosten positiboen ehunekoa
- Igorritako ebidentziak izan dituzten begi-ikuskapenen ehunekoa
- Lidertza-estilo berriarekin lotutako prestakuntza- eta ebaluazio-jardueretan parte hartzen duten buruen ehunekoa
- Emakumeen ehunekoa Ertzaintzan
- Lanaldi murriztua daukaten langileen ehunekoa
- Laguntza-zeregin ez-operatiboetan aritzen diren langileen ehunekoa
- Patruila-jardueretan dauden langileen ehunekoa
- Zerbitzu Aktibo Modulatuan dauden langileen ehunekoa
- Laneko Giroa Ebaluatzeko Planean parte hartzen duten langileen ehunekoa

- Prestakuntza jasotzen duten pertsonen kopurua
- Ertzaintzaren arloan iradokizunak aurkezten dituzte pertsonen kopurua
- Ertzaintzaren arloan onartutako eta ezarritako iradokizunen kopurua
- Laguntza-jarduerei eskainitako denboren ehunekoa
- Oinezko prebentiboetan emandako denboraren ehunekoa
- Prebentzio-zerbitzuetan emandako denboraren ehunekoa
- Begi-ikuskapenen ratioa izatezko egiaztapenen aurrean
- Patruila / ikerketa langileen ratioa
- Polizia/biztanle ratioa eta polizia/$Km^2$ ratioa
- Errekonozimenduak eta dominak Ertzaintzaren arloan
- Delitu-tasa eta delituak argitzeko tasa
- Heriotza-tasa, ezbehar kopuruaren tasa eta morbilitate-tasa
- Biktimizazio-tasak Segurtasun Publikoaren inkestan
- Ertzaintzaren balorazioa Segurtasun Publikoaren inkestan
- Hautemandako segurtasun-mailaren balorazioa Segurtasun Publikoaren inkestan

Datozen planei begira, inpaktu-adierazleen ezarpena aztertuko da, eta planaren ezarpenak jorratu beharreko premia edo arazo sozialean zer mailatan eragiten duten zehaztea ahalbidetuko dute adierazle horiek.

# 9. Planaren ildo ekonomikoak

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra behar bezala egikaritzeak eta abiarazteak ez du arrisku osagarririk eskatuko.  Helburuak lortu eta planteatutako ekintzak burutzeko, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak kontuan hartutako aldirako esleitu zaion aurrekontua izango du soilik, dagokion banaketarekin arloaren eta gastu-kapituluaren arabera.

Plan hau egikaritzeko eskuragarri dauden baliabideak urte bakoitzerako aurrekontu-esleipenaren baitan egongo denez, ez da posible hasitako urtea baino urte gehiago biltzen dituen aurrekontu-egutegi bat ezartzea.

**56. grafikoa: Aurrekontua banaketa-arloaren eta gastu-kapituluaren arabera. 2014. urtea**

**(Datuak Milioi EUROtan eta %-a guztizkoaren gain)**




**Total: 612,5 Mill EUR**




**Total: 612,5 Mill EUR**

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, 2014

# 10. Segurtasuneko Toki Planak egiteko norabideak

Segurtasuneko plan orokorrak metodologia bat ezarri behar du segurtasuneko toki-planak egiteko toki-esparruan segurtasuneko premia espezifikoei erantzute aldera eta, marko horretan, eragile guztien artean koordinazioa bultzatze aldera.

Dokumentu honetan ildo orokor batzuk aurkezten dira toki-planak lantzeko, nahitaez generikoak, zehatzagoak izan badaitezke ere udalerriei laguntzeko Segurtasun Saila bultzatzen ari den baliabideetan.

Hiru fase bereizi behar dira segurtasuneko toki-planaren sortze-prozesuan: hasierako edo prestaketako fasea, lantze-fasea eta ebaluazio-fasea.

Prestaketa

Ingurunearen ezaguera eta analisia du aztergai hasierako faseak, arriskuak eta segurtasun-premiak detektatzeko.

Analisi hori egiteko, eskueran dauden jakintza-iturriak behar dira, udalarenak berarenak zein lurraldean aritzen diren beste zerbitzu batzuenak (Ertzaintza, suhiltzaileak, babes zibila...). Toki-komunitateko kolektibo eta interes guztiak ordezkatzen dituzten herritarren elkarteen partaidetza ere kontuan hartu behar da.

Lehen fase honek jakintza eman behar du, eta horretan oinarrituta definituko dira helburu nagusiak eta artikulatu eta koordinatuko dira egoera guztiak.

Aurrekontuak lantzea

Bigarren fasea, segurtasuneko toki-plana egiteari dagokiona, segurtasunaren kudeaketan inplikatutako eragileak entzuten dituen lan-batzorde batean oinarrituta antolatu behar da: suhiltzaileen eta babes zibileko arduradunak, udal-zerbitzuen arduradunak, eskolen eta institutuen eta osasun-zentroen zuzendariak, eta abar.

Pertsonen zerbitzura bideratu behar dira planak eta jarduera guztiak bildu behar dituzte herritarren segurtasunaren, larrialdien eta bide-segurtasunaren arloetan, eta bizikidetza eraginpean hartzen duten gainerako arloetan. Ekintza errealistak definitu behar dituzte eta segurtasunaren kudeaketan inplikatutako guztien koordinazioa sustatu behar dute.

Ebaluazioa

Segurtasuneko toki-planek segurtasunaren bilakaera eta ezarritako neurrien inpaktua zein den jakitea ahalbidetzen duten jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak aurreikusi behar dituzte. Neurrien aplikazioaren jarraipena helburuak premietara egokitzea ahalbidetu behar du, plana pentsatua izan den ingurunearen bilakaeraren arabera.

# 11. Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorraren laburpen-taula

| Helburuak | Ekintzak |
|---|---|
| **1. ardatza:** Herritarrentzako zerbitzua | |
| **1.1 ildo estrategikoa:** Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik | |
| Ertzaintzaren presentzia uniformatua gehitzea Euskadiko lurralde osoan | Unibertsitateen hornidura-irizpideak berrikustea |
| | Administrazio-zereginak murriztea eta egokitzea |
| | Landa-inguruneari arreta eskaintzea |
| | 53. jarraibidea berrikustea |
| Segurtasun sentsazioa gehitzea | Oinezko patruilak, “korrikak”, gehitzea |
| | Prebentzio-sistemak indartzea |
| | Iritzi publikoen partaidetza gehitzea bitartekoen bidez |
| | Prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak sustatzea |
| Konfiantza- eta lankidetza-harremanak ezartzea herritarrekin | Bizitza komunitarioan integratzea |
| | Euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzea |
| | Hizkera egokia erabiltzea |
| | Arreta pertsonalizatuan hobetzea |
| | Jakintza partekatzea (segurtasun-kanpainak) |
| Harreman sozialen programak ezartzea | Harremanak gaineratzea edozein motatako elkarteekin |
| | Presentzia ekitaldi sozial eta kulturaletan |
| **1.2 ildo estrategikoa:** Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea | |
| Herritarrak gaineratzea prozesuen zati nagusi gisa | Erantzun pertsonalizatuko jarraibideak diseinatzea |
| | Biktimarentzako arreta lehenestea |
| **1.3 ildo estrategikoa:** Herritarrei emandako arreta eta haien establezimenduen segurtasun-baldintzak hobetzen ditu | |
| Europar Batasunaren "alderantzizko 112" ekimenean sakontzea | Twitter 112 |
| | Dei masiboak |
| | Igorpen masiboko sistema eguneratzea (posta-e eta SMS) |
| | GIS korporatiboa zerbitzu operatiboetarako |
| Teknikari eskudunak gaitzeko agindua kudeatzea | Prestakuntza-ikastaroak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin batera |
| | Gaikuntzen kontrola |
| | Datu base publikoa sortzea |
| Larrialdi zerbitzuen autobabes eta banaketa planak bultzatzea | Informazio-hitzaldi eta -jardunaldiak |
| | Jarraipenak eta auditoriak |
| | Erregistro informatikoaren amaiera |
| | Arrisku kimikoa duten gertaeren jarraipen berezia |
| **1.4 ildo estrategikoa:** Ikuskizun eta jolas-jardueretako lokalen segurtasuna hobetzea | |
| Ikuskizun eta jolas jarduerak egiteko segurtasun baldintzak ezartzea | Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege berria |
| | Legea garatzeko araudia onartzea (ikuskizunen erregelamendua) |
| | Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea komunikabideetan |
| | Antolatzaileentzako, lokalen titularrentzako eta enplegatutako langileentzako prestakuntza-ikastaroen garapena bultzatzea. |
| | Koordinazio-prozedurak onartzea Ertzaintzaren Zuzendaritzarekin segurtasun publikoa zein lokaleko segurtasuna bermatzeko kirol-ikuskizunak egiten diren edukiera handiko aretoetan. |
| | Ikuskapen-estandarrak sortzea. |
| Toki-erakundeen eta joko eta ikuskizun zuzendaritzaren arteko eskumenak banatzeko mekanismo argiak ezartzea | Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege berria |
| | Eudelekin lantaldeak sortzeko aukera bultzatzea, gai erkideak jorratzeko bideratutakoak |
| | Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalen lizentzietarako neurri zuzentzaile edo baldintzatzaileak aplikatzeko prozedura onartzea, Ikuskizun eta Jolas Jardueren Legearen arabera. |
| Ikuskizun eta jolas-jardueretako ikusleen eskubideak argi zehaztea | Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege berria garatzeko araudia onartzea |
| | Erreklamazio-orrien araubide bakarra bultzatzea |
| | Horrelako ekitaldietako erabiltzaileen eskubide eta betebeharren gutuna ezartzea |
| | Sarrera ukatzeko eskubidea egikaritzeko bermeak indartzea diskriminazio-egoerak saihesteko |
| **1.5 ildo estrategikoa:** Indarkeria, arrazismo-espresioak, xenofobia eta, oro har intolerantzia-jarrerak desagerraraztea kirolean | |
| Eragile guztien sentsibilizazioa | Interesa duten eragileei zabaldutako hitzarmen-marko bat ezartzea. |
| | Foroak bultzatzea eragile guztiekin |
| | Sentsibilizazio-kanpainak egitea joko garbia sustatzeko |

| Helburuak | Ekintzak |
|---|---|
| | Komunikazio-protokolo espezifikoak ezartzea arrisku bereziko partidatan klub interesdunak inplikatuta. |
| | Pertsona edo erakunde arduradunei zigortzea indarkeriako jarrerak, jarrera intoleranteak, eta abar, izateagatik. |
| | Kirol-aretoaren sartzeko debekua erabakitzea pertsona arau-hausle berrerorleentzat, neurri hori beteko dela ziurtatzen duten mekanismoak ezarrita. |
| | Pertsona arau-hausleak berrezteko mekanismoak ezartzea |
| **1.6 ildo estrategikoa:** Lankidetza eta koordinazioa kanpo-agenteekin | |
| Beste erakunde eskudun batzuekin lankidetzan aritzea eta bere lanak kanpo agenteekin koordinatzea trafiko eta errepideen arloan bide-segurtasuna kontrolatzeko eta zaintzeko duen eginkizuna betetzeko | Lankidetza-hitzarmenak lantzea trafiko-arloan Foru Aldundiekin eta autopistekin |
| | Lankidetza-mekanismoak ezartzea euskal udalekin |
| | Protokoloak ezartzea bide-segurtasunean inplikatutako Eusko Jaurlaritzaren sailekin |
| | Errepideen Europan zeharreko Sarean trafiko-informazioa trukatzeko hartzen eta egiten diren erabaki eta ekitaldietan lankidetzan aritzea eta parte hartzea |
| | Trafiko-kudeaketako eskumena garatzea eta jarraibideak idaztea |
| **1.7 ildo estrategikoa:** Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa | |
| Segurtasun-politiken esparruan ezartzea emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren arloko berdintasun-planaren ildo estrategikoak | Modu proaktiboan eta emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarrean ezarritako protokoloen araberakoan jarduten duten polizia-sistemaren profesionalen kopuru egokia izatea. |
| | Indarkeria-biktimei informazioa ematea haien babesa bermatzen duten segurtasun-zerbitzu eta -neurriei buruz |
| | Beharrezko baliabidea izatea arriskuko taldeetako edo diskriminazio anizkoitzeko egoeran dauden taldeetako kide izatearen ondoriozko premia-egoerei erantzuteko, edo beren kargura indarkeriaren biktima diren emakumeak, eta, bereziki, haien seme-alabak, dituzten pertsonen premia espezifikoak. |
| | Indarkeriaren biktima diren emakumeen eta, kasuan kasu, haien kargura dauden pertsonen babesa bermatzea. |
| **2. ardatza:** Plangintza | |
| **2.1 ildo estrategikoa:** Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik | |
| Ertzaintzaren egitura egokitzea | Egitura funtzionala deskribatzea: Atalak eta unitateak |
| | Aginte-egitura egokitzea |
| | Egitura-ordena premia aldakorretara egokitzea |
| | Lanpostu Zerrenda berregokitzea, kasuan kasu |
| Neurketa- eta kontrol-tresnak hobetzea | Aginte-koadro integrala ezartzea Ertzaintzarako |
| | REGAPak eta haien edukiak berrikustea |
| | Polizia-eredu berriarekin dauden adierazleak berrikustea eta lerrokatzea |
| **2.2 ildo estrategikoa:** Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea | |
| Prebentzio aktiboko prozesua eta jardunak definitzea | Prebentzio aktiboko kontzeptua definitzea |
| | Jardunak identifikatzea |
| | Aplikazio-prozesua garatzea |
| | Prebentziorako eraginkortasun-adierazleak definitzea |
| | Emaitza ebaluatzea eta hobekuntza ezartzea |
| Pertsona eta baliabideen kudeaketa arrazionalizatzea | Prebentzioko, ikerketako eta bestelako zerbitzu eta jardueren kostua ebaluatzea |
| Informazio egiturak egokitzea eta mehatxu berrietarantz bideratzea | Informazio-egiturak birdefinitzea |
| | Informazioa tokian toki jasotzeko aukera bultzatzea |
| | Informazioaren jasotzea premia operatiboen arabera berbideratzea |
| Inteligentzia eredu integral eta integratua ezartzea antolamendu-egitura guztian | Informazio-egiturak birdefinitzea |
| | Prebentzioa eta ikerketa bideratzea, inteligentzia-analisiaren bidez |
| | Inteligentzia-produktuak ezartzea |
| | Zabalkunde-kanalak ezartzea |
| | Informaziorako eraginkortasun-adierazleak definitzea |
| | Inteligentzia-produktuen emaitza ebaluatzea |
| Egungo ikerketa eredua berrikustea | Ikerketa-prozesua eztabaidatzea (kasuak-guardia) |
| | Ikerketako prozesu klabea deskribatzea |
| | Ikerketarako eraginkortasun-adierazleak definitzea |
| | Ikerketa-egitura sistema malguagoetara egokitzea |
| | Ikerketa maila guztietan bultzatzea |
| Polizia tekniko eta zientifikoko zerbitzuak indartzea | Begi Ikuskapeneko prozesua deskribatzea |
| | Jasotako ebidentzien kopurua eta kalitatea areagotzea |

| Helburuak | Ekintzak |
|---|---|
| | Ebidentziak hartu eta tratatzeko prozesua berrikustea |
| | Zerbitzuen emaitza ebaluatzea |
| | Aurrerapen teknologiko eta zientifikoa gaineratzea |
| **2.3 ildo estrategikoa:** Ertzaintzaren kudeaketara gaineratzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetza, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko | |
| Ertzaintzaren prozesu-mapa osatzea | Prozesu estrategikoak definitzea |
| | Prozesu estrategikoak garatzea |
| | Zerbitzu-gutunak garatzea |
| Emaitzen ebaluazioan oinarritutako kudeaketa eredu bat ezartzea | Kudeaketa-adierazleen bateria identifikatzea |
| | Kudeaketa-adierazleen konparaketako barne-sistema bat ezartzea |
| | Konparaketak biltzea beste erakunde batzuekin |
| | Analisi-joerak gaineratzea |
| Kalitatea kudeatzeko sistema berrikustea bikaintasun-ereduetarantz bideratuta | Bikaintasunaren printzipio orokorrak kontuan hartzea |
| | Printzipio horien aplikazio-parametroak sartzea |
| **2.4 ildo estrategikoa:** Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa | |
| Ertzaintzaren lidertza eredua definitzea | Prestakuntza definitutako eredura egokitzea |
| | Etengabeko prestakuntza ematea |
| | Lidertzaren ebaluazioa |
| | Metodologia eta helburuak ezartzea harreman instituzionaletan |
| Barne-kontroleko zerbitzuak berrikustea eta egokitzea | Ikuskapen-sistemak berrikustea |
| | Barne Araubideko Erregelamendua berrikustea |
| | Diziplina-aplikazioko irizpideak ezartzea |
| | Inpaktu soziala eragiten duten jardunen ikerketa sistematizatzea |
| Jardun profesionala ebaluatzea | Balorazio-irizpideak identifikatzea |
| | Datuak biltzeko tresnak diseinatzea |
| | Ebaluazio- eta jakintza-prozesu bat ezartzea |
| Laneko giroa ebaluatzeko plan bat ezartzea | Ebaluazio-elementuak identifikatzea |
| | Inkestak diseinatzea |
| | Inkesten prozesua sistematizatzea |
| | Ondoriozko ekintza-planak egituratzea |
| Barruko interes-talde guztien premia eta espektatibak orekatzea | Lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko mekanismoak diseinatzea |
| | Berdintasun-politikak bultzatzea |
| | Arautegiak 56 urtetik gorakoen artean eta bigarren jardueran duen inpaktua ezartzea |
| **2.5 ildo estrategikoa:** Babes Zibil eta Larrialdien arloko plangintza eguneratzea | |
| Arau esparrua berrikustea eta osatzea larrialdien alorrean | Larrialdiak Kudeatzeko 1/1996 Legea eguneratzea |
| | Prebentzio Zerbitzuen, Sute Itzalketako eta Salbamenduen Lege bat egitea |
| | LABI Euskadiko Babes Zibileko Plana eguneratzea |
| | Uholde-arriskuen aurrean plana eguneratzea |
| | Baso-suteen arriskuen aurrean plana eguneratzea |
| | Arrisku kimikoko kanpo-planen eguneratzea (SEVESO) |
| | Errepide Garraioko eta Trenbide Garraioko istripu-arriskuaren aurreko plana eguneratzea |
| | Uholde-arriskuen aurrean plana eguneratzea |
| | Itsas kostaldeko kutsaduraren aurkako plana egitea |
| | Larrialdi erradiologikoen plana egitea |
| | Neguko bidezaintzako plan estrategikoaren burutzapena |
| | Presen planen burutzapena eta ezarpena |
| | Hitzarmenak Babes Zibileko eta Larrialdien Zuzendaritza Nagusiarekin |
| **2.6 ildo estrategikoa:** Euskadiko Joko Sistemaren Ikuspegi Integrala | |
| Joko azpisistema eta modalitate guztiak integratzea eta arrazionalizatzea | Araudia berri diseinatzea joko-azpisektoreak berriz biltzeko ezaugarri erkideen eta elementu bereizleen arabera |
| | Foroak bultzatzea beste administrazio batzuekin jokoaren zerga-arloan. |
| | Zeharkako neurriak onartzea (publizitatea) |
| | Ikertzeko eta legez kontrako jokoa detektatzeko ikuskapeneko programa espezifikoa |
| | Legez aurkako jarrerekin lotutako berehala jarduteko protokolo espezifikoa (adigabeen jokoa eta debekatutako pertsonentzako sarbidea) |
| Joko arduratsua sustatzea | Publizitate-kanpainak joko arduratsuko informazio-mezuak barnean hartzearekin lotzea. |
| | Joko-enpresetako langileek joko-arduratsuari buruzko ikastaroak egiteko betebeharrak ezartzen araudian. |
| | Jokalariaren estatutua onartzea eta bertan haiek dituzten eskubide eta betebeharrak adieraztea, joko-jarduerekin lotutakoak betiere. |
| | Joko-elementuak dituzten establezimendu guztietan joko arduratsuarekin |

| Helburuak | Ekintzak |
|---|---|
| | lotutako kartelak jartzeko betebeharra ezartzea. |
| | Diziplina anitzeko taldeak bultzatzea joko arduratsuari buruzko azterketa eta gogoeta egiteko. |
| | Joko arduratsuari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea komunikabideetan. |
| **2.7 ildo estrategikoa:** Trafikoko datuak eta informazioa jasotzea eta trukatzea | |
| Trafikoko datuak trukatzeko informazio sistema bat diseinatzea eta mantentzea | Iragazteko eta datuen kalitatea neurtzeko erreminta bat garatzea, eta bide-segurtasuna kudeatzeko grafikoen eta kontsulta-emaitzen irudikapena |
| | Gorabeheren aplikazioa eguneratzea informazio hori trafikoko datuetara gaineratzeko |
| | Lotura beste kontrol-zentro batzuekin irudiak eta datuak trukatzeko |
| | Hiri-errepideen datuak, istripuen kopuru eta arau-hausteak biltzen dituen bide-segurtasuneko ebaluatzaileen txostenak |
| **2.8 ildo estrategikoa:** Euskadiko bide-segurtasuneko plan estrategikoa | |
| Euskadiko Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoa lantzea eta ezartzea | Euskadiren bide-segurtasuneko plan estrategikoa lantzea, ildo estrategikoak onartuz |
| | Urteko jardun-planetan edo sektore-programetan ezartzea |
| | Udalerriek hiri-esparruan bide-segurtasuneko planak landu ditzatela sustatzea, Euskadiko Bide Segurtasunaren Plan Estrategikoan finkatzen diren norabideak kontuan izanda. |
| | Plan estrategikoaren eta jardun-planen jarraipena egitea |
| **3. ardatza:** Koordinazioa | |
| **3.1 ildo estrategikoa:** Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea | |
| Ertzaintza nazioarteko polizia foroetan integratzea | Nazioarteko polizia-erakundeetan parte hartzeko aukera aztertzea |
| | Aldebiko harremanak sustatzea |
| **3.2 ildo estrategikoa:** Ertzaintzaren kudeaketara gaineratzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetza, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko | |
| Erakunde arloko aliantza programa bat ezartzea | Ertzaintzaren erakunde-harremanak definitzea |
| | Egungo akordioak berrikustea eta harreman-ereduak definitzea |
| | Lankidetza-akordioak bultzatzea foru-aldundiekin |
| | Lankidetza-akordioak bultzatzea udalekin |
| | Epaileen, Ministerio Fiskalaren eta Euskal Poliziaren koordinazioa sustatzea Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren esparruan |
| | Justizia Administrazioarekin izan beharreko komunikazioa argitzea |
| | Lankidetza-programak ezartzea hezkuntza-zentroekin |
| | Kontsuletxeekin izan beharreko harremanak egituratzea |
| Polizia-aliantzen programa bat ezartzea | Egungo akordioak berrikustea eta harreman-ereduak definitzea |
| | Lankidetza-hitzarmenak bultzatzea udaltzaingoekin eta foru-poliziekin |
| | Estatuko poliziekin harremanak sustatzea eta berrikustea |
| | Beste polizia batzuekin harremanak bilatzea eta sustatzea |
| Arlo pribatuko aliantza-programa bat ezartzea | Harreman-eredu bat definitzea ekonomia- eta enpresa-arloan |
| | Harreman-eredu bat definitzea kultura-arloan, kirol-arloan, aisia-arloan eta abar. |
| | Harreman-eredu bat definitzea enpresa pribatuaren arloan |
| Kanpo partaidetzarako mekanismoak ezartzea | Kanpo-erakundeak sartzea prozesu-taldeetan |
| | Sailaren langileak sartzea kudeaketa-taldeetan |
| | Parte hartzeko eta polizia-jarduera ebaluatzeko foroak ezartzea |
| **3.3 ildo estrategikoa:** Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa | |
| Partaidetza eta talde-lana sustatzea | Gogoeta-prozesu partizipatiboak ezartzea |
| | Hobekuntza-taldea ezartzea |
| | Iradokizunen prozesu bat sortzea eta ezartzea |
| Harreman sistematika bat garatzea sindikatuekin | Harreman-mailak ezartzea |
| | Harreman-edukiak ezartzea |
| | Partaidetza-ildoak ezartzea |
| **3.4 ildo estrategikoa:** Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuen eta sistema ahalbidetzen duten erreminten koordinazioa hobetzea | |
| Harremana sustatzea toki-erakundeekin babes zibileko eta larrialdien araudiaren inguruko aholkularitzarako, eta araua bete eta interpretatzeko | 20.00 biztanletik gorako udalerrien larrialdi-planak gainbegiratzea |
| | 5.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitarte dituzten udalerrien larrialdi-planak gainbegiratzea |
| | Laguntza gainerako udalei |
| | Udalen larrialdi-planen erregistroa eguneratzea |
| | Autobabeseko arau ezartzeko jarraipena |
| | Harreman operatiboa protokolizatzea bere zerbitzuekin |
| Euskal administrazioen segurtasun | Euskarri ezartzea SOS DEIAKetan |

| Helburuak | Ekintzak |
|---|---|
| publikoaren zerbitzu guztiek hartu beharreko estandarrak ezartzea | Euskarri ezartzea Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan |
| | TETRA hitzarmenak udalekin eta foru-aldundiekin |
| | GIS korporatiboa zerbitzu operatiboetarako |
| Informazio korporatiboko sistemak eguneratzea | GIS korporatiboa (geruza operatiboak) |
| | Ekintza Planak |
| | Larrialdien webgunea |
| Behaketako sare hidro-ozeano-meteorologikoa mantentzea eta berrantolatzea denbora errealean | Kostaldeko sei plataformak hiru plataformatan berrantolatzea |
| | Jataren informazioa gaineratzea |
| | Sare hidro-meteorologikoa gehitzea (URArekin), Uholde Arrisku Handiko Eremuak estaltzeko |
| | Estazio berriak |
| Jazoeren irudiak gaineratzea denbora errealean sos deiak larrialdiak koordinatzeko zentroetara | Autopistetako tunelak |
| | Arriskua kimikoa duten enpresak |
| | Hondartzak |
| | Aireportuak |
| | Metroa |
| | HS ibilgailuetatik |
| **3.5 ildo estrategikoa: Euskal Polizia Koordinatzeko Sistema bat ezartzea (Ertzaintza eta Udaltzaingoa)** | |
| Euskal poliziaren zerbitzuen lankidetza- eta koordinazio-mekanismoak ezartzea eta bultzatzea | Udaltzaingoen Erregistroa antolatzea eta kudeatzea. |
| | Udaltzaingo guztiak lotzen dituen komunikazio-sarea mantentzea, eta haiek Ertzaintzarekin lotuta egon daitezela ahalbidetzea |
| | Udaltzaingoak Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroan integratzea |
| | Beharrezkoak diren harreman- eta lankidetza-kanalak ezartzea Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistema osatzen duten Administrazio Publikoekin |
| | Euskal Administrazioen segurtasun publikoaren zerbitzuek hartu beharreko estandarrak ezartzea, datuak transmititzea eta gorabehera eta baliabideak kudeatzea eta bideratzea ahalbidetuko dutenak, baliabidea guztiak denbora errealean behar bezala koordinatzeko |
| | Harremanak ezartzea udaltzaingoekin trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudia bete eta interpretatzeko |
| | Harremanak ezartzea toki-erakundeekin jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzen dituen araudia bete eta interpretatzeko |
| | Elkartze-eskaerak izapidetzea polizia-jarduerak emateko, udalerri bateko agenteek beste udalerri batean eman ditzaten, edo kidego berriak sortzeko |
| | Udaltzainen lan-poltsaren sorrera bultzatzea (bitartekoak) |
| **3.6 ildo estrategikoa:** Osagarritasuna beste administrazio batzuekin | |
| Jardun bateratu eta osoa lortzea jokoaren eta ikuskizunen arloan beste administrazio batzuekin | Eudelekin lantaldeak sortzeko aukera bultzatzea, gai erkideak jorratzeko bideratutakoak, ikuskizunetako lokalei eta jolas-jarduerei dagokienez. |
| | Foroak bultzatzea beste administrazio batzuekin jokoaren zerga-arloan |
| **3.7 ildo estrategikoa:** Ekinbide Segurtasun Sistema Hobetzeko Herritarren Ekimenetarako Bulegoa antolatzea eta kudeatzea | |
| Segurtasun Publikoaren Sistemaren zerbitzuen kalitatearen hobekuntzarako laguntzea | Herritarren eskueran jartzea komunikazio-kanal sistematiko eta sinesgarri bat, haien premiak eta eskaerak ezagutzea ahalbidetuko duena |
| | Herritarren iritzia jakitea polizia-zerbitzuei buruz, haien prestazioa hobetuz |
| | Herritarrek polizia-zerbitzuekin dituzten harremanei buruz dituzten iritziak adieraz ditzatela sustatzea |
| | Segurtasun Sailaren beste arlo batzuekin lankidetzan aritzea sailaren zerbitzuen hobekuntzan |
| Polizia-zerbitzuen erabiltzaileei beren interesak babesteko tresna bat eman nahi zaie | Nahi duten herritar guztiek beren asegabetasuna adierazteko aukera izan dezatela ahalbidetzea |
| | Planteatutako hobekuntza-neurrien jarraipena eta kontrola egitea |
| | Beste instituzio eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea herritarren eskubideak babesteko |
| Herritarrek hautemandako segurtasun-irudia hobetzea | Segurtasun publikoaren politikak herritarren premietara egokitzea |
| | Erakunde arteko foro eta mahaietan parte hartzea |
| | Zerbitzuaren funtzionamendua ebaluatzeko azterketak egitea |
| **3.8 ildo estrategikoa:** Segurtasun Publikoaren Estatistika Organo Espezifikoa kudeatzea | |
| Estatistika-kudeaketa koordinatzea, erregularizatzea, hobetzea eta bultzatzea Segurtasun Sailean | Administrazioen (tokikoa eta estatukoa) estatistikak integratzea segurtasun publikoaren esparruetan (polizia, larrialdiak, trafikoa,...) |
| | Euskadiko araudia betetzea estatistika-arloan. Ofizialtasuna ematea Segurtasun Sailak landutako estatistika-datuei |
| | Europako Estatistika Batzordeak onartutako Europako Estatistiken Jardunbide Egokien Kodea ezartzea |
| | Segurtasunaren arloetako estatistika-azterketa eta -analisiak egitea |
| | Biktimizazioari eta segurtasunaren pertzepzioari buruzko azterketak integratzea |

| Helburuak | Ekintzak |
|---|---|
| | Estatistika-informazioko premiei erantzutea barne- eta kanpo-segurtasuneko arloan |
| | Estatistika-bankua sortzea eta mantentzea Euskadiko segurtasunaren arloan. |
| | Euskal Poliziaren jardueraren urteko memoria lantzea |
| **4. ardatza:** Prestakuntza | |
| **4.1 ildo estrategikoa:** Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa | |
| Prestakuntza humano eta teknikoa sustatzea eta lantzea | Prestakuntza-premiak ereduaren arabera identifikatzea |
| | Prestakuntza arautu eta ez-arautυtako mekanismoak ezartzea |
| | Ertzaintzaren eredua (Misioa, Ikuspegia eta Balioak) prestakuntza akademikora gaineratzea |
| | Prestakuntza maila guztietan ebaluatzea |
| | Ertzaintzaren partaidetza sustatzea prestakuntzaren diseinuan eta ematean |
| Jakintzaren kudeaketa-plan bat diseinatzea | Egungo jakintza identifikatzea |
| | Jakintza jaso eta antolatzeko aukera sistematizatzea |
| | Jakintza pertsonen eskura jartzea |
| **4.2 ildo estrategikoa:** Larrialdietako eta meteorologiako arloan prestakuntza herritarrentzat eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuetarako | |
| Ikerketako eta prestakuntzako foro teknikoak garatzea larrialdietan eta meteorologian | EHUren udako ikastaroa |
| | Estatuko eta Europako proiektuetan parte hartzea |
| **4.3 ildo estrategikoa:** Barne- eta kanpo-prestakuntza jokoaren eta ikuskizunen arloan | |
| Prestakuntzaren bidez jokoaren eta ikuskizunen arloan inplikatutako agenteek beren kualifikazioa hobe dezatela lortzea | Prestakuntza-ikastaroak Joko eta Ikuskizun Unitateko kideentzat makina eta joko-sistemei, autobabesari, material piroteknikoari, informatikari eta abarri buruz. |
| | Zeharkako irakasgaietako prestakuntza-ikastaroak (euskara, administrazio-prozedura...) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako langileentzat. |
| | Lokalen segurtasunari buruz prestakuntza-ikastaroak, joko-enpresei eta ikuskizun antolatzaileei zuzendutakoak. |
| **4.4 ildo estrategikoa:** Hezkuntza eta prestakuntza | |
| Mugikortasun segurua lortzeko hezkuntza sustatzea, baita bide-aztura eta -jarrera seguruak eta bide-prestakuntza ere | Hezkuntza eskaintzea mugikortasun segururako, ikasgeletan aplika dadin unibertsitatekoak ez diren hezkuntza-etapa guztietan |
| | Mugikortasun segururako hezkuntzako prestatzaileak prestatzeko ikastaroak eskaintzea |
| | Kanpainak, elkarraldiak, biltzarrak eta abar egitea |
| | Hezkuntzaren balioak sustatzen dituzten materialak lantzea mugikortasun segururako hezkuntza-testuinguru ez-formaletan |
| | Mugikortasun segurua eta iraunkorraren aldeko kanpainak egitea |
| | Bide-prestakuntza (irakasleak, gidari-eskolak...) |
| **5. ardatza:** Komunikazioa | |
| **5.1 ildo estrategikoa:** Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik | |
| Irudi korporatiboa indartzea | Informazio-bide berriak ezartzea sare sozialen eta Internet bidez |
| | Kanpo-komunikazioko plan bat egitea |
| | Dependentzien gune publikoak egokitzea |
| | Uniformetasuna atsegin egitea |
| **5.2 ildo estrategikoa:** Ertzaintzaren kudeaketara gaineratzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetza, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko | |
| Berrikuntzaren kultura sustatzea | Jardunbide egokien foroak ezartzea |
| | Ideia berrien ekarpena sustatzea |
| **5.3 ildo estrategikoa:** Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa | |
| Barneko ikuskapenen plana ezartzea | Barne-komunikazio politika ezartzea |
| | Komunikazio-kanalak berrikustea eta berriak ezartzea |
| | Barne-komunikazioko inpaktua ezartzea |
| **5.4 ildo estrategikoa:** Herritarrarekin komunikatzeko sistema eta prozedurak eguneratzea | |
| Euskalmeten hedadura publikoa indartzea | Parte hartzen dugun euskarazko hedabideen kopurua gehitzea |
| | "Audio-pastillak" sartzea prentsa digitaleko hedabideetan eta gure webgunean |
| | Talde edo pertsonen lankidetza informatzaile espezializatu gisa |
| | Erreferentziazko bozeramaileak gehitzea |
| | Zuzeneko "presentzia" gehitzea telebistetan |
| Larrialdietan herritarrarekin harremanak izateko modua eguneratzea | Presentzia etengabea sare sozialetan (Twitter eta beste batzuk) |
| | Traolak sortzea, Euskadin erreferentzia izango direnak |
| | Mugikorretarako APP aplikazioak egitea |
| | Produktu eta jarduerak etengabe eguneratzea webgunean |
| **5.5 ildo estrategikoa:** Salaketak eta baimenak izapidetzea | |
| Trafiko-administrazioak zerbitzu azkarrago, hurbilago eta fidagarriago bat garatzea salaketen edo baimenen izapidetzean, e- | "PSBerria" abiaraztea, hau da, Zehapen Prozeduraren garapen-premia berriei egokitutako aplikazioa |
| | Gidari Eskolaren aplikazio informatikoa abiaraztea |

| Helburuak | Ekintzak |
|---|---|
| administrazioaren eta prozesuen automatizazioaren alde eginez | Garraio bereziak kontrolatzeko aplikazioa garatzea |
| | Jarrera arau-hausleak zuzentzeko trafiko-araudiarekiko arau-hausteengatik sortutako zehazpen-espedienteen izapidetzean interesa duten pertsonekin izan beharreko komunikazioa hobetzea |
| **5.6 ildo estrategikoa:** Herritarrentzako informazioa | |
| Herritarrei modu zuzen, berehalako eta irmoan informatzea euskal bide sarearen trafikoari buruz | Herritarrei modu zuzenean eta denbora errealean informatzea webgunearen, 011 telefonoaren eta sare sozialen bidez |
| | Smartphone-entzako aplikazio bat garatzea, Euskadiko trafikoari buruzko informaziora sartzea ahalbidetuko duena |
| | Gidariari Smartphone bidez informazioa emateko proiektua egikaritzea |
| | Bide Segurtasun eta Mugikortasunaren Behatokia indartzea |